

# EUSKERAZAINZA

EUSKERAREN ERRI AKADEMIA  
Academia Popular de la Lengua Vasca  
L'Academie Populaire de la Langue Basque

LIII Zenbakia

2004n. urtea

EUSKERAZAINZA. . . . .

. . . . .

ERRIZ ERRI. . . . .

. . . . .

ERRI-EUSKERA LANTZEN. . . . .

**EUSKERAZAINZA. Euskeraren Erri Akademia.**

**Z. N. A. /C. I. F. G 20/127. 759**

**Eusko Jaurlaritzaren Elkarte Erroldan, 1136 zenbakia.**

**Erri Zuduzkotasunaren Aldarrikapena (BOE 45/1981 eta EE. AA. 96/1984)**

**Zuzenbideak: 1192 Posta Kutxatilla 20080 DONOSTIA**

**Colón de Larreategi, 14-2ª 48001 BILBAO**

## AURKIBIDEA

	Orr.
Atarikoa (Olazar'tar Martin'ek).....	5
Euskerazaintza-Euskaltzaindia eta euskerea errian (Olazar'tar Martin'ek).....	6
2004 urteko jardueren azalpena (Joxemari Murua'k).....	9
Bakoitxaren lanak 2004 urterako (Olazar, Atutxa, Latxaga, Arrinda (†), Latiegi, Amale eta Paulin'ek).....	11
EUSKERAZAINTZA'ren gaur egungo idazleak (Joxemari Murua'k).....	13
Okerrak zuzentzen (Joxemari Murua'k).....	15
Akatsak eta erderakadak (Gaztañaga'tar Josu'k) (†).....	20
Loiola'ko Ignazio Bilbao'n? (Olazar'tar Martin'ek).....	27
Latiñetik euskerara etorritako berbak (Olazar'tar Martin'ek).....	28
“N” galkorra euskeran (Olazar'tar Martin'ek).....	29
Ogeta amaiseko guda-euskalerria (Hugh Tomas) (Olazar'tar Martin'ek).....	30
Bizkai'ko jaunik zarrenak (ez ziurrak) (Olazar'tar Martin'ek).....	41
Euskaldunai zergarik ez (Olazar'tar Martin'ek).....	42
Euskalerria'n Aita Santu: VI Adriano.....	43
Ziortza'ko Andra Mari (Olazar'tar Martin'ek).....	44
Bereizkuntzari lotsea (Atutxa'tar Paul'ek).....	46
Bixente Ferrer Santua Bizkaia'n (Olazar'tar Martin'ek).....	49
Izaro Bermeo'n, frantziskotarrak (Olazar'tar Martin'ek).....	50
Euskerea ta japonerea Azkue'ren ustez (Olazar'tar Martin'ek).....	51
Aragoi'ko izen euskaldun zarrak erdiaro garaiean (Latiegi'tar B. 'k).....	52

## Laguntzalleak

Gipuzkoako Aldundia

Eusko Jaurlaritza



EUSKERAZAINTZA

I. S. B. N. : 1132-1318

Legerako Gordetza: BI-1928-87

Konponketa: Flash Composition, S. L. - Bilbao

# ATARIKOA

Eskuetan daukazu, irakurle maite, EUSKERAZAINTZA ALDIZKARIA'ren aurtengo bigarren zenbakia. Ekin eta ekin aurrera goaz gure lanean euskerearen onerako.

Lenengo sei lanak Anton D'abbadie sariagaz dute zer-ikusia: Aurkezpen orokor bat lenengo, aspaldiko urteetan euskerea nola doan agertzeko, obetuz doa baiña lan aundia dago egiteko.

Urren Euskerazaintza'ko idazleak euskerea zuzentzeko egin dogun lana agertzen degu: Bakoitxaren eguneroko lanak, zeintzuk diran gaur Akademi onetako idazleak, okerrak zuzentzen egin degun lana eta emen, ain gaztetan joan zitzaigun Gaztaña'tar Jexus gogoratu bear.

Jarraian iru lan arin agertzen dira, aldizkaria astuna izan ez dedin.

Ogetamaseiko gudan euskaldunak zelako kalteak izan genduzan, gauza jakina da, baiña idaz-lan naikoa luze baten, arazo nola ikusten duan anglandar batek, Hugh Tomas edestilari ospetsuak, aztertzen dogu.

Beste iru lan arin datoz urrengo.

Ba-dakigu euskalerrak bereiztasun aundia daukala errien artean, baiña bereizkuntza ez dute onartu nai erbesteko askok. Arazo au aztertzen du Atutxa'tar Paul'en lanak.

Bitarterako beste iru lan arin.

Eta, amaitzeko, Latiegi'tar Bixente'k Aragoi'ko esku-idazki zarretan agertzen diran euskal-izenen gaia jorratzen du. Ondo dakigu alor onetan gure Bixente oso aitua dana.

Izan dakigula gaurko alkar-izketa au onuragarria!

**Olazar'tar Martin**  
EUSKERAZAINTZA'ren zuzendariak

# EUSKERAZAINTZA- EUSKALTZAINDIA ETA EUSKERA ERRIAN

## ERRIARENA

Zillegi izan bekit gure izkuntzari eta erriari begirakada bat egitea. Ariketa au noiz-beinka egin-bearrekoa da, gure jokabidea zelán doan ikusteko eta izan daitekezan okerrak zuzentzen alegintzeko.

Lenengo ta bein, kontuan artu daigun izkuntza erriak sortu dauan eta alkarrari abisteak eta burubideak agertzeko daukagun erarik bikaiñena dogula, naiz euskera mintzatua naiz euskera idatzia.

Bigarren, ez dagigun aitzu gure aurretikoak ulertu-eziñeko jakituri bategaz, euskera asmau ebela urteen joanean, eta erriaren barruak eskatzen eban eta erriaren nortasuna agertzen dauan izkuntza, au munduko izkuntzalari guztiak diñoenez, oso berezia eta asmamen aundiagaz sortua dala. Or daukagu gure aditzaren izaerea, or gure josterearen berezitasuna, or noriak aintzat artzeko bide egokia, or urteen joanean izan dan erri-jakintzaren laburpen zoragarria.

Euskerearen aberastasuna, gaiñera, errialde bakoitxean ezbarðiña izatean dago: Ezbarditasun aundiak lurralde zabalen edo errialdeen artean, ezbardintasan txikiagoak lurralde txikien artean eta, bear ba' da, etxerik etxe. Zelako aberastasanak aurkitzen dabezan or izkuntzalariak, Bonaparte printzea asita, guk geuk aintzat be artzen ez doguzan aberastasanak

Orregaitik esaten dogu eta esan bear dogu euskerea mundu zabaleko jakintza guztien artean aberastasan aundi bat, altxor aundi bat, dala. Zaindu daigun, aberastu daigun, ondo ikasi eta zabaldu daigun.

Eta euskerea aitatzen dogunean, euskera osoa aitatzen dogu, ez lurralde batekoa. Euskera ondo ez daki euskalki guztiak ez dakizanak. Beti alegindu bear gara euskerea obeto ikasten. Iñoz ezin esan geinke "nik dana dakit, nik euskerea ba-dakit". Ez. Beti ikasten!

Baiña euskerea geure ekintzetan artzen dogunean, ez dogu artu bear norberaren gauzea ba' litza lez. Ez. Iñor ez da euskerearen jabe. Iñok ez dauka eskubiderik euskerea aldatzeko edo barrizatzekeo edo batzeko. Akademiak be ez. Onei buruz esan bearra dago esaldi eder bat artu ebala España'ko Akademiak bere zeregiña zein dan esateko: "Limpia, fija y da esplendor". Euskerazaintzaren naiz Euskaltzaindiaren naiz antzeko erakundeen zeregiña, euskereari begira, ez da orixe baiño besterik: Euskerea "garbitu, sendotu eta argitu".

## Alkarren otsein

Euskerea eta gu alkarren otsein, zerbitzaille, baiño ez gara: Guk euskerea otseindu egin bear dogu bere zeregiña beteteko lanabes egokia izan daiten, baiña euskerea bera be gure otsein, zerbitzaille, da, geure barru euskalduna agertzeko bide egokia dogulako.

## Itzaltasuna

Orregaitik, euskereari itzaltasuna izan bear dautsagu, erriari itzaltasuna zor dautsagun antzera.

Ez erabili euskerea geure naietara, ez “manipulatu”, ez aldatu. Itz barriak sortu bearko dira, baiña kontu aundiagaz eta euskereak berak adierazpen ori daukan itzik daukan ala ez ondo aztertuta eta erbesteko itzak larregi artuta gure izkuntza oneri kalterik egiten ete dautsagun ondo begiratuta. Kanpotik itzak artzea ala barrutik itz barriak sortzea zein ohea dan balantzan edo azta-gailluan ondo neurtuta.

Eta arlo onetan ez dagigin izan bildurrik agertzen diran eritxiak edo aldakuntzak geure artean aztertzeko. Ekintza au beteten urteak daroaz Euskerazaintzak, len gei-ago aspaldian baiño. Urteetan agertu genduzan izparringietan esaldi okerrak zuzenduta, eta gaur berton be, gure aldizkarian zenbaki onetan be, olako lana egiten jarraitzen dogu. Eta ezin ukatu asko lortu dala, zorionez.

## **Erasoa**

Gure irakurleak ba-dakie zelako eraso negargarria jazan eban euskereak 1968n. urtean izan zan Arantzazu´ko batzar nastetsu aretan: Lekuona, gogorkeriz, kendu, h´a ta beste idaztarau oker batzuk sartu, erriko euskerea zapaldu eta, bizkaiera batez be, ilzorian ezarri. . . Gure Lekuona´k berak be, bakea lortzearren esan eban “beso bat galtzea oba dala gorputz osoa iltzea baiño”, esan gura ebana, bizkaiera galtzea oba dala, euskera osoa galtzea baiño.

Arro geratu ziran jokabide orregaz, eta batez be Mitxelena´k agertu eban “bioloji-indarragaz “ euskera batua egin ebanak. Ordutik ona 35 urte dira eta orduko gazteak gaur zar egin dira, “bioloji” indarra joan jake. Gaur dana da “mantso”ago.

Baiña batuaren asmatzaille eta euskerearen erasotzaille orreik setatiak ziran.

Amargarren urtean Bergara´n egin eben batzar bat, “batua” zelan joian aztertze-ko. Euskerazaintza, orduan Kardaberaz Alkartea, ez zan izan deitua, baiña an izan giñan eta geure esondapenak agertu genduzan, guk, eta beste batzuk, bakerako bideak agertu genduzan, baiña dana izan zan alperrik, ez egoan ezer aldatzerik, ez egoan besteena onartzerik, guk aurrera atera nai gendun erri-euskerearentzat ez egoan Euzkaltzaindiaren aldetik ezelako begirapenik.

Ez gendun euki beste biderik, Akademi barri bat sortzea baiño. Orixe izan zan gure jatorriko ekintza. Bear ziran lege-aldetetiko baimen guztiak lortu genduzan eta artu gendun zeregiñari jarraitzen dautsagu, gure berbakaz, batzarrakaz, aldizkariakaz eta liburuakaz erri-euskerea, eta batez bizkaiera, aurrera ateraten eta indartzen. Zori txarrez ez daukagu laguntza askorik, baiña gure gogoia bizi-bizi dago.

Gaur argi ikusten da, geurea zala errazoia, euskera idatziak h´a daukalako batua´ren antza emoten dautso euskereari, baiña berbaz erabilten dana, guk beti onartu dogun Gipuzkoera osotutik ez dago ain urrin. Gaur telebistan eta irrati-erabilten dan euskerea aldi baten erabilten zana baiño garbiagoa da, naizta oraindiño bide luzea izan egin bear dana.

Eta h´ari buruz, elduko dala uste dogu, izango al da ainbat lasterren, izki mutu ori egoaldeko euskaratik kentzeko ordua. Iparraldean eurak oiturea daben lez erabili dagiela, baiña guri ezarri barik.

Italiera da eredu onetan: Italiar ez daukoz mutu diran lau “h” baiño : “Naz, aiz eta da” esateko diranak eta arrigarri-ikurren bat. Italiaraz “istoria” idazten da, orrelantxe. Eta idazkera orrek erreztasun aundia emoten dautso italiereari. Zergaitik ez bardin euskeran? Zergaitik ipiñi da, kendu bear zan orduan?

## **Ondorenak**

1968 ta 1978 urteetako eraso orrek, Arantzazu´n gau baten eta apari baten ondo jan eta edan ondoren, ezelako autaketa barik, batzar zaratatsu baten artu zan eraba-

gi arek, kalte ikaragarriak egin dautsoz euskereari. Labur-labur esateko:euskera mordollua ta mantxatua ezarri eban, umeai ikastoletan ikasteko etxekoa ez dan euskereara jarri jaken, orregaitik, ikastoletan euskeraz egiten dabe baiña kanpoan erderaz, umeak eta gurasoak alkar ulertzea oso gaitx biurtu da, gure ikasleak eurak dakiela euskerea eta besteak ez, uste dabe, erriak uste dau bere euskerea txarra dala eta lotsa da euskeraz berba egiten, erderaz egiten dau orregaitik, liburuak eta aldizkariak erri zeiarentzat ulertu-ezin biurtu dira, telebistan eta irratian entzun daben euskerea uler-gaitxa izan da, h´a ezartean, gaztelerak eta frantzerak dauken lako bi daukaguz euskeraz, ez dau besterik egin dana naste ikaragarri batera sartu baiño.

### **Aurrera ala atzera goaz?**

Toki batzutan euskereak aurrera egin dau. Ori ezin ukatu. Ikusi egiten da. Ikastoletan euskera geiago egiten da. Eta lenago baiño ikastola geiago dago. Gaiñera, erri-eskoletan be asko indartu da "D" eredia. Bardin esan bear, erdi-maillako ikastetxeetan be asko sartu dala euskerea. Ikastetxe Nagusietan iñoz euki ez dogun giroa daukagu, itxaropentsua. Liburuak eta aldizkariak asko ugaritu dira, Durango'ko azokan ikusten dan lez. Baiña erri euskalduna bizi izan dan lekuetan, etxeetan eta kaleetan, errietan, auzoetan, euskerea galtzen doa. Zori txarrez, geroago ta gitxiago entzuten da.

### **Latiña ´ri jazo jakona**

Gaur euskereari jazoten jakona, orixe bara, jazo jakon latiñari: Erriak beste izkera batzuk artu ebazan eta iñoz ez eban latin berba egiten jakitunak Ikastetxe Nagusietan eta euren jakiturizko liburuetan baiño. Erriak beste bide bat artu eban eta latiña etxe ederretan, Unibersidadeetan, galdu zan betiko. Ori jazoko ete jako gure euskereari?

### **Orain zer egin?**

Indartu dagigun etxeko, auzoetako eta errietako euskerea, indartu daiguzan euskalkiak edo lurraldeetako euskerak.

Goi-maillan jarraitu dagiala aurrera, baiña etxean eta kalean ez daitela galdu.

Orretarako, ikastoletan eta eskoletan irakatsi daigun amagandik ikasitako euskerea, etxeko euskerea eta gero aukera ori aberasten joan, maillarik mailla.

Ori izan da eta aurrerantzean be izango da Euskerazaintza ´ren jokabidea.

Gaia ederto agertzen dau arlo onetan Juan Luis Goikoetxea, Mendabal Taldearen zuzendariak bere Maixu-Lan Nagusian. Berak darabillen euskerea ez jat atsegin, badakit gaiñera Juan Luis ´ek ondo be ondo dakiala Mungia ´n ikasi eban bizkaierera, eta bizkaierearen alde dagoala. Baiña arazo au ederto agertuta dago bere liburu onetan. Zoriona eta eskerrak, Juan Luis adiskide!

**Olazar ´tar Martin ´ek**

## EUSKALGINTZA JARDUERAK

# 2004 URTEKO JARDUEREN AZALPENA

### 1. Urteko jardueren azalpena

1. 1. ILLEAN BEIN LAN BATZARRAK osatzen ditugu lankideen artean. Bizkai-koak eta Gipuzkoak izaten gera. Eta bakoitzak egindakoak eta egitekoak azaltzen ditu gaiak eztabaidatzeko. ALDIZKARIAN ARGITARATZEKOAK, ETA BESTE.
1. 2. NAPARROAN ETA ERRIOXAN euskaltzale talde batzuekin arremanak dauzkagu eta auei laguntzen saiatzen gera, ez bait dute erraza ango giroa.
1. 3. BAZKIDE IDAZLEEK eskuartean darabilkiten lanaren berri ematen digute. Beren lana aipatua dugu sarritan zuei bidaltzen dizkizuegun txostenetan.
1. 4. ILDAKO BAZKIDEEK utzi ziguten lana aztertuz, ekitaldiak eratzen ditugu. Euskerazaintzaren sortzailletakoak izan ziren: Lino Akesolo –gure leenengo leendakaria–, M<sup>a</sup> Dolores Agirre, Joxe Migel Barandiaran, Jesús Elosegí, Jesús Gaztañaga, Txomin Jakakortajarena, Jaime Querejeta, Alberto Onaindia, Santi Onaindia, Dionisio Oñatibia “Dunixi”, Jon Oñatibia, Manu Oñatibia, Pedro Puxana, Andoni Urrestarazu “Umandi”, Estanis Urruzola “Uxola”, Anborsi Zatarain, Iñaki Zubiri.
1. 5. AZTERLANA. Gure bazkide Bixente Latiegi’k lan aundi bat ia burutua du. Elizaren istoria, 9 liburu marduletan. Orrez gain azterlana erabiltzen du eskuartean: “Erdiaroko euskal izenen idazkera” eta Hueskan euskeraren erabiltze-ari buruzkoa .
  - ✓ Oroar gure eginkizuna, euskeraren sustraiari eta zuzentasunari eustea izaten da. Azken aldian pixka bat baztertuxeak dauden EUSKALKIAK zaindurik. Beste joerei aurka egin gabe, gu geure ondar aletxoak euskeraren alde jartzen aalegintzen gera.
  - ✓ Eta aipatutako lan guzti ori aal dugun nuerrian, geure neurritxoan. Mundu onetan lan guztietan dirua bear izaten bait da, asmoak burutzeko, eta GURE DIRUITURRIA EXKAXA da. Guk legearen arabera ezin dezakegu salketarik egin, eta ALDIZKARIA DOAIÑIK BANATZEN DUGU.
  - ✓ Beraz, aldizkariaren artzaileengandik beren borondatez bidalitako dirua jaso besterik ez dugu egiten. Eta iristen ez zaigun neurrian, bazkide lankideak, geure patrikatik ordaintzen ditugu gastuak.
  - ✓ Eta beraz ori dena dela eta, Eusko Jaurlaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundiraren iturrira urbiltzen gera dirulaguntzaren billa.
  - ✓ Ikus ere beste eraskinetan, lankide bakoitzaren egitasmoa.

### 2. Gure istori laburra

2. 1. 1968an Arantzazun batuari buruzko erabakiak artu zirenean, Kardaberaz Jakintza Bazkunako bazkideek ez genuen onartu joera berria. Eta ondorioz Euskerazaintza Euskeraren Erri-Akademia sortu genuen, ordurarteko bideari eustsi naiean. Ori nola?:

Bada, Arantzazuko erabakietan, batuaren oñarritzat, lapurtera zaarra aukeratu zuten, euskal literatura zaarrean, geien erabilia izan zelako.

Gure ustez, berriz, euskera batua, bizi-bizirik dauden euskalkien indarrean oñarritu bear da.

Kardaberaz Jakintza Bazkuna, 1924an sortua izan zen, Gazteizko Seminarioan, On Manuel Lekuona'ren zuzendaritzapean. Eta ordundik gaur arteraiñoko urte guzi orietan, eta beraz, ez onenetan, errian sustraitutalo euskera lantzea izan da Kardaberazko bazkideen iarduna, eta aldi berean liburu ederrak eta mardulak argitaratuz. Sail bat aipatzearren, On Manuel Lekuona'ren idatz lan guztiak, 12 ale ederretan.

*Gaur egun, Arantzazuko batzarraz geroztik 35 urteren buruan, denborak, "epaika-ri goren orrek" askotan gertatzen den bezala, ez ote digu arrazoi eman. Naasketa baten ondoren, Euskal Telebistan, gipuzkera nagusitu dute. Bizkaian kokatutako Telebistan. Eta bizkaierarik ez dute aipatzen ere, arlote gisan ez bada. Meza Bizkaitik danean, orduntxe entzun aal izaten dugu bizkaiera literarioa. Iparraldearen "Orena" bai ordea. Ori zergatik ote ???*

Bijoakizue, atariko au, nor geran leenik aurkezteko. Ildo orretatik, 1998an LIBURU GORRIA argitaratu genuen. Eta zueri ere bidalia izan zen.

Euskerazaintzak lankideen artean bizkaitarrak eta gipuzkoarrak ditu, esan bezala. Eta ildo orretatik, bizkaiera eta gipuzkera lantzen saiatzen gera eta aal den neurrian, euskeraren osotasunari eta zuzentasunai eutsiz. Garai batean, 1968 erri-euskera aipatu genuenok zapuztuak izan giñen. Eta orain badirudi "errixka-euskera" punta-puntakoa egin nai dutela. Komunikabideetan "kaixo arteko" euskera entzuten asi gera azken boladan. Ikus "Okerrak zuzentzen" izenburuaz eraskiña.

Euskeraren aultze ori, komunikabideetan oso kezkarria dela uste dugu. Jasoa-goia bearko luke.

Itzulpenetan, berriz, nai baiño geiagotan, gazteleraren kalko utsak ikusten ditugu. Euskal sena menderatu gabe, itzultzaile asko dabil.

**2. 2 Aurre-kontuan aipatzen dugun bezala, azken aldian jasotako diru laguntza oso murrizta izan da.** Eta Olazar jauna, gure leendakariak, dirua aurreratu bear izan du, gure argitalpenetarako.

**2. 3 Gure etorkizunerako irteera:**Kardaberaz Jakintza Bazkunarekin bat egin genuen, Eta elkarte orrek lokal bat dauka salgai, Tolosan. Eta bakoitzaren Araudian eta orren bidez izenpetutako itzarmenaz, lokal ori saltzen denean, Euskera-zaintzak jasoko du ondarea. Bi elkarteak bat egin bait genuen.

**Joxemari Murua Goñi**

Euskerazaintza'ko

Bazkide- kontularia.

Telef. zenbakia 943 45 60 63



# 2004n. URTEAN EGITEKO LANAK

## A) EUSKERAZAINTZAN

1. – EUSKERAZAINTZA'rean illeroko batzarra gertatu ta zuzendu.
2. – EUSKERAZAINTZA Aldizkariaren zenbaki bi gertatu: Neure lanak idatzi, bes-teen lanak artu, irakurri, irarkolara eraman, irarkolako len-idatziak zuzendu.
3. – EUSKERAZAINTZA'n artutako eskutitzai erantzun.

## B) BESTE LAN BATZUK

1. – GAMIZ izena izango dauan liburua idatzi ta irarkolara eraman, zuzendu. . .
2. – Patxi Bilbao'ren "bizi-ikasiak" liburua euskeratu.
3. – ZER aldizkariaren illeroko zenbakia gertatu ta zuzendu.
4. – EUSKERAZALEAK ALKARTEA'n illeroko batzarra zuzendu.
5. – Ipuin-Sariketa gertatu, iragarri, maiko izan.
6. – Eguneroko orria dauan egutegia, bizkaieraz, lagunakaz gertatu ta bateratu ta argitaratu.
7. – Bizkai'ko Euskal Astea gertatu ta zuzendu: Bost itzaldi, Bilbao'n.

**Olazar'tar Martin'ek**

Atutxa ta Agirre'tar Paul'en lanak (2004)

Bizkai'ko Mungia'n, 2004n. urteko epaillaren 11n. egunean, agiri au izenpetzen dodan Olazar eta Uribe'tar Martin'ek, Euskerazaintza Euskerearen Erri-Akademia'ren eta Bilbao'ko Euskerazaleak Alkartearen Zuzendari lez auxe ziurtatzen dot: Atutxa eta Agirre'tar Paul Euskerazaintzaren eta Euskerazaleak Alkartearen Idazkari dala eta 2004n. urte onetan erakunde bietan urrango lan oneik egiteko ardurea daukala:

### **EUSKERAZAINTZA'n:**

1. – Illeroko Batzarrean, Deba'n edo Bilbao'n, idazkari lana eta batzar-agiria egin.
2. – EUSKERAZAINTZA aldizkaria urtean birritan arpededunai bialdu.
3. – Bear diran fotokopiak egin.
4. – urrango batzarrerako batzar-agiria ta deia bialdu.
5. – aldizkari onetarako idaz-lan bat egin, gitxienez.

Euskerazaleak alkartean:

1. – Illeroko batzarrera joan eta idazkari-lana ta batzar-agiria egin.
2. – Eguneroko orria izango dauan egutegirako 60 orrialde gertatu.
3. – Bilbao'ko Euskal-Asterako itzaldia gertatu.
4. – Ipuin-Sariketa'n Maikoaren lena egin

**Olazar'tar Martin'ek**

EUSKERAZAINTZA EUSKEREAREN ERRI-AKADEMIA'ren zuzendari lez, urrengo aipatzen diran Akademiariai eskatutako lanak agertzen dodaz:

### **Jose Maria San Sebastian (LATXAGA)**

- Euskerearen manifestoa edo Agiri Nagusia zabaldu dau gure aldizkarian eta euskalkiak aztertzen dauz. Euskalkiak ala izkuntzak diran azaltzeko.
- ZER aldizkarirako idaz-lanak bialtzen dauz.
- Illean bein Deba'ra edo Bilbao'ra etorten da batzarrera.

### **Arrinda ta Albisu'tar Anes (+)**

- Akademia'k Deba'n egiten dauan batzarrera etorten da, ille birik baten.
- Euskerazaintza aldizkarirako idaz-lan bi egingo dauz. Gaia: Antxiñako Euskalerrria.

### **Artzeluz'tar Amale**

- Deba'n edo Bilbao'n illero egiten dan batzarrera etorten, osasuna lagun.
- Aldizkari bat argitaratzen dau iru illebeterik bein: GURE ARBASOEN IZKUNTZA: Lanak eskatu eta batu, Irarkola, zabaldu. . .

### **Latiegi'tar Bixente**

- Illeroko batzarretara etorten da.
  - Eleizearen edestia euskeraz idazten diardu eta orain diardu amargarren liburua osotzen.
  - Eusko Ikaskuntza Alkarteak eskatuta bost liburutxu egiten diardu, alkarte onek egin eban lan aundiaren barria emoten. Ale bi argitaratu dauz.
  - Donemiliane'ko idazki zarrak aztertu dauz eta orain Piña'ko Donibane'ko idazki zarrak aztertzen diardu, batez be or agertzen diran euskal izenak.
  - Euskerazaintza eta Zer aldizkarietarako idaz-lanak bialtzen dauz.
  - Euskalerrriari buruz agertzen diran agiriak eta itzaldiak aztertzen dauz eta bear ba'da erantzun zorrotza emon.
- Guzti ori orrelan dala ziurtatzeko, agiri au izenpetzen dot Mungia'n, 2004-03-12'an.

### **Solozabal'dar Paulin**

1. – Illeroko Batzarrera, Deba'ra edo Bilbao'ra joan.
2. – Amalagarren Olerki-Liburu argitaratzeko olerkiak idatzi.
3. – Zer aldizkarirako idaz-lanak idatzi, illero.
4. – Eguneroko orritxua izango dauan egutegirako 60 orrialde gertatu.
5. – Zer aldizkaria Mungia'ko erritarren artean banatu.
6. – Erritarren jaietan olerkiak abestu.

**Olazar'tar Martin'ek**

# EUSKERAZAINTZAKO GAUR EGUNGO IDAZLEAK

Bakoitzaren biografiak, liburu bat mereziko luke. Emen tokiari men egiñez aipamen labur bat besterik ezin dezakegu egin.

MARTIN OLAZAR: (1927)

Mungia'ko erretorea, urte askotan; eta inguruko beste erri txikitako parrokien arduradun. Orain dela gutxi jubilatu zen eginbear orretan, baiña Gotzai jaunak eskatuta lanean jarraitzekotan. Filosofia eta Letretan lizenziatua eta ildo orretatik irakaskintzan iarduna. Euskal abostegiari buruz arterketa sakonak egiñak ditu. Euskerazaintza'ko leendakari; eta "ZER" aldizkariaren zuzendari. Argitaratuak 20 liburu. Aldizkari eta egunkarietan 1.000' tik gora idazki. Bizkaieraz.

BIXENTE LATIEGI: (1920)

Euskerazaintza'ko sortzaille jakintsu eta langille porrokatu onek, bederatzizko liburu ditu argitaratuak. Gaia: Elizaren istoria. Orain artekoak auexek dira: "San Inazioaren denborako eliza/ Apostoluen eta martiriaren denborako eliza/ Gure denbora auetako eliza/ Demokrasiaren denborako eliza/ Elizak eta estadiak bat egin zuten denborako eliza/ Denbora berrietako eliza/ Euskal kristautasunaren sorkuntza, Euskal kristautasunaren zabalkuntza eta Euskal kristautasunaren sendokuntza. Lau mila orrialde gutzira, gutxi gora-beera. Bederatzigarrena idazten ari da, aurrean argitaratzeko asmotan: "Euskal kristautasunaren sendokuntza". Azterlan sakona eta zabala. Aldizkari eta egunkarietan, 4.000 idazki gutxi gora-beera. Gipuzkeraz. Apaiza. Eta Gasteiz'ko "Instituto Politécnico Diocesano" izeneko ikastetxearen kondairan: Eragille, zuzendari eta irakasle ainbat urtetan. Gipuzkera eta naparrera erabiltzen ditu.

IÑAKI ZUBIRI: (1913-2003)

Landu dituenak: Edesti laburrak; olerkia, ipuiña, eta eleberria. Izenburu batzuk: "Oroitzak/ Izadiko pitxiak/ Bidetik ametsetan/ Bideko ipuiñak/ Morroia/ Mendekua/ Basamortuko semea/ Txomin". Amaseigarren liburua idazten ari da. Aldizkari eta egunkarietan 800 idazki inguru. Benetan emankorra, eta goi maillako elertia berea. Bizkaieraz. Ogibidez, ingeniari. (Aurten zendua)

AUGUSTIN ZUBIKARAI: (1914)

Euskerazaintza'ko bazkide eta sortzaille den ondarrutar idazle ospetsu onek, "1998ko Andres de Mañarikua" sari garrantzitsua jaso du, Bizkaia'ko Foru Aldundiak eskaiñita. Argitaratuak 50 liburu: Antzerkia, elertia, saiakerak, istoria, olerkia, ipuingintza eta eleberria. Eta egunkari eta aldizkarietan 5.000 idazkitik gora. Bizkaieraz. Bere bizitza eta lanak luze, zabal eta sakon jakin nai dituenak, jo beza aldizkari onetara: "Revista de cultura e investigación vasca-Sancho el Sabio 1997. Un siglo de literatura vasca" atalera. Gorka Aulestia'k idatzia. Benetan arrigarria eta miresgarria gure Augustin'en jarduna. Ogibidez kontularitzan jarduna. Bizkaieraz.

PAULIN SOLOZABAL (1912)

Itz gozoen sorburu. Amabi olerki liburu argitaratu ondoren, itz lauzkoa ari da idazten, au bigarrena du. Izenburu batzuk, olerkiak: "Uskeriak/ Urre bitsa/ Gizonetan/ Gizadian/

Deika/ Erri arnasa/ Eder miñetan/ Aldatz gora/ Malkarretan/ Urrats. Itz lauz: "Itza". Egunkari eta aldizkarietan, 900 idazki inguru. Bizkaieraz. Apaiz edo abade Mungian. Bizkaieraz.

ANES ARRINDA: (1912-2004)

Gure idazle emankor eta oparo onek, ainbat liburu argitaratuak ditu. Batzuk aipatzeko: "Euskal aztarnak, Cromagnon'etik Erromara". Ori, beste bi liburu auen laburpen gisa: "Los Vascos de la magia al animismo"; eta "Los vascos del animismo a la romanización". 1000 orrialdeetik gora. "Euskalerría eta arrantza" "Euskalerría eta eriotza" "Euskal Erri zaarreko Jainko txikiak" "Euskalerría Zaarra "Anaien arteko gorroto". 13 liburu guztira. Aldizkari eta egunkarietan 1.000 idazki inguru. Gipuzkeraz eta bizkaieraz. Deba'n 1950 gn. urteaz gero apaiz, erretore izana, zaarsaritu zen arte. Etnologoa, eta Teologian dokorea. Bizkaiera eta gipuzkera. Oraintsu il zaigu.

JOXEMARI SAN SEBASTIAN "LATXAGA ": (1932)

Atsedenaldea zer den ez dakien gizona. Bere amets ona: Naparroa gero eta euskaldunagoa izatea; eta eginkizun orretan diardu buru-belarri lanean. Bere liburuaren artean, argitaratutako batzuk: "Naparroa euskal arrobía-/ Jaka'ra oñez Naparroa'n zear/ "Aralar'ko San Migel/ Errioxa'ko San Millan euskal iturri". Eta gaztelaniaz: La "Representación del tiempo en el verbo vasco", Euskal Sena. Guztira, 17 liburu. Eta egunkari eta aldizkarietan 1.000' tik gora idazki. El Diario de Navarra'ko- "Nafar-Izkuntza" orriaren ardura-dun eta idazle. Napar-gipuzkeraz. Amazazpi urte New York'en eman zituen, apaiz lanean eta irakaskuntzan. Teologian, Antropologian eta Izkuntzalaritzan, Doktoregoa dauka. Gipuzkera eta naparrera.

PAUL ATUTXA. (1940).

Santi Onaindia aundiaren ikasle eta laguntzaile. Egin berri du lan eder aundi bat. "Euskalerríaren kondaira: Askatasuna. Estutasunak. Irtenbideak". Soziologia ere lantzen du. Itzaldiak ematen ditu gai auri buruz. Gai sakonak eta sarkorrak bereak. Barne-barne muiñetik bere aberriaganako maitetasuna dario. Euskerazaintzako eta Bizkaiko "Euskerazaleak" elkarteko idazkari nagusia. Zornotzakoa izanik bizkaiera erabiltzen du

AMALE ARZELUS.

Ander Arzelus "Luzear", euskaltzale ospetsuaren alaba. Eta beraz zuretik ezpala.

Euskera etxeen epel goxoko babesean irakasten zen garaiko andereñoa. Orain sari-tu berria du beste batzuren artean Eusko Jaurlaritzak. Euskaltzaletasunean oiñarrituriko abertzalea. Aipatu dugun garai zaar aietatik eten gabe iardun du euskeraren alde lanean. Aldizkari bat ere argitaratzen du " Arbasoen Izkuntza Zaleak"

Berrogei urte luze aien gau illunean, argi. Bere oizko eginkizunaren atsedenaldiei kenduz, eten gabe lan eta lan euskeraren alde iardunak dira orrelaxe, Euskerazaintza'ko idazle jator auek. Etekiñik ez dute jaso. Patrika ustu bai, liburuak argitaratzeko; eta doiñik banatu.

Eta LIZARDI aundiarena, ikur gisa, beti gogoan:

Baiñan nik, izkuntza larrekoa,  
nai aunat ere noranaikoa:  
yakite-egoek igoa;  
soña zar, berri gogoa;  
azal orizta, muin betirakoa.

**Joxemari Murua'k**

2004ko Martxoak 15

Euskal Telebistan entzundakoetatik

# OKERRAK ZUZENTZEN

Dagoenenko .....	Ez da “ya”. Dagoeneko uste baiño leen gertatua da
Kasu onetan (erderakada utsa da) .....	Oraingoan. Onelakoetan
Oraingo onetan.....	Oraingoan (Naikoa da)
Arrixkutik irteteko modua . .....	Egokiera. Aalegiña
Gaur pronto esnatu gera .....	Gaur goiz/goiztar esnatu gera
Etsaia .....	(Ez da batena izaten: Inpernuko etsaia/Euskal Erriaren etsaia) (Futbola dela eta ere entzuten bait dugu)
20 minutuko aldea besterik ez da egon .....	Ez da izan
Itsasoa lasai .....	Itsasoa bare
Laguntza bear duen kasuetarako.....	Laguntza bear duenerako
Gaurkoa modukoa.....	Gaurkoaren antzekoa/Gaur aiñe-koa/Gaur bezalakoa
Positiboa dela .....	Onuragarria
Akordioriz ez da egon .....	Itzarmenik ez da izan
Ez dago jokatzeko moduan.....	Ez dago jokatzeko
25 graduren bueltan .....	25 gradu inguru
Illunabarrenaren bueltan .....	Illunabarrean (naikoa da)
Azken finean.....	Azken batean
2gn. postuan.....	2gn. lekuan. Edo bigarren iritxi da (eta kito). Baiña “ erderaz “ segundo lugar, segundo puesto” esaten dutelarik, guk orren kalko utsa egin bear
Bezain pronto .....	Bezain azkar/Bezain laister
Ez da espero .....	Ez da usterik
Bero pasa dugu.....	Beroaldi galanta artu dugu
Itsasoa bare ibiliko da .....	Itsasoa bare izango da/ Itsasoa bare dago/Itsasoa laiño dago
Erreparatu (Leen partizipioa da gaiñera) .....	Begira/Entzun
Posible da.....	Litekeena da/
(Posible es da euskal aditza, eta batzuk itz orrekin aalkera guztia jan dute)	
Kriston .....	Kristorenak eman zizkioten. Artu zituen (Esan oi izan da)
(Azken aldian, ordea, “ Kriston “esaldi pilletan sartzen dabilta batzuk. Eta orrela: Kriston lana/kriston pelikula/kriston partidua. Badugu euskera jatorrean aukera ederririk, esan naiaren arabera: Izugarria, lan betea, lan ugaria, goimaillakoa, gendetza, eta ez “ kriston gende pilla”)	
Naiko/ Naikoa .....	Batzuk diotenez beti “ naikoa” bear omen du. Nik zalantzak jartzen dizkiot, uste orri. Nik berezi egingo nuke: Naiko lan izango dute / Naikoa dute. (Eta beraz: izenondo eta adi-tzondo)

Osasun arazoak dituela medio.....	Osasun arazoak dituela eta
Datozen egunetarako .....	Urrango egunean. Datorren astean.
	Urrango egunetarako (Datozenak denak bait dira)
Estreinaldia .....	Asiera/Leenengoz/Leenengo aldiz
Emozioz betea .....	Unkiturik
Urte on BAT izanda.....	Urte ona izan da (Bestea erderakada utsa da “ UN buen año”)
Apenas euria botako duen .....	Ez dut askoriz botako
Larrialdi kasuan.....	Larrialdietan (Betikoa, gaztelaniatik abiatu “ En caso de emergencias” . Eta guk txakurrarena, erbiaren atzetik. Guk ere “ kaso” esan bear.
	Estefaniaren antzespenean (Erderakada utsa. “ En el papel”. Ildo orretatik, norbaitek auxe ere esan lezake :“ Estefaniaren ingian” Beste ark bezala. “Combinación de trenes: Trenen azpiko gona”)
Estefaniaren paperan.....	Zertaz ari zera/ Zeri buruz ari zera?
Zer kontutaz ari zera ? .....	Kolpe galanta. (Kolpeak min ematen bait du eta ezin ederra izan)
Kolpe ederra.....	Bere legea
Lege propioa .....	2 urte direla (Nik orrela esango nuke) Beste esaldi bat ere sartu zen orain badirudi baztertua dagoela. “ 12 liburu ekarri dut” Euskerak, ordea IT, askorena edo pluralgillea orretarako bait du, ain zuzen. 1 ekarri dut. 12 ekarri ditut.
Duela 2 urte .....	Begira (Latiñetik: vigilatum(vigilare) Beste baiño, zaarragoa ez ote ?)
	Zergatik ez beti esan dugun bezala “ Partidua”
Miatu (miratu) .....	(Au ez dut esango ETBn entzuna dudanik. Oso zabaldua dago. Ez da bereizten “jolasa” eta “ joko”. Partiduak jokatu egiten dira. Erderaz ordea, jugar el partido esaten da, eta berriz ere txakurra eta erbiarena, gaztelaren atzetik alegia)
Pilota partida .....	(Kurrikulum delakotan “ Experiencia” esan naiean jartzen dute. Eta “Eskarmentua” experiientzi txarra da. Nik Jarduera, ipintzea naiago dut)
Partidua edo norgeiagoka jolasten.....	
Eskarmentua.....	
Ez dago jokatzeko moduan.....	Ez dago jokatzeko (eta kito)
Moduan .....	Eran. Beste batzuetan “ bezala”
Partean (Arratsalde partean, lpar partean.....	Arratsaldean/ Iparraldean (eta kito)
(“Albarda sobre albarda” Aldeak eta parteak, bai	al dute bereizketarik ?? Eta ortik ere

entzuten ditugu "Zonalde". Eta "Industrialdea" ere bai. Eta itz ederra badaukagu ori adierazteko "Olaeta". Otxandio inguruan dagoen errixka baten izena ere bada)	
Propioa .....	Berea/Berezkoa
Ze polita !!! (erdal senaren kalko utsa) .....	Bai polita !! (¡Qué bonito! Berriz ere erbiarena)
Modu onetan .....	Onela
Titular moduan aritu zen .....	Titular jokatu zuen
Atentzio deitu dit (Me ha llamado la atención ?) dut. (Beste esanaia ere izan dezake. "Amonestar" Euskaldun peto-petoak esaten dute: Kargua artu dit)	Bitxia edo berezia irudi zait/ Begiz jo
Erritmo aundiko partidua .....	Joko bizikoa
Prezioak txikitu .....	Gutxitu/ Merketu
Konsulta modukoa.....	Galdera (eta kito). (Eta " modukoa" baldin bada ez da galdera, baizik eta antzekoa. Batzuetan ere entzuten da" Irakasle bezala egon zen" Beraz, ez zen irakasle. Bestela "Irakasle egon zen" naikoa luke)
Estreineko (Estreno).....	Leenengoz/ Asierako
Momentuz (De momento ?) .....	Oraingoz/Orain artekoa. (Gaiñera nire uste apalez, gaztelaniaz ere " de momento" ori alperrikakoa da (La Real gana 2-1. Y si no sería: La Real ha ganado 2-1)
Jarrera propia izan nai dute .....	Beren jarrerari eutsi nai diote
Gustura .....	Nik " gustora" entzun izan dut beti, gure zaarregandik. (Astua esaten da, baiña ez" astu" beltza. Aozkoan " etxia" esaten dugun bezala, baiña ez "Etxi polita")
Aste onetan bertan.....	Aste onetan (Naikoa da, ez du zeas-tasun geiagoren bearrik). Ez dut esango gaizki dagoenik, azken boladan ordea, "bertan" erabilleraren maiztasuna izugarri ugaritu da. Geiegizkoa ez ote da ?
(Lapurtera zaararren bidea utzi, or porrot egin da, eta laisterrean, ito larrian, gipuzkeraren bidera jo den ortan, jatortasunaren billa, asko dabil itzak sartzen zer esaten duen ere ez dakiela. " Bertan" asko ugaritu da. Eta " Izan ere" berdin. Luze joko luke lantxo onetan arazo ori zeaztea. Gramatikak ere ortxe dagoz)	
Tolosan bertan jokatu dute .....	(Bai al dago, bertan ez den beste Tolosarik??) Tolosan jokatu dute (eta kito). (Besterik da: Tolosan jokatu eta bertan bazkalduko dute)
Pirineo kontran .....	Pirineoaren malkarretan
Ez da bildurtzeko modukoa izango .....	Ez da bildurtzekoa izango
Prezio baxua .....	Merkea/ Merke-merkea
Tajonar.....	(Gaztelaniaz) (Eta "Taxoare" euskeraz al da?, fonetika aldatuta. Itzulpenik bear ote dute izen oriek. Berezko

euskal izena dutenetan: Pamplona/  
Iruñe, Agurain/Salvatierra, ea. ,  
esate baterako, azaldu egin bear,  
noski. )

(Bada Aralarreko basoan, toki zoragarria” Pago-Mari” izenekoa. Ustez asko zekiten batzuren batzuk, erderazko itzulpena jarri zioten, onela: “El Haya de la Señora María”. Barka ezaidazue, aritik irten banaiz; ETBn entzundakoekin ari bait naiz. Adierazkorak diranez, ordea, adibide oriek, eta zenbateraiño sartuta dagoen nagikeria eta lañeza gure izkuntzaren inguruan ikusteko, zillegi bekit, bide alboratze au).

Euria beste modukoa egin dezala.....	Euria bestelakoa egin dezala
Martxan jarri .....	Asi/ Ekin
Plana .....	Egitasmoa/Egitamua
Egin kasu .....	Erne/ Entzun/Gogoan Bestea: Ori duk ostikoa !! “Hagan caso”. Itzez-itz itzulpena. Euskal senaren jabe dena, euskeratik abiazten da)
Larrialdi kasuan.....	Larrialdian/ Larrialdietan
Gogoratu (Leen partizipioa da) .....	Gogoan izan
Galdetu (Leen partizipioa da) .....	Galde egin
Esforzua .....	Egiñalean/ Leer bizian
Aproposa .....	Egokia/Aukerakoa
Zailtasunak erasoan aritzeko .....	Zailtasunak erasorako
Konforme .....	Ondo da/Batera/Ados
Ikastaldia martxan jarri.....	Ikastaldiari asiera eman
Eguraldi txarra Bilbo parte onetan .....	Eguraldi txarra, emen, Bilbaon
Arratxa txarra.....	Aldi txarra/ Bolada txarra

Z/S/X eta TZ/TS/TX..... Batzuk ez dituzte bereizten. S-ren ordez Z . Eta Z bear duenean S, oguzkatzen bait dute. Eta

## Ondorio gisa

Gaur egungo joeran, badirudi lizentzia osoa artzen dela, bakoitzak nai duen erara itzak artzeko eta sartzeko. Azkue aundia sarritan entzuten dugu, zero goienetako euskal izarra, esaten dugu mireспен aundiz. Eta zenbatek erabiltzen ote dugu bere iztegia ? Edo berdin esan Plazido Mujika, Kerejeta, Sarasola, Kintana e. a.

Badakigu erriarengan or agertutako itz asko oso sarturik dauzkagula. Komunika-bideetan ordea, ez ote luke jasoagoa bear izkera? Emen aozkoa eta idatzizkoa kon-tuan izan bear.

Orain ogeitamar urte, 1973 urteko zenbakien arabera, euskaldunak % 66 alfabetatu gabeak ziren. Eta orien artean ez da arritzekoa, naiz euskaldun peto-petoak izan, itzak erderatik nolanai artzea. Gaur ordea, zorionez ez da orrelakorik gertatzen; ikas-tetxeak eta gau eskolak lan mardula egin dute azken urteetan. Eta orregatik, iztegi eta gramatikarako zaletasuna aundiagoa bearko litzateke, bakoitzak aal duen neurrian, geroz eta euskera ohea erabiltzeko. Zer esanik ez, euskera erabiltzetik bizi direnak.

Eta ezin aipatu gabe utzi bizkaieraren arazoa. ETBn, Bizkaian kokatutako telebis-tan, bizkaiera zearo bartertuta dago. 1970an, Luis C-Nuñez jaunaren “Opresión y Defensa del Euskera” liburutik onako zenbaki auek artu ditut: 532. 011 euskaldun omen giñan. Orietatik 200. 040 euskaldunek gipuzkera erabiltzen genuen, %37, 7k. Eta 200. 494k bizkaiera, % 37. 6k. Lapurtera 22. 970, %4, 3k. Eta azken onen antze-ra gaiñontzekoak.



Arantzazun 1968an, Kardaberaz'koek eman zituen iritziak, gero Euskerazaintzak jasoak, indarrean jartzen ari dira. Haritschelhar, Euskaltzaindiako presidente jaunari, orain gutxi entzuna diogu: "Bakoitzak bere euskalkia erabili bear du, guk orrela erabiltzen dugu. Gero batua . . . . . " Eta zer da euskera batua?. Gramatika bateratze lan batzuk egin dira. Funtsean ordea, ezin ukatu, batua izenarekin, azken batean, gipuzkera erabiltzen dela. Eta 1968gn. urteko batzarrean, gipuzkera osotua aukeratzea aurkeztu zutenak, baztertuak izan ziren.

Eta beraz, lapurtera zaarraren teoriak porrot egin du. Entzun berri ere badugu, irakasleek beintzat bi euskalki jakin bear ko lituzketeela

Analfabetoak aipatu ditugu. Alarik ere, euskal sena eta itz joskera oso-osorik iritxi dira guregana, ainbeste urteren buruan, eskerrak gure aurrekoei. Aipamen berezia ere egin nai nieke gure apaiz eta fraile baserrikumeei. Etxean ikasitakotik abiatu, eta goi maillako ikasketen eragiñez landu egin dutelako, ama izkuntza. Euskerarik onena eleiz gizonengandik entzuna dugu. Baita ere 40 urte luze beltz-beltz aietan; ez bait zuten alboratu beren zeregiñetan.

Ikus onen ondoren dijoakizuen eraskiña. "Akatsak eta Erderakadak" izenburua du, 1990/91koa. Euskerazaintza'ko gure Jesús Gaztañaga zenak jasotakoetatik. Gure "Liburu Gorrian "ere azaldu genuen.

Orregatik esan dugu asieran, txarkeririk gabe, eta soil-soilik euskera barne muiñetatik maite dugulako, ETBn euskera asko txukundu dutela; ala ere, oraindik ortik gora egin bear ko luke, eragiñik aundiena berak bait dauka erriarengan, batez ere euskera ikasten ari diranengan. Nolanai ere, barka ezaidazue. Bestalde ezin esan gabe utzi, nire iritzi apaetik, Euskal Telebistan, ondo-ondo egiten direnak ere ikus eta entzuteko aukera izaten dugula, eta bene-benetan maite dugula gure telebista. .

Ez gera ari garbizalekeriaren inguruan. Euskerak latiniñaren eragin aundiak ditu. Bearrezkoak izan zirelako, bestela izkuntza batek ezingo luke irauñ bere esipean. Euskal Errira ere, kanpotik lanbide berriak sartu ziren, oriekin zegozkien iztegiak. Eta gure aurrekoek, itz berriak ederki asko beregatu zituzten euskal sena eta fonetikara egokituz. Eta zibilizazio aurreratuagoen kultura kontuan izan bear aurrera egingo bada. Zientzi eta teknika iztegian, ezin bestekoa izan dugu latiniña. Eta zergatik ez ingelesa, informatikak duen eragiñarekin? Garbizalekeriatik zabarkeriara ordea, tarte aundia dago, jakin egin bear tarte egokiak aukeratzen. Bidezkoa ez dena, jatorriz artu ditugun itz eta esaldi motak, nagikeriaz bartertu, eta asma aala, bakoitzari bururutzen zaiona esan edo idatzi.

**Joxemari Murua Goñi**

Euskerazaintza'ko

Bazkide-kontularia

# AKATSAK ETA ERDERAKADAK

1. – “Ni naiz INFRAKTOREA. . .” (EITB, 1989-XI-26’an). Zer ote da ori?
2. – “Sufragio unibertsala. . . Autaketa egin daiteke sufrajio unibersalez”. (EITB, 1989-XI-27’an).
3. – “Ezkerreko fronte anplioari eman diote baiezkoa”. (EITB, 1989-XI-27’an).
4. – “Promozio publiko ta sustatze ofizialeko gauza” (EITB, 1989-XI-27’an). “Sustatze” orrekin, sustotarako aña ere ez dugu izango.
5. – “Egongo zara geldi?” (EITB, 1989-XII-1’ean). Euskeraz pentsatzen dakianak, onelako esango luke: “Geldi egongo al zera?”
6. – “Telebista jarriko dut?” (EITB, 1989-XII-1’ean). Non jarri bear ote zuten, bada? Obeki zegokean onela: “Ikustirratia piztuko al dut?”
7. – “Metro bat eta 65 zentimetro neurtzen du”. (EITB, 1989-XII-1’ean). Nork neurtzen du, eta zer neurtzen du? Obeki zitekean onela: “Metro bat eta 65 zentimetro ditu luzeran”.
8. – “Sentitzen dut gertatu zaizunagatik”. (EITB, 1989-XII-10’ean).
9. – “Bederatzi komisio lanean daude”. (EITB, 1990-V-17’an). Aspertuko dira, orratik!, lanean “dauden” oiek lana egingo duten zai daudenak.
10. – “Txirindulariak indarrean dagoela PROBATU zuen”. (EITB, 1990-VI-13’an). “PROBATU” ondoren, zer? Goxoa ote zegoan?
11. – “Lanean egon zen bitartean, Loiola’n zen kongresoa”. (EITB, 1990-VI-13’an).
12. – “Enfrentamentuak egon dira ikasle ta polizien artean”. (EITB, 1990-VI-13’an).
13. – “Euri apurren bat egingo du”. (EITB, 1990-IX-4’an). Ogiak eta antzekoek izaten dituzte APURRAK, baiña. . . euriak APURRIK izaten zuanik, sekulan ez dugu entzun.
14. – “Biar odei gutxi EGONGO da”. (EITB, 1990-IX-5’ean).
15. – “Zortzi milla errekorritu dite belauntziak”. (EITB, 1990-IX-6’an).
16. – “Egokitze ekonomikoa egongo dela”. (EITB, 1990-IX-12’an).
17. – “Giro tensoa Unibersitatean”. (EITB, 1990-IX-12’an). Ori bai dala, “euskerablatzeko maneria!”
18. – “Pensoa ekartzea. . . Penso bezala ekartzea. (EITB, 1990-IX-12’an).
19. – “Eskola Bertsogintzarako ere laguntza eskatzen du. . . ” (Eusko Jaurlaritza, HEZKUNTZA SAILA dalakoaren orrietatik artuak, oraintsu). Alderantziz bear lukete, noski: Kantagintza Eskolarako, Bertsogintza eskolarako. . . Eta orri beroietan onako beste arribixi au:
20. – “Beraietako zuzendarien baimen ESPRESUA lortu behar da”.
21. – “Gizona etorri BEAR DA. . . Emaztea joan BEAR da. . . ” Aditza “intransitiboa” danean, joan, etorri, erori, ibilli. . . BEAR DA, erabilli bear omen. Eta au Irakas-kintzako liburu batetik artua da.

## Akats geiago

Eskerrikasko zure ikustia. (Gracias por su visita).  
(Gasteiz'en Postas kaleko Berebiltokiaren sarreran).  
Edesti Erdirako Udal Sailla. (Departamento del Centro Histórico).  
(Gasteiz'en, Postas kalean. Plaza-Berriruntzko sarreran).  
Unibertsitate Kanpusa. (Campus Universitario).  
(Filosofi eta Elerti Ikastetxearen alboan).  
Laudioko Abertzaleen Egundialdiak lenengo. (1.ª Jornadas nacionalistas de Llodio).  
Santa Maria benetako eliza. (Iglesia de Santa María la Real. Zarautz).  
Eguraldiak arrazoia ematen digu. (El tiempo nos da la razón).  
(Ikusirratian, Zanussi'ren iragarkia).

\*\*\*

1. – “Miterrand’ek arrera EMAN DIE” (ETB, XI-19) = ARRERA EGIN, esaten du Euskalerrri euskaldunak.
2. – “ARAZO FAMILIARRAK dituztenak. . . GIRO FAMILIARREAN biltzea du elburu. . .” (ETB, XI-19). Oraindik ere FAMILI-GIROAN esatea, or nonbait!
3. – “PRÉBISIOAK auxe erakusten digu. . .” (ETB, XI-19).
4. – “Argi GERATU BEAR DA”. . . (ETB, XII-27). Gutxienez ere. . . BEAR DU.
5. – “Ori SUERTATZEN DENEAN, egingo dute billera”. (ETB, XII-27).
6. – “INKONPATIBILITATEAREN KOMISIOA. . . INKONPATIBILITATEAREN LEGEA”. (ETB, XII-27). Orrelakoak esateko, ez dago euskaldun izan bearrik.
7. – “APENDIZITIS gaixotasuna sendaturik, IRU EGUNETAN ETXEAN DA”. Eta. . . beste egunetan zer egin bear du, edo non egon bear du? “Iru EGUN BARRU. . . IRU EGUN BAIÑO GEIAGORIK GABE. . .
8. – “JUANARI GURE ANAI. . .” Gaztelerazko esaldi onen itzulpena da: “a Juan nuestro hermano. . .” “Juan gure anaiari” izan bear luke. (Naparroa’ko AÑORBE errian orma-arri batean idatzirik dago).
9. – “ESANGO ZAIT, ez arrazoirik gabe, gerrak sartu duela ezinegona”. (Andu Lertxundi, D. V. ). Onela bear: esango DIDATE. . . zerbait.
10. – “Diruak herri-ekintzetarako DESTINATZEA PROPOSATU zien herritarrei. . . (Rufino Iraola). D. V. Euskeraz obeto badaki, baiña. . .
11. – . . . “eta bestetik, euskalkiren baten ezagupenak sakondu nahi izan DUENARI aukerak eskaintzea”. (Eusko Jaurlaritza, Euskararen “SUSTAPENERAKO Zuzendaritza. Zabalkunderako eskutitza, 91-I-14). Ezagupenak baldin ba’dira, DITUENARI izan bear du.
12. – Bestetik, SUSTATU ta SUSTAPENA baiño itz egokiagorik erabiltzen ez ba’dute, “sustoz” izutuko ta “sustatuko” dituzte euskaldunak. Eusko Jaurlaritza’ko euskera-arduradunek euskera ohea ez ba’darabilkite. . .
13. – “Aren egiaGANAKO maitasunez zabaldu egin duzu zure Eliza”. (Orduen “Liturgia” liburuan, Epailaren 23’ko otoitza). Nik dakidanez, egia ez da burua ta anakak dituan norbait, beraz. . . egiaREKIKO bear du.
14. – “Zuzen itzazu gaur gure urratsak zure gogoaren bideTIK”. (Ordueñ “Liturgia” liburuan, 1’go Larunbateko eskariak). Euskalerrri osorako ta bereziki Bizkai-Gipuzkoa aldeetarako, ulergarriago litzake or aditza bere osoan jarrita: zuzendu itzazu, gramatikakeriak alde batera utzirik.  
Askoz okerrago dago oraindik, “bideTIK zuzentzea”. Zer esan nai du? Izan ere; NONDIK zaindu? BideTIK zuzendu ditzala. Beraz, auxe esan nai du orrela ida-

- tzita: “Zure gogoaren bideTIK (begira zaudelarik?), (eta bestela, zure bideTIK kanpora?) zuzendu itzazu gure urratsak”. Eta ori esan nai ez dutenez, onela bear zukean: “Zuzendu itzazu zure gogoaren bideAN”.
15. – “Akuilu lanari esker lortu du beka, nahiz Crouch-ek ez duen gehiegi sinesten Kemp-en dohain intelektualetan” euskeraz ere esan dezakegu, eta bestetik, nere ustez, “zerbait sinisten dugu, zerbait sinisten diogu norbaiti”. Geienera, ere, “norbaitengan sinistu” esango genuke.
  16. – “Bera baino aurrekoek sortutakoa jasotzen dakiena, baina sormenik erakutsiko ez duen adoleszentea”. (Anjel Lertxundi, ZABALIK orrietan, 1991'ko 04-3'koa). “Bera baino aurrekoek” ez da euskera. Izatekotan ere “BERE AURREKOEK sortutakoa” eta bestela “BERA BAIÑOI leenagokoek sortutakoa” izango litzake egokien. Lertxundi'k badaki euskeraz obeki idazten, agerpen bi auek ez bai-dira zuzeneko euskera jatorraren eredu.
  17. – “Hainbat bertso diferente egin da, harrezkoreztik, antzerki-lan honena, eta pelikulak ere bat baino gehiago dira”. (Felix Ibargutxi, ZABALIK 1991'ko-04-3'an). Bi biurri dagoala esaldi ori, eta gazteleraz pentsatuta idatzia, nere ustez.
  18. – “Existitu zuen, bai. 1619'n jaiotzen zen Bergerac-eko Cyrano, Parisen, eta bertan hil 1655an”. (Felix Ibargutxi, ZABALIK 1991'ko-04-3'koa). Ibargutxi'k ere badaki obeki. Euskeraz ari galararik, ain bearrezkoa ote da EXISTITU ZUEN ori erabiltzea?
  19. – “Aurtengo neguarenak egin ditu”. (Andoni Aizpuru, ZABALIK orrietan, 1991'ko-04-3'koa). “Neguarenak egin DU” entzun izan dut beti. Arritu egin nau, eta ez gutxi, “egin DITU” idatzirik ikusteak.
  20. – “Fondoko eskitik alpinora dagoen aldea. . . Trabesiako eskia beste bien konbinaketa besterik ez denez, alpinoaren eta fondokoaren arteko desberdintasunak aztertuko ditugu lehenik”. (Andoni Aizpuru, ZABALIK 1991'ko-04-3'koa). Ez al legoke euskal-kutsu geiago ematerik? Bai noski.
  21. – “Datorren igandean, 12, 30etan, Azpeitiko zezen-plazan egingo den korrika-saioan omenaldi egingo zaie aspaldiko bi korrikalariri”. (Felix Ibargutxi, ZABALIK 1991'ko-04-3'koa). “EGINGO DEN eta EGINGO ZAIE” bata bestearen ondoren ain egoki ez gertatzeaz gaiñera, egin, ZERBAIT EGITEN DUGU. Orregatik, egokiago leudeke esaldi oiek beste era ontara: IZANGO DEN korrika-saioan” edo “EGINGO DUTEN” eta “omenaldiA EGINGO DIETE”.
  22. – “Gure bezeroei jakin erazten diegu EZEN gure SISTEMA INFORMATIKOEN behin-behineko bateratzea ta kutxa sukursalen sare bakarraren eraketa direla eta (200 sukursal gera) moldatze eta egokitzapen-lan bereziak jartzen ari garela” (KUTXA, G. K. ). Gaztelerazko, “les advertimos QUE. . .” ori euskeraz esateko, EZEN erabiltzea, erderakada makurra da. Osorik artuta, zein euskaldunek ulertuko du, gazteleraz ongi ez ba'daki? Bestetik, “direla eta” ori orrela ez da ez ulergarri ta ez euskera. Onela askoz garbiagoa da: “direla-eta” gutxienez eta are ulergarriago “dirala-ta” idaztea. Azkenik, gutxienez ere “INFORMATIKA-SISTEMEN eraketa” idatzi ezkeru, baluke euskal-joskerarik edo kutsurik. Bestela ez.
  23. – . . . “gustatuko litzauguke baldintza berrietan zu harpidedun GISA berriz ere gure artean izatea”. (JAKIN aldizkarian arpidetzeko deia). Ez nuke “ARPIDEDUN GISA” sartu nai arpidedun artean: beste edonor, bezala baizik, bete-betean arpidedun izanez.
  24. – “Atzerriko AKTUALITATE KULTURAREN INPORTATZAILEA” izango omen da JAKIN aldizkari BERRIA. (JAKIN, arpidetza-orririk artua) JAKIN'ek dakarren euskera GISA ortako ba'da, geiegi zait INPORTA.

\*\*\*

1. – “BAJA MEDIKOA artu du kirolariak” (ETB, 91-II-21’ean).
2. – “TRATAMENDU MEDIKOA eman bear diete umeei” (ETB, 91-III-4’an).
3. – “DEABRUAREN POSESIOA. . . GAISOTASUN MEDIKOAK ZIRELA GERTAERAK”. (ETB, 91-IV-29’an) Sendagille esateko orde, “MEDIKU” erabiltzea, gaitz-erdi da, baiña sendagilleak burutzen duan ekintza adieraztekotan ere, gazterazko “medico” izenlaguna erabiltzea, erderakada makurra da. Eta garaia da, noski euskal-senaz landuriko zerbait erabiltzen asteko.
4. – “PARTE MEDIKOAREN ARAUERA, EZ DU ALDAKETARIK IZAN”. (ETB, 91-VI-1’ean).
5. – “BI LAGUNTZAILE SOZIAL joango dira. . . LAGUNTZAILE SOZIALAK sarritan etortzen dira” (ETB. 91-III-4’an).
6. – “Kirolariaren PALMARESA ez da ona. . . ” (ETB, 91-III-4’an).
7. – ERAKUNDEEN ARTEKO INFORMAZIOA EZ DA EXISTITU” (ETB, 91-III-26’an).
8. – “EGOERA METEOROLOJIKOAK BERDINTSU JARRAITUKO DU” (ETB, 91-III-26’an).
9. – “RATXA ONARI EUTSI DIO ERREALAK” (ETB, 91-IV-24’an).
10. – “AJURIA-ENEA-KO JAUREGIAN IZANGO DA BILKURA” (ETB, 91-IV-29’an). Jauregi ori nongoa dan adieraztekoan, Gazteiz’koa dala esan bear, baiña ez “Ajuria-Enea” koa. Izena bai-da ori, jauregiaren izena, eta ez nongoa danaren adierazpena. “Ajuria-Enea” jauregian izango da bilkura. . .
11. – “DEABRUA ERREALA ZELA ESAN ZUEN” (ETB, 91-III-26’an). Gazteleraz pentsatu ta bururik nekatu gabe, bere ortan esatea besterik ez da. Orixe bai dala erreala balio ez duan euskera.
12. – “ERANTZUNA BEAR DUT 48 ORDUTAN” (ETB, 91-V-1’ean). Ez du txantxetako lana eskatzen! Izan ere, 48 erantzun eskatzea da ori: ordu bakoitzean erantzuna ematen jardutea alegia. “Erantzuna, 48 ordu baiño leen bear dut. . . 48 ordu barru bear dut. . . ”.
13. – “OGEI TA ZAZPI ORDUTAKO EBAKUNTZAREN ONDOREN. . . ” (ETB, 91-V-20’an).
14. – “ONDAMENDI NATURALEKIN JARRAITUZ. . . KALTE MATERIAL TXIKI BATZUK EGIN DITU. . . KALTE MATERIAL UGARI SORTU DUTE. . . ” (ETB, 91-V-4’an).
15. – “PREMIA ZUELA OPERATZEA ESAN ZION DOTOREAK” (ETB, 91-V-20’an). Ez itsusiak; ba’da ez ba’da ere, “dotoreak”.
16. – “ISTRIPU BAT ZEGOELA TA JOATEKO” (ETB, 91-V-20’an). Nola EGOTEN ote dira istripuak eta ez-bearrak, zutik ala etzanda?
17. – “KONTZIENTZIA BERRESKURATZEN ASI ZEN” (ETB, 91-V-20’an). Eskuetan artzeko zerbait ote da “kontzientzia”? Ez al zan egokiago, “Kordea etortzen asi. . . Konortea etortzen asi zitzaion. . . Ezaguera bazetorkion. . . ” edo antzekoren bat?
18. – “ETIOPIA’KO ERREBELDEK UTIMATUMA EMAN DIOTE GOBERNUARI” (ETB, 91-V-27’an).
19. – “GIPUZKOAN OBRAK DAUDE AINBAT ERREPIDETAN” (ETB, 91-V-27’an). Nola EGOTEN ote dira obrak?
20. – “FUNTZIOTAN DAGOEN MINISTROAK ESAN DU” (ETB 91-VI-1’ean). Ez zigun esan, NON eta NOLAKO FUNTZIOTAN zegoan alako jaun ura. . .
21. – “BAT EGIN GAITZALA GEHIEN SUFRITZEN ETA GURE BEHAR HANDIAGOAN DAUDENEKIN” (KARITAS, Gotzain-idazkia 91-V-15). Gaztelerazko LA MAYOR necesidad”, ez da AUNDIAGO, “bearrik AUNDIENA”, da baizik.

22. – “aren EGIAGANAKO maitasunaz, zabaldu egin duzu zure Eliza” (Orduen Liturgia Eliz-liburuan, Epailaren 23'ko otoitzean). EgiAREKIKO maitasunaz, bear du ez bai- da NORBAIT, -GANA eramateko.
23. – “ZUZEN itzazu gaur gure urratsak zure gogoaren. BIDETIK” (Onduen Liturgia, eliz-liburua, 1'go asteko Larunbateko eskariak). Askoz garbiago ta ulergarriago legoke onela: “ZuzenDU itzazu. . . gogoaren BIDEAN”. Bestela, berriz, “-BIDETIK” izatekotan, onela bear du: “okerreko BIDETIK ZUZENDU zure gogoaren bidera”.
24. – “SUMENDIA 20 URTEZ LO IZAN ONDOREN”. . . (ETB, 91-VI-10'ean). Ainbeste aldiz oker erabili izan dute EGON aditza, eta juxtujuxtu EGON esan bear zutenean, orduantxe ez. Esaldi ortantxe bear zuan LO EGON.
25. – “Bada orduan zenbait hitzen EUSKAL NORTASUNA DEFENDATU zuen bezala (Euskaltzaindia'k). 91-IV-26'an artutako erabakian dago). Itzek ez dute NORTASUNIK, nere ustez. Ez al zan obe, JATORTASUNA, naiz EUSKALTASUNA idaztea? bestetik DEFENDATU baiño itz egokiagorik ez al lezake erabili Euskaltzaindia'k? “Defendatu” itzak ere EUSKAL-NORTASUNA ote du bere barnean?
26. – “Ez da beharrezko lehengo agiri hartan bezalla guk ere hemen zerrenda luzea ESKAIN DEZAGUN GURE USTEZ EUSKAL HITZAK EZ DIRENENA” (Euskaltzaindia'ren agiri bereko erderakada). Zer ez da bearrezkoa? Zerrenda luzea guk ESKEINTZEA, edo guk ESKEINI DEZAGULA. Zertarako aipatu dituzte erdal-aitak? Guk zerrenda luzea EGIN DEZAGUN. Gauza biak oso ez-berdiñak dira, gaur geiegi naasten dituzten arren: Euskaltzaindia'ren agiritan ere orrela dagoan arren, erderakada galanta besterik ez da ori: “No es necesario que OFREZCAMOS” eta ori bere ortan euskeratua: “QUE OFREZCAMOS” = EZKAIN DEZAGUN”. Noiz eta nola erabil dezakegun ikusi bear, ordea!
27. – “Badakigu batzuk ezinbestean ERABILTZEN DIRELA” (Euskaltzaindia'ren agiri berean). Gaztelerazko “QUE SE EMPLEAN = ERABILTZEN DIRELA” eta lasai geldituko zira, euskera eredugarria eskeintzen digutelakoan. Baiña ERABILLI. . . NORBAITEK ZERBAIT erabiltzen DU” eta or ez dago besterik euskeraz, erderakadak baizik.
28. – “Euskaltzaindiak bada hitz hauek eta hauek antzekoak diren beste asko ahalik gutxiena ERABIL DITZATEN ESKATZEN DIE. . . IDAZLEEI, eta horien ordez JO DEZATEN betiko hitz zaharretara”. (Euskaltzaindia'ren agiri berekoa). Zer eskatzen die? Aalik gutxien ERABIL DITZATELA, eta JO DEZATELA itz zaarretara”; edo gutxien ERABILTZEA, eta JOTZEA”, eskatzen dizkit oso besterik dira “ERABIL DITZATEN” ETA “JO DEZATEN” oiek, adibidez Zertarako adierazten die araua? Erdal-itzak aalik gutxien ERABIL DITZATEN, eta JO DEZATEN itz zaarretara”, asierazten die arau.

\*\*\*

1. – Izparringi edo egunkaerietako illeta-albiste edo eriotz-iragarkiak ez dira akats gutxiren arrobi izaten, tamalez. Esate baterako:  
 “Abuztuaren 19 egunean il zan. . . 21 egunean il zan. . . ”.  
 Zorioneko “abuztua” bere ortan utzita, “Abuztuaren 19 egunean il zan. . . 21 egunean il zan. . . ”  
 Zorioneko “abuztua” bere ortan utzita, “Abuztuaren 19'an. . . 21'ean. . . il zan” eta bestela “Abuztuaren 19'gn. . . egunean il zan”.

2. – “Zure lagunak ez zaitugu AHASTUKO” dago egun eta toki berean. Egokiago zitekean onela: “Zure lagunok ez zaitugu aaztuko”.
3. – Ildako baten illeta-albistea zabaltzekoan, bizibidez edo lanbidez zer zan adierazi nairik, egunkarian “ARAGIJALE” ikusi dutenak badira. Baiña zer adierazteko? Esan gabe, edo gaztelerazkoan zegoana ikusi gabe, nola asmatu, “Carniteko? Esan gabe, edo gaztelerazkoan zegoana ikusi gabe, nola asmatu, “Carnicero” adierazi nai zutela? Jakiña ez da berdin. ARAKIÑA da, noski, jarri bear zutena.
4. – “Aste-buruetan trafiko handia DAGO” (ETB, 1991-VII-13’an). Gutxienaz ere joan-etorri aundia DABIL esan ba’lute, gaitz-erdi zitekean.
5. – “Erritomo ona agertu du idi-pareak”. (ETB, 1991-VII-29’an).
6. – Asi dira PREMIAZKO billerak egiten. . . PREMIAZKOI Batzordea izendatu dute. . . PREMIAZKO billera asiko dute. . . Paris’en (ETB, 91-VIII-19’an eta 21’ean). Baiña. . . zer adierazteko darabilte “Premiazko” itz ori? Gaztelerazko “urgente” itza dute buruan, eta orren ordez, “premiatzko” itza darabilte euskeraz gauza guztietarako, oker eta zuzen.
7. – “Txosten konparatibo bat bidali die Lurraldeak”. (ETB, 91-VIII-21’ean).
8. – “Berriro martxan jartzea espero da”. (ETB, 91-VIII-21’ean).
9. – Trenak, lan-uzteaz gelditu zuedele-ta: “Serbitzua autobusez betetzen dute” (ETB, 91-VIII-21’ean).
10. – “Ez dut uste asko luzatuko naizenik” (ETB, 91-VIII-28’an). Garbi dago, noski, itzultzaileak buruan zeukan gaztelera: “No creo que me alargue mucho”.
11. – Gobernari bati alegia, “Konfidantza kentzea erabaki du Batzar gorenak” (ETB, 91-VIII-28’an).
12. – “Ez duela ultimatum bat bezala artzen esan du” (ETB, 91-VIII-28’an).
13. – “Millesker, gurekin izateagaitik”. (ETB, 91-VIII-28’an). Gurekin egon, izan. . . zeralakol. . . Etorri zeralako.
14. – “Gaur zerbait irakatsi diguzu: jende ona egon dagoela” (ETB, 91-VIII-29’an). Zer esan zuten? Jende ona, egonean egoten dala ezer egin gabe? Ori adierazten du, “egon dagoela” esateak. Beste era ontara esan bear zuan: “Jende ona egon Badagoala”.
15. – “Gaur ozam da Urumea’ren jatsiera” (ETB, 91-VI-23’an). Urumea ibaiak leengo tokian jarraitzen du, iñora jatsi gabe, nik dakidanez. Besterik da, urak jaistea, eta txalupak ere Urumea ibaian jaistea.
16. – Txirrindulariak jo ta ke laiterka doazela, baiña elmuga urrutitxo daukatela adierazteko, ona emen ateraldi bat: “Oraindik laixterketa asko falta da” (ETB, 91-VIII-11’an).
17. – “Pendiente gelditu ziren ainbat arazo martxa normalean jartzen ari dira” (ETB, 91-IX-10).
18. – “Irregularitasunak garrantzi txikikoak dira”. . . “Puntu komuna da”. . . (ETB, 91-IX-12).
19. – “Oizko bisitak jaso ditu”. . . “Iru sail-buruen zesea erabaki du”. (ETB, 91-IX-13’an). Nora JASO ote ditu? Bestetik, ZESEA oso polita da!?
20. – “Amedo’ren aurkako sententzia eman dute” (ETB, 91-IX-21’ean).
21. – “Ospe andiz egin dute akto akademikoa” (ETB, 1991-X-3’an).
22. – “Orio’ko kluba, kanterako kluba da” (ETB, 1991-X-6’an).
23. – “Arraza autoktonoko ganaduak saritzeko dirua da”. “Eun da amairu abere lapurtu dira” (ETB, 91-X-7’an). ERORI DIRA, bai, LAPURTU, norbaitek lapurtuko zituan.
24. – “DAGOENKOKOZ jakiñaren GAINEAN zaude agian, UZEIK egoitzaZ ALDATU

- EGIN DUELA". Okerrago idazterik, edo ERDERAZAGO idazterik beintzat, bai ote legoke?
- a) Aoz esaten dugun arren, "jakiñaren GAINAN" baiño egokiago legoke, "-JAKINEAN ZAUDE".
- b) "DAGOENEOZ" esaldi ortan zearo oker dago, ONEZKERO bear baidu.
- d) "EGOITZQAZ ALDATU EGIN DUELA", ez da euskera, onako gaztelera onetxen berriztatzea edo "kalkoa" baizik: "Que ha mudado de domicilio". Izan ere, zer aldatu du UZEI'k egoitzaz? Ezer ez, noski. Bera "aldatu da egoitzaz". Eta bestela, "UZEI'k bere lantokia aldu du egoitzaz".
25. – "Kopatxo BAT hartuko dugu elkarrekin". Nere iritziz, KOPATXO BAT oso gutxi da elkarrekin artu aal izateko. Ori ere erderakada osoa da, gaztelararen aldakia: "Tomaremos UNA copa". Nola bear zukean? "Kopatxo BANA artuko ditugu elkarrekin". Au da euskera.
26. – "ENFRENDAMENDU gogorretan murgildua dabil Yugoslavia". . . . Mai PARALELO bat eratzea. . . . Maia bil DADIN, eskatu dute. (ETB, 91-IX-4'an). Agian, MAAINA esango zuten. . . . "Bil DADIN, etorri gera. . . . Bil DADIN, bideak egin ditu, bai; baiña "BIL DADILLA eskatu dute", bear du.
27. – "Yugoslavia'n ENFRENTAMENTUAK ez dira amaitu. . . . AKORDIOA ez DA ERRESPECTATZEN". "Ez da" ren orde, EZ DUTE, bear zukean. "Ez da kalte PERSONALIK izan istripuaren ondorioz". (ETB, 91-XI-6'an).
28. – "Aurra ESISTITUKO ez ba'litz bezala jokatzea". . . . (ETB, 91-XI-16'an). "Gurasoak ez dira arazo au duten KONSZIENTEAK". (ETB, 91-XI-16'an).
29. – "Armada federalaren mende erori da". . . . Emakume ta aurren ebakuazioa asiko da. . . . Oraindik enfrendamentuak daude. . . . "Eskaera erretiratzea erabaki du". (ETB, 91-XI-18).
30. – "Egoera politikoaren diagnostiko zeatza egin nai du". "Gerraren krudeltasuna adierazten dute". (ETB, 91-XI-21'ean).
31. – "Biztimak sortzen jarraitzen du ETA'k eta mutilatuak egiten". "Negoziaketa zuzenak asiko dira". "Iturri diplomatikoek adierazi dute". (ETB, 91-XI-23'an).
32. – "Iñolako iskanbillarik gabe disolbatu egin dira manifestariak". "Droga izan daiteke ilketa orren mobilla". (ETB, 91-XI-28'an).
33. – "Au izango da billeraren oinarri filosofikoa". "Errusia errekurso ekonomikorik gabe gera daiteke". (ETB, 91-XI-29'an).

**Gaztañaga'tar Jesus'ek**



# LOIOLA'KO IÑAKI DEUNA BILBAO' N?

Asi gaitезan gauza зиurretatik.

Loiola'ko Iñaki'ren odolak Bizkaia'ren ikutua eukan.

Bere senideak bizi ziran Ondarroa'n.

Egi bi orreik bidea zabaltzen dabe Bizkaia'n egon zala uste izateko.

Nongoa zan ba, Iñaki deunaren ama? Azkoitia, Deba ala Ondarroa'koa? Amaren aldeko senideak ziran Likona'tarrak eta oneik sendi oso ezaguna ziran Lekeitio'n eta Iñaki izena daroan bat 1355n. urtean Likona torre-etxearen jauna zan. Eta Martin onen ondorengoa Ondarroa'n bizi zan 1414n. urtean asita, gero ondorengoak.

Iñaki deunaren aitita Likona'ko Martin Garzia, Martin aren lobeа zan eta errege katolikuen aolkulari izan zan, baiña ez zan etxe-jaun, irugarren anaia zalako eta etxe-jaun izan nai eban bai berak eta bai emazteak. Balda'tarren etxea erosi eban 50. 000 marairen ordaiñaz

Martin ori Loiola'tarren senidea zan eta Azterrika'ko Maria Yañez Martin'en ama be bai. Eta beronegaz ezkondu zan Martin Likona'ko Garzia Iñaki'ren aita-aldeko osa-bearen aita giñerraba

Bide bitatik zan ba, senide bizkaiatarrakaz. Loiola'tarrak etxeko-etxeko ziran Ondarroa'tar oneikaz eta zalantza barik etorri zan Ignazio bere senide oneik ikertezera, ganboatarrak be ba'ziran eta adiskidetasuna ez galtzeko.

Iñaki deunak, gaiñera adiskidetasun aundia eukan Bermeo'ko Zarate'tar Pedro'gaz, Ribadeneira'k diñoskun lez. Eta adiskidetasun zarra zan au.

...

Iñaki deuna Arebalo'n egoala, bere errira etorten zan, errian bere aurka epaika-riak deia egin ebalako baten, 1515n. urteko aratosteetan egin eban okerkeri bategaitik eta atsedeen-aldietan be udako beroari iges egiteko etorten zan Arebalo'tik bere errira.

Bide bi artu eikezan, bata Gasteiztik Parkorbora eta bestea Durango ta Bermeo igaro-ondoren Bilbao'tik Balmaseda'ra ta Mena'tik, Oña'tik Pankorbo'ra. Iñaki deunak lenengo bidea egingo eban geienetan, baiña opor-aldiak ziran ezkerо, senideak iker-tzeko, beste bidea be artuko eban batzutan. Berak bere buruari biderasti edo peregrino esaten dautso eta Jerusalem'era be joan zan. Bere ustez bidea egiteaz barrua garbitu eta onoinenak ugaritu egiten ebazan.

Biderastia izateak orduan egunak eta egunak eskatzen ebazan eta bidean entzun eta ikusten eben dana artzen eben.

Bizkai'tik eta Bilbao'tik bide ori egiteko ba-eukazan zio batzuk: Ondarroa ta Lekeitio'n eukazan senide ta adiskideak ikertu, Bilbao uri aundia ta onen kaia ta langintza ederra ikusi, an egozan ola ederrak aztertu eta bere etxekoen olakaz pairatu, eta, zergaitik ez, entzutetsua zan Begoña'ko Amaren eleizan egon, gero Montserrat'en eta Arantzazu'n egongo dan antzera. Bere adiskide dan Jeronimo Nadal'ek diñoan lez, "populartier christianus" zan Iñaki'ren biotza. Geroago. Bilbao'n etxe bat sortzeko ametsetan ebiltzala, Solis aitak Begoña'ko eleizea oneraspen aundikoa zala esan eutson.

Agirietan ez daukagu ziurtasunik, baiña biotzetan aurkitzen doguz oiñarriak Loiola'ko Iñaki Bilbao'n iñoz egon zala uste izateko.

**Olazar'tar Martin'ek**

# LATIÑETIK EUSKERARA ETORRITAKO BERBAK

Latiñetik euskerara etorri jakuzan berbak asko eta asko dira eta emen ezin ager-  
tu geinkez guztiak, baiña irakurleen irudimena bizkortzeko ekarriko dodaz batzuk

Mitxelena'ren idaz-lan batetik artzen dodaz (Fontes linguae vasconum, 17), baiña  
idaz-lan orrek dauan sakontasunik aundiena, aldakuntzak zergaitik egin diran, ez dot  
kontuan artuko, irakurleentzat errezagoa izan daiten.

Pisce/bike/pez edo uia, pilu/bilo/ulea, piper, baccilu/makilla, fiku/piku/iko, mila-  
nus/mirua, lucru/lukuru, lupu/lupua, cepulla/kipula, luku/luko, luma/pluma,  
mutu/mutua, floren/lorea, perna/bernea, moeta, rota/errota, ostis/ostea,  
forma/horma, honorem/oore, spatha/espatea,

veta/beta edo astia, dominika/domeka, vindicta/mendekua, missum/mezua,  
turrem/torrea, siccum/sikua, signum/siñua, catena/katea, captellun/katillu, coclea-  
re/kollara, acuculum/akullu, corpus/gorputz, vessica/puxika, ausare/ausartu,  
causa/gauza, alocariun /alogora, defectum/peitu, ecclesiam/eleiza, sectu/zitu, ceri-  
sia/kerisa, /pullum/oillo, tegula/

teilla, tegulatun/teillatu.

Adventum/abendu, versum/bertso, jokum/joko, politun, polita/polita, mercata-  
rium/merkatari, cuatura/korta, anate/aate, martium/marti, dithare/titera, torcula-  
re/dollara, bane/bae, donum/doe, flama/lama, planun/lau, oblata/olata, rationen/erra-  
zoe, ripam/erripa, angelun/aingeru, ancora/aingura, maintile/maindira, kaptum/catu,  
mercatum/merke, cavea/abia, fagum/pago, habere/aberea, sabbatum/zapatu, Tem-  
pora/denpora, planca/langa, colpu/kolko, perdonatum/barkatu, ballena/balea, vigila-  
tu/begiratu, daculum/dallu, damnu/damu, cogi-tatum /koitadu, gula/gura, cella/gela,  
regem/errege, legem/lege, mina/mea, meridianu/

, bigau, molino/bolu, solaz/solas, sazon/sasoi, secula/sekula, Iñigo/eneko,  
zamaua, lucani-

ca/lukainka, benedictum/bedeinkatu, maledictum/madarikatu, vallatum/palatu,  
kale/kare, solum/solo, cupa/kupa, calcidicum/galtzairu, necem/neke, soga/soka,  
sacum/saku, locum/leku, buccellum/okela, denariun/diru, colum/goru, martium/marti,  
aprilen/apiril, kalendas maias/maiatz, zemen/zemendi, subseliun/zizillu, tempoe-  
ra/denpora, verba/berba, Omniusanctorum/domu santuru, apañar/apaindu, martis-  
egun/martitzen, candoren/ganora.

Askoz geiago dira latiñetik artutako berbak, oneik emen agertu doguz, irudimena  
suspertzeko.

**Olazar'tar Martin'ek**

# “N” GALKORRA

“N” abots lagundunak arazo asko eta aundiak sortzen dauz izkuntza askotan eta ez gitxiago euskeran

Esaterako frantzeran “N” sarritan galtzen da ondoko bakartiagaz bat egin eta bakarti au zurreratzen dala, eta guri ez jaku errez egiten zurreratu ori agozkatzea.

Ikusi daigun zelako jokabideak artzen dauzan euskereak “N” ta bakartia batzen diranean. Apraiz'tar Odon'en idazlanari jarraituko dautsagu geienetan (RIEV 14, 661)

...

Kanpotik etorritako itzetan be galtzen da:catena/katea, campana/kanpaea.

Barruko itzetan be jokabidea zalantzazkoak artzen dauz:Ardana/ardaua, gazta-na/gaztaea.

...

“Egun” itzaren azkena be galtzen da, esaterako eguerdia esaten dogunean, eta itz orrek eguzkiagaz zer-ikusirik ba'dau, or be bai:Egunben/eguen, Egunren/Eguren, Ekain/egungain, Oianbide/Oiarbide.

Beste batzutan N'ren ordez l edo r artzen da:anima/arima, norlan/nola,

...

Baiña “N” toki-izenetan galtzen da geien:Aramaiona/Aramaio, Otxandiano/Otxandio, LEMONA/lemona, Lemoniz/Lemoiz, Fruniz/Fruiz. . .

Noren atzikia danean, gitxiago galtzen da, baiña batzutan bai, esaterako niren/nire, guren/gure, beren/bere, zuren/zure.

Aditza aditz lagun biurtzen danean be sarritan galtzen da:emon/emoidazu, esan/esaidazu, esaten dot/esateot. jakintea/jakitea, edantea/edatea, eunle/eule, egintea/egitea, itxarontea/itxarotea, entzunle/entzule, iraunpena/iraupena, emaonitza/emoitza,

...

Batzutan “N” galtzen danean, urrengo lagunduna sendotu egiten da:Eginbide/egipide, jakinduri/jakituri, jakindun/jakitun, emendik/emetik, zelango/

Zelako

Begiratu daiguzan bereiziki “molino” edo “bolin”en ondorengo itzak:”N” ez dabe galtzen:bolunburu, bolinaga, bolintxu, bai ostera Bolineta barik Bolueta egiten danean.

Azkeneko “n”, aurren “i” ez daukonean “i” biurtzen da:limon/limoi, baiña aurrean “i” daukanean, Bizkaian “ñ” biurtzen da:diputacion/diputaziñoa. Gipuzkoan. ostera galdu egiten da diputación/diputazio eta iparraldean bardin geratzen da diputación/diputazionea.

Bakarti artean be galdu, galizieraz lez:arena”area.

Amaitu baiño len, esan begit toki-izenai buruz eta idazkerarako. Euskaltzaindiak artu dauan bidea okerra dala, ”n” zaintzen daben itzak erderaz dagozela uste izateko bidea eskintzen daualako. LEMONA ete da erderaz eta LEMOA euskeraz? Ez. Biak dira euskeraz, baiña aldi ezbarदिँean. LEMONA artu bear da, LEMOA, orren aldakuntza baiño ez dalako.

**Olazar'tar Martin'ek**

# OGETA AMASEIKO GUDA ETA EUSKALERRIA

(HUGH THOMAS EK DIÑOANA)

1. – Gertakuntza
2. – Euskaldunak araudiaren billa
3. – Asierak
4. – Guda Euskadi'n
5. – Gernika
6. – Guda Bizkaian: Bilbao

## 1. – GERTAKUNTZA

Nire liburutegian liburu oso irakurgarri bat aurkitu dot. Ale bitan dago eta idazlea HUGH THOMAS da. Idazpurua “España'ko Erritarren arteko Guda”. Edestilari oso ona da eta gai oneri buruz liburik onena beronek idatzi eban au. Oneri jarraituz, Euskalerriri buruz jakingarrienak diran gaiak artuko dodaz, irakurle adiskideai eskintzeko. Ez dakit zenbat ekiñaldi izango diran, baiña bai asko izango dirala.

Euskalerriak bere edesti osoan izan dauan unerik larriena dogu gai au. Gaurko ekiñaldi onetan guda-aurreko giroa aztertuko dogu.

Giro ori ulertzeko, 1936n. urteko bagillaren 6n. egunean egin zan korteetako batzar nagusia aztertuko dogu.

Nortzuk ziran notiñak eta euren eritxiak?

Santiago Casares Quiroga galiziarra dogu lenengoa. 1931n. urtean barru-ministro izan zan. Gero Batzar Nagusi orretako lendakaria. Gero Erri-alkarte edo “Frente Popular”ean daukagu.

Orren parean agertzen jaku 1936n. urtean CEDA alderdiaren Nagusia eta beronegaz daukaguz Bakaldun edo monarki-zaleak eta Kristiñauen Demokrazia.

CEDA au gorrotagarri zan beste guztientzat eta beronen alde egoan Erroma'ko Eleizea.

Erri-Alkarte edo “Frente Popular”ekoak ordurako 160 eleiza erre ebezan, 269 erri-erail eta erasoak naiz lan-izteak ugari.

CEDA'koen ustez, jokabide ori anarkia zan eta orrelan ez dago erria bideratzerik Alderdi indartsu bi oneik ez ziran gauza izan egoerea bideratzeko.

Urte orretan eta egun orretan egin zan errian autezkunda: Alde batetik Liberalak, Casares Quiroga'gaz eta bestetik sozialistan UGT Langille-alkargo edo sindikatoa-gaz eta komunistakaz. Beste alde batetik Laterri-alkarte edo “Frente Nacional”: Emen CEDA, bakaldun-zaleak, lurginen Taldeak euren lur-jabe edo “terrateniente”akaz, beste eskoitar asko, gudarostea, Eleizea eta burgesak. Ortik kanpora egozan CNT ta FAI. Eta gudarostea euren diktadura ezarteko gogoagaz.

Ona emen auteskundearen ondorenak: Erri-Alkarte edo “Frente Popular”ek %34'3 autarki eta 263 aldun lortu ebazan; Laterri-alkarte edo “Frente Nacional”ek %33'2 autarki eta 133 aldun; eta erdikoiak %5'4 autarki eta 77 aldun. Ikusten dan lez, gitxigaitik irabazi eban Erri-Alkarte edo “Frente Popular”ek. Oneik dira ba legezko agintariak, baiña ez arrisku barik, aldea ain txikia zalako. Eleizearen aldetik, autesk-

kundearen ondoren au onartu-bearrekoa zan eta ez egoan aurka guda egiteko eze-lako eskubiderik.

Ikusi daiguzan notin onein eritxiak, korteetako itzaldietan agertzen diran lez.

Casares Quiroga liberalak: Onegaz batera etorren Calvo Sotelo, gogorkeri-zalea eta trebea, agintari arduretan sartua eta bakaldun-zalea. Onek faszismoa be aitzaten eta onartzen eban eta aldunak onetan aurka agertu jakozan. Gudarostean ez egoa-la iñor be erkal errepublikearen aurka esaten eban eta iñor ba'lego zoroa izango litza-kela, baiña isillean matxinadaren laguna zan. Aurka egiten eutsenean lepo zabala "anchas espaldas" eukazala berak esaten eban. Au il ebenean artu zan matxin-guda egiteko erabagia. 33n. maillako masoia zan Martinez Barrios'ek esan eutsan: Nik ez dot olakorik ezer be esaten.

Pasionaria esaten eutsoen Dolores Ibarruri sartzan da giro onetara: Bilbao'n sar-diña-saltzaillea izana, baiña meatzetako langille bategaz ezkondu zan eta Mosku'ra ostera batzuk egin ebazan. Andrazkoen aldelari gogorra berau, faszitzen arerioa.

Gil Robles dogu eskoikoen buru. Gizon onartua fededunen eta Erroma'ko Eleizea-ren aldetik, baiña ezkertarrak gorrotoa eutsoena.

Batzar aundi orretan egin ebazan berbaldiak oiartzun aundia izan eben España osoan, Azaña be ezkertarren artean sartzan zala: Militarrak artega jarri ziran. Jose Antonio Primo de Ribera, falanjisten sortzaillea, Alikante'ko espetxean egoan, baiña fazista ta guda-zale zan. Anarkistak euren lana egin eben Korteetako giro orretatik kanpora. Eta or dagoz autarkia emon daben 24 milloi españatar.

Gudaren bildur ikaragarria egoan.

Eta eleizea?

Eleizearen izenean berba egiten ebana Segura Kardinala zan. Au 35 urtekoa zala, Koria'ko Gotzain zan eta erregearen eskariaz, Toledo'ko Goi-Gotzain egin eben. Iru doktoradu eukazan. Berez, bakaldun edo errege-zalea.

Ona emen beronen berbak XIII Alfonso Erregea goratu-ondoren: "Erlejiñoa kendu nai dabenai bide zabala izten ba'dautsegu. . . gero alperrik negar egingo dogu, bizi-tzeak egoera larria agertzen dauskunean garaitza geure esku euki eta gero, burruka egiten jakin ez dogulako eta gudari adoretuak izan eta aintzatsu ilteko gertu egon ez garalako (1931). Ez da ori gudarako deia? Berba orreik XIII Leon Aita Santuagan-dik artuak dira. Baiña ez zan fazisten laguna.

Esan dagidan zerbait geiago Kardinal ospetsu oneri buruz.

1952n. urtean egon nintzan Sebilla'n Luis Egia'k deituta. Misiñoiak emoten. Kardi-nalaren etxean amar egunean bere maian bazkaldu gendun. Bera maia bedenkatez-er etorten zan, baiña bazkaria ez eban egiten gugaz eta Sebilla'ko bere abadeak be ez ebazan artzen maian, euskaldunak baiño ez.

Franco Sebilla'ra joan zan baten, ez eban artu "palio"pean, beste leku guztietan artzen eben lez, eta Franco'k mezea etxean egiteko kapillaua eskatu eutsonean, ukatu egin eutson eta Madrilletik ekarri bear izan eban bere kapillaua. Ginea abadea, arabarra, zan bere kalpillau eta lagun. Bere lobak zaintzen eben, ibilli-eziñik egoan-eta.

Toledo'ko Goi-Gotzaintza kendu eutsoen, matxin-zaleen lagun zan Goma kardina-lari emoteko.

Baiña urteen joanean Aita Santuak eskatu eutson Erroma'ra joateko, gero bertan geratzeka eskatzeko asmoaz. Joan zan, eta bere ordez Bueno Monreal Jose Maria, len Gasteiz'ko Gotzaiña izana eta Zaragoza'ko Goi-Gotzaiña izendatu eben Se-billa'rako. Baiña Segura Kardinalak Aita Santuari ezetza emon eta Sebilla'ra biurtu zan.

An aurkitu eban Bueno Monreal eta iztillu ikaragarria sortu zan, baiña azkenean kendu eutson Aita Santuak bere Sebilla'ko Artzain-Ardurea.

Agiritegi aundia eukan eskuetan, oso jakingarria izango zan, baiña berak abade bateri emon eustozan agiri guztiak Luis Egia tolosar abadeari emoteko. Abade au agiriakaz Madrillera eldu zanean, norbaitek, antza loben izenean, agiriak eskatu eutsozan Segura Kardinalaren izenean eta abadeak emon be bai. Orain-arte ez da iñon agertu agiritegi baliotsu ori. Agertuko ete da iñoz?

Amaitu daigun ekiñaldi au ezpatak goian dirala. Militar matxinzaleak eta Eleizea daukaguz alde batean eta legezko agintariak bestean.

## **2. – EUSKALDUNAK ARAUDIAREN BILLA**

Guk, geiago edo gitxiago, ba-dakigu geure edestia. Ez da ori idazki onen elburua. Emen azaldu gura doguna beste au da: Angladar edestilari ospetsuak zer diñon gure edestiaai begira. Eta auxe da diñoana.

### **Araudi bat**

1932n. urtean lortu eben kataluniarrak euren araudi edo estatutoa. Euskaldunak be olako zerbait lortu nai eben eurentzat.

Baiña nortzuk dira euskaldunak?

### **Nondik etorriak, zenbat eta non bizi diran**

Euskaldunak 600. 000 dira, 450. 000 España-aldean eta besteak Frantze-aldean. Auñamendi'ren alde bietan bizi dira, ba.

Iñok ez daki nondik etorriak diran, baiña antz aundia aurkitzen dabe euren ezpatadantzearen eta iberotarren "Tripidiun"en artean. Au Estrabom'ek agertu eban lez ikusita.

Antz aundia ikusi da gaiñera euren izkuntzaren eta Iberoen agiririk zarrenetan agertzen danaren artean, baiña euskaldunak ez dira iberoak.

### **Izkuntza**

Euren izkuntza oso aintziñakoa da eta ia ez dauko elerti edo literaturarik.

Edesti-aurretik Bizkai'tarrak, Gipuzkoa'tarrak, Araba'tarrak, Naparroa'tarrak eta Frantza-aldekoak mendietan bizi diran erri berezia dira.

### **Bereizitasunak**

Antxiñako erria dira, iñok ez daki noiztikoa, erri erlejiñotsua, politika berezia daukana eta euki nai dauana, lurgintzatic eurentzat bear daben beste ateraten dabena, euren erri-bizitza parrokien inguruan eratzen dabena, erri-batzarrak eleizpeetan batzen dabezenak, 1936n. urtean nekazariak guztiak dira kristiñau katolikuak eta langintza-aldeetan be erdiak baiño geiago bai.

### **Errigintza (politika)**

Erdi-aro zarretik asita Gernika'n egiten dabez batzarrak urte birik bein, urte bien

bitarte orretarako aldundi bat aukeratzen dabe, 21 urtetik gorako gizonak dauke batzar orreitara joateko eskubidea, batzar orreitara erregea edo ordezkoa joaten da baiña aurretik euren lege zarrak zin egin bear dauz. Aritza ta Gernika eurentzat gauza sakratuak ziran eta, antza dagoanez, antxiña aritza gurtu egiten eben.

### **Buru-jabetza**

Arabiarrak ez eben lortu euskaldunak menperatzerik, baiña iñoz be ez dabe euki buru-jabetza osorik, Naparroa'ko errege erdi burujabeakaz geien.

XIX gizaldian karlistakaz egin eben guda liberalen aurka, baiña 1836n. urtean era lotsagarrian egin eben bakea Bergara'n eta 1876n. urtean kendu eutsoezan lege zarrak, ekonomi-ituna bakarrik geratzen jakela.

### **Langintza ta dirutza**

Itxas-ontziak egiten beti izan dira onak aritz asko daukelako eta XVIII gizaldian euren aingurak asko zabaldu ziran.

XIX gizaldiaren asieran España'ko itxas-ontzietan %45 ziran Euskalerrian egiñak eta burdiñea dana zan eurak egiña.

XIX gizaldiaren azkenean Bilbao zan langintza edo industriadun uria eta burdiña asko eukan, saltzeko be erreztasun aundia.

1930n. urtean altzairuaren 3/4 eta burdiñaren erdia Euskalerrikoak ziran.

1929n. urtean asita, gitxitzen joan zan burdingintza.

### **Dirutza ta bankuak**

España'ko eraketetan ebillan dirua 1/3 zan Euskalerrikoa eta banku etxeetan be nagusi ziran, baiña banku-gizonak españazaleak ziran. An aurreleri izan ziran.

### **Karlisten gudak eta abertzaletasuna**

Karlisten gudak galdu ebezenean asko galdu eben, batez be buru-jabetza arloan lege zarrak kendu eutsezelako.

Giro orretan sortu zan Sabino Arana, karlista baten semea. Kataluña'n ikasi eban eta an biurtu zan abertzale foruetan eukan itxaropena galduta.

1890n. urtean lege zarrak barrero balioko izatea eskatu eben eta giro aretara endazale biurtu ziran: Euskaldunak ez eben ezkondu bear erdeldunakaz, beraz erdeldunak ziranak Euskalerritik kanpora joan bear eben eta euskaldunak ez eben erdereza ikasi bear. Eleizea eurakaz egoan.

### **España'ko laterri-lege nagusia**

1931n. urtean España'ko korteetan Laterri Lege Nagusia onartu bear zanean, batzarretik urten egin ziran eta eskumatar lez agertu.

Orgaz bakaldun-zale edo monarkikuak Agirre euskaldunen buru zanari eskatu eutson Erkal edo errepublikearen aurka konplot bat eratzea, eta argiago esan eutsan Alike monarkikuak: "Deba'n agertu ziran 5.000 gazte abertzaleak emoten ba'daustaz, ni laster izango naz España'ren jabe".

Egun batzuk geroago erregeak esan eutson Agirre'ri: "Erregeak, zelan edo alan, euskaldunak artu dabezan irañai zor jaken erantzuna emon bear dautse euskaldunak

onartuz eta lege zarrak balioko zelan biurtu aztertzen diardugu". Esondapan oneik Agirre'k alboratu egin ebazan.

### **Agirre ezaguna**

Agirre Madrid'en ezaguna zan, Athletic'en jokolari ona izan zalako eta egindako eskintzak onartu ez ebazalako, bakaldun zaleak gorroto aundia artu eutsoen berari ta abertzaletasunari.

### **Araudiaren billa**

Euskaldun abertzaleak asi ziran Araudiaren edo Estatutoaren billa, katalanen antzera, naizta euskaldunak ekonomi-ituna euki bizirik.

1932n. urtean lau errialdeak batu ziran Iruña'n eta autaketa egin, baiña naparrak ezetza emon eben, 123 autagai 109'ren aurka. XIX gizaldian karlistakaz batera ibilliak ziran baiña orain buru-jabetza zan eskatzen zana eta abertzaleak Bilbao'n nai eben uriburua, naparrak ostera, Madrid'ekoa onartzen eben.

Ordutik aurrera Naparroa Euskalerritik urrintzen doa.

Beste iru errialdeak onartu eben araudia eta geiengo aundiagaz onartu be: 411. 756 autarki alde eta 14. 196 aurka, 63. 935 autarki zuri.

Geiengo onek Jaungoikoa eta Lege Zarra oiukatzen eban.

Arazo onetan, Kataluña'koaren alderantziz, garrantzi gitxi euki eban kulturak.

Euskaldunak España'gaz samaraiño egozala argi agertu zan. Baiña izlariak erde-  
ra egiten eben berba. Askok jakin be ez ekien euskerarik.

### **Jokabidea zabaltzen**

Euskalerrriaren jokabide au España'ra zabaltzen joan zan, bai Galizia'n, bai Balentzia'n eta bai Gaztela'n be, eta bide orretatik España lutelesti edo jeografiz apurtze-ko jokabidea ikusi zan.

Batzuk urtenbide lez Estatu federala oiukatzen asi ziran eta orregaitik sortu zan, baste zio batzuren artean, Franko'ren 36'ko gudaldia.

## **3. – ASIERAK**

### **LURRALDEAK**

ARABA: Matxin-zaleak, rebeldeak edo Nazionalak errez eskuratu eben Araba.

Anjel Garzia Benitez'ek eta Kamilo Alonso Bega'k lortu eben ori.

BIZKAIA ta GIPUZKOA errez geratu ziran erkalaren edo errepublikearen alde, Karrasko Koronelak Mola'ri ezetza emon eutsonetik.

Prieto'k eskaria egin eban EAJ/PNV erkalaren alde egon daiten.

Matxinzaleak espetxeratu egin ebezan Bizkaia'n eta Gipuzkoa'n arerioak edo zalantzazkoak ziranak.

Mola'k BalleSpin koronelari dei egin eta Loiola kuartelean ekintzaille sendo izateko eskatu eutson.

Naparroa'n 6000 erreketete egozan Mola'gaz eta "Oriamendi" ereserkia abesten eben. Alfonso Karlos euren errege-gaiak, gudara sartu baiño len ziurtasun batzuk eskatzeko esan eutsen.



## ERAKALAREN ALDIAN

Komunisten eta anarkisten jokabideak agertzen ziran argi:

- Lurrak bateratu eta gizarteratu.
- Eleizak erre.
- Eraiketak egin errez eta ugari.

## BIZKAIA'n:

- Abertzaleak euken geiengoa.
- Izter-begiz ikusten ebezan alderdi langille-zaleak.
- Euskal-polizia nai eben.
- Karrasko koronelak 500 falanjista ta anarkista il ebazan.
- Euskaldunak industria euken, arma, fabrikak, Gernika'n, Durango'n, Eibar'en eta Bilbao'n.

– Bankuen kontrola euken euskaldunak.

– Eleizearen eta euskaldunen artean burukea ebillan: Olaetxea'k eta Mujika'k pastoral bat argitaratu eben, erkalagaz doazenen aurka, baiña Bilbao'ko abadeak erkala-aren alde egozan eta au ezaten eben: Ez dakigu pastoral ori benetakoa dan eta ezin geinke jakin, gure artera bide normaletik, boletifaren bidez, ez dalako etorri, irratiz baiño ez dalako zabaldu eta gaiñera Mujika gure gotzaiñak une onetan ez daukala askatasunik uste dogu eta emen jazoten danaren barririk be ezin dau euki. (Jakiña da, gero, "Imperativos de mi conciencia" agirian berak be antzeko eritxia agertu ebal).

Pastoral orreri jarraitzeak guri eta gure erriari kalte aundiak ekarriko leuskiguz. . .  
Legezko agintarien aurka guda egiteko Santo Tomas'ek jartzen dauzan lau baldintzak ez dabez beteten matxinzaleak.

- Aita Santua'ren enziklikak be ez dira beteten matxinada orretan.
- Azkenean abadeak erriagaz zintzo jarraitu eben.

## GIPUZKOA'n:

Mola'k 3430 gudari, erreketekak, falanjistak eta nai ebenak eukazan.  
Donostia'n dan Loiola kuartela euskaldunen alde jarri zan. 27n. egunean.  
Mola'k lergai edo muniziño gitxi eukan eta uztailaren 29n. egunean bere burua il naian ebillen. Franko'k lergaiak eta egazkin italiar eta alemaniarak bialdu eutsozan.  
Sebilla'n dagonillaren 29n. egunean batzarra egin eben Franko'k eta Mila'k eta Mugea, Donosti eta Irun eskuratzea erabagi eben.  
Naparrak egozan Mola'ren lagun Jose Soltxaga gudalburuagaz.  
Dagonillaren 11n. egunean Tolosa artu eban Latorre Komandanteak.  
Telesforo Monzon'ek laguntza eskatu eban Bartzelona'ra eta milla fusil emon eutsoezan.  
Paris'era urrea bialdu zan, España'ko Bankutik, izkilluak erosteko.  
Donosti eta Irun'en aurrean Zerbera eta Belasko itxas-ontzi matxinzaleak agiri ziran eta zeru-goian "Junker-52 egazkiñak".  
Dagonillaren 16n. egunean egin eutsoen Irun'eri eraso: 3000 ziran euskaldun eta erkal-zaleak eta 2000 matxinzaleak, Mola'k kañoiak, tankeak eta kamioi sendotuak eukazan.  
Irailaren 2n. egunean eskuratu eben Irun. Eta galtzailleak uger eginda Bidasoa'tik egin eben iges.

Irailaren 13n. egunean itzi eben Donosti Mola'ren esku, ez apurtzekotan, gaiñera, gizonkiro jokatu, euskaldunak espetxeratuak bizirik emon eutsoezan.

#### ARAUDIA:

Euskaldunen eta erkal zaleen artu-emonak otz egozan, baiña berotu egin ziran Araudia onartu zanean. Euskaldunak berbea emon eben matxinzaleak azpiratu arte erkalari lagunduko eutsoela.

Irailaren 7n. egunean Gernika'ko zugazpean Agirre'k lendakaritza artu eban.

Jaurlaritza barria ta lenengoa eratu eban Agirrek: 5 abertzale, 3 sozialista, komunista bat, erkalzale bi alderdi bitakoak ta arkistarik bat be ez.

130 espetxeratu aurkitu ebezan eta Frantze'ra bialduak izan ziran.

Irailaren 29n. egunean Bilbao'n bonbaketa izan zan eta, ondoren lez, itxasontzietan matxinzaleen aldekoen ilketak be bai, jaurlaritzak jakin barik.

Guardi zibillak kendu eta ertzaiñak ipiñi ziran. Oneik 1'80 goiera eukienak ziran eta Luis Ortuzar euren buru.

Batzuk autonomia aurrera joiala ikusi ebenean, matxinzaleen artetik iges egin eben.

Franko'k Aita Santuari samintasuna agertsu eutson matxinzaleen alde agertzen ez zalako. Eta euskaldunak kondenatzeko eskatu eutson, baiña ezetza artu eban, antza dagoanez Erroma'n egoan Mujika gotzaiñak emondako barriai esker, baiña bai esan eban Aita Santuak komunisten lagun izatea debekatzen ebala. Negargarritzat agertzen dau Aita Santuak matxinzaleak 14 abade euskaldun il izatea, eta Franko'ren geroa ez dagoala argi esan eban, Hitler eta Musolini'ren antzeko bidea artuko ete eban.

Geroago be Mujika gotzaiñak txosten bat egin eutson Aita Santuari, zemendiaren 24n. egunean.

Kardinal Goma'k esan eban abade ildako orreik egin dabena ordaindu dabela. Ori esan eutson Agirre'ri egindako karta baten.

Manuel Kastro, Burgos'ko gotzaiñak abade euskaldunak kondenatzea eskatzen eban, baiña ezetza lortu zan, Pacelli'k karta bat eginda.

Dax'eko gotzaiña etorri zan Bilbao'ra itxas-ontzietako espetxeratu matxin-zaleen bizia zaintzeko eta kanjeo bat egitea eskiñi eban, baiña Franko'k erantzun eban Salamanka'tik ezetza emonez, ez ebala nai esan eban, Eleizea "gorriakaz" artu-emone-tan astea.

Abertzaleak matxin-zaleen aurka argi ta garbi jarri ziran eta urterillaren 54n. egunean Legion Kondor'ek Bilbao'ko bonbaketa egin eban. Errusia'tik etorritako kazako egazkiñak ziran eta matxinzaleek egazkin bi bota ebezanean aleman bi jausi ziran Bilbao'ko kaleetara, bata kalean erail eben eta bestea egazkin-gidari errusiar batek beragaz eroan eban.

UGT'koak espetxeetara sartu eta iru kartzeletan 208 lagun il ebezan.

Santander'en aurrean egozan espetxeratuak itxas-ontzi baten eta 200 il ebezan. Falangistak eta karlistak ziran.

Largo Kaballero eusko jaurlaritzaren gaiñetik agertzen alegindu zan.

Euskalerrria'n bakarrik egozan eleizak zabalik, Jaurlaritzari esker.

Euskerea izkuntza ofizial biurtu zan.

Euskaldun asko ebillen Franko'ren gudarostean, alderdi artean egozala, soldadu joan bear izan ebelako.

Agirre'k lagun eban Espinosa, erkal-zalea, etoikeriz il eban bera ekarren egazkin-gidariak, bidetik alboratuta. Euskalerrrian guda-girorik ez egoan, gosea bai.

#### 4. – GUDA EUSKADI'N

1937n. urteko martiaren 22n. egunean, Franko´ren asmoa zan Madrid´en ingurua sendotzea: 300. 000 soldadu eukazan eta ezin eban eskuratu Madrid.

Orretan Mola etorri zan Euskalerrria´ren aurka. Egzkiñak eta kañoiak ba-eukazan.

Baiña Euskadi´ko burdiñea eta Asturias´eko ikatza bear ebazan.

18. 000 erreketek eukazan laguntzeko, Garzia Baliño, Alonso Bega, Kaiuela eta Latorre koronelakaz. .

Iru aste-barru Bilbao eskuratzeko ametsa eukan: Ondo ekian “Burdñezko Garrikoa” zelan egoan, Alejandro Goikoetxea etoriari esker. Onek planoak eroan eutsozan eta orreitan lerro bi agertzen ziran, 200 eta 300 metrokoak, ez lubaki sakonak, alde bat ezelako babesik barik eta lubaki guztiak estaldu barik.

Egun batzuk aurrerago itxasoko gudaldia izan zan eta “Kanarias”ek izkulluz betarik etorren ontzi bat arrapau eban. .

Iru arraintza-ontzi euskaldun jarri ziran “Kanarias”en aurka eta eroaleetatik 2/3 galdu-ondoren iru ontziak ia zapuztuta amaitu zan gudaldia.

Martiaren 31n. egunean asi zan Mola´ren eraso, beragaz iru koronel zirala: Solzaga, Bigon eta Martinez Kanpos. 200 kañoi eukezan.

Matxinzaleak 80 egazkin aleman Gasteiz´en, 70 egazkin italiar, Legion Kondor 100 egazkiñegaz Kanarias eta Almirante Zerbera, Belasko apurtzaillea eta beste batzuk.

Euskaldunak 100 000 gudari Largo Kaballero´k onartuak, 75 kañoi, Errusia´ko tanke batzuk, apurtzaille bi, iru itxaspeko ontzi eta 30 egazkin. Guztiz orreik 46 bata-lloi osotzen ebezan (27 gudariak, 8 sozialistak, eta besteak komunistak eta anarkistak nastean, 82 kapellau mezak esan, adorea emon eta ilten ziranai laguntzeko. .

Gaiñera 10 batalloi asturiastarrak, baiña onei gorrotoa eutsen besteak, abereak oztuten, bartzaketak egiten eta ilketak gertatzen ibiltzen ziralako. Oneik il eben Abadeño´ko abadea.

Mola´k azken eskari bat egin eban:Martiaren 31n. egunerako euskaldunak eta lagunak euren buruak Mola´ri eskintzen ez ba´eutsezan, Bizkai osoa zapuztuko ebal.

Erasoa Durango´asi eban:14 lekaike il ziran Santa Susana lekaike-etxean, Andra Mari´ko eleizearen gaiñera bonbak jausi ziran mezan egozala eta sagaran egoan abadea il zan, Josulagunen eleizan jaunartzean egozan. Durango´n 127 il ziran eta gero, gaiso-etxeetan, beste 121.

Au izan zan guda-lekutik kanpoan bonbatua izan zan lenengo uria eta onegaz batera izan ziran bonbaketak Legutiano´n eta Otxandio´n. Egunean 50 egazkin ebiltzazan. Euskaldunak 600 il ziran eta 409 espetxeratu. Iges egin bear izan eben euskaldunak eta “Burdñezko Garriko´rantza joiazan. Aprillaren 10n. egunean euskaldunak 140 kañoi eukezan eta Gorieb errusiarra gudalburu, baiña txarto ibilli ziran.

Aprillaren 6n. egunean Bretainia´tarrai janariak ekartea debekatu egin eutsen, “Almirante Zerbera” bidean aurkeztu jakelako, baiña inglesak gogor egin eutsoen eta ekarri ebezan janariak.

Franko´k kaietan lergaiak, minak, ipiñi ebazan eta ori arriskua zan inglesentzat janariak ekarteko. Jakin bear da, baita, inglesak Bilbao´tik, oituraz, 60 000 tona burdin eroaten ebezala eta orregaitik London´eko parlamentuan eztabaida aundia sortu zan eta guda aundi eta zabalago bat sortzeko arriskua agiri zan.

Agirre´k portuetako lergaiak batu ebazan.

Ori ta guzti be, Txurtxil´ek esan eban, gudako alderdi biak alboratu bear zirala, parterik ez artzeko (no intervención). Janari asko Donibane Loitzun´en egoazan alperrik galtzen, baiña azkenean inglesak ausartu egin ziran eta Bermeo´tik Bilbao´ra ekarri ebezan janariak. Bilbao poz-pozik egoan.

“Almirante Zerbera”k galazoten jarraitu eban baiña London´ek gogor erantzun eutson eta itzi egin bear izan eban janariak ekarten, itzi ezean berari erasoko eutsoela esan eutsoelako London´eko Parlamentutik. Iges egin bear izan eban.

Inglesak esan eben: “Eusko Jaurlaritzza urrago daukagu, erkala naiz matxinzaleak baiño”.

Aprillaren ogeigarren egunean, matxinzaleak aurrera jarraitu eben. Elgeta eta Intxorta mendietan lubaki sakonak eginda aurkitu ebezan eta euskaldunak sendo egozan, baiña CNT´ko batalloi bik iges egin eben. Pablo Beldarrain euskaldunen gudaiburuak atzera egin bear izan eban, eta guztiak Burdiñezko Garriko´rantza abiatu ziran. Bideetan bonbaketa asko jazan eben eta emen bitarte onetan Gernika´ko jazoera latzak agertzen jakuz.

## 5. – GERNIKA

Gernika uri txikia zan, itxasotik 10 km. ´ra eta Bilbao´tik 30 km. ´ra, 7000 biztanle.

Beti danetik euskaldunen askatasunaren ezaugarri izan da et an dago aretx ospetsua eta antxiñako euskal parlamentua.

1937n. urteko aprillaren 26n. egunean, guda-lerrotik 15 km. ´ra egoan. Arratsaldeko 4 l/2´etan egazkiñak etozala iragarten eben kanpaiak entzun ziran, 4´40´an Heinkel -III egazkiñak asi eben bonbaketa, Moreau komandante buru zala. Joan eta barriro iru egazkin bardin etorri ziran, gero 23 egazkin Junker, gero iru eskuadrilla, kazaokoak zainduta.

Kazako egazkin oneik erriko jentea ilten eben, lurrera urreratuta.

50 000 kilo su-bonba bota eta dana sutan itzi eben, batzar-etxea eta aretxa izan ezik, eta arma-lantegiak be ez eben kalterik izan.

Zenbat il ziran? 3000? Zauritu eta mutildu asko.

Azkenean egazkin italiarrak be etorri ziran.

Nortzuk dira jazokizun onein lekuko?

Erriko alkatea, Bretainia´ko kontsula, kanpotik etorritako izparlariak, batez be inglesak.

Bolin izan zan izparlari matxinzaleen buru aprillaren 27n. egunean eta onek esan eban euskaldunak eurak, iges-egikeran, erre ebela Gernika.

Aprillaren 28n. egunean jausi zan Durango, 29n. egunean Gernika.

Soltxaga gudaiburuak erail eban Llarch koronela epaiketa laburrena eginda, espetxean egoala, eta onegaz batera beste iru nagusi.

1945n. urtean erbestean egoan jaurlaritzak Alemania eroan nai izan eban Nirenberg´en egiten ziarduen epaiketetara, baiña ezin izan eban 1939n. urtea baiño lenagoko arazorik ez ebelako onartzen.

Mola Gernika´ra eldu zanean, aprillaren 29n. egunean arrituta geratu zan. Eta Franko bera be etorri zanean asarratu egin alemanen aurka.

Pikasso margolariari erkalak agindu eutson horma-margazki bat egiteko Paris´en egoan erakusketan España´ren tokian ipinteko. Berak Gernika deritxon laukia margoztu eban, bere marrazkirik onenentarikoa da, eta New York´era eroan eben.

Ogei abade euskaldunek egin eben agiri bat, Aita Santua´ri Gernika´n jazotakoaren barria emotera, Pedro Mentxaka eta Agustin Isusi agiriaren eroale zirala. . Idazkari zan Pacelli´k artu ebazan eta onek otz-otz esan eutsen:”Eleizea Bartzelona´n aurrean darabille” eta beste barik atera lagundu eutsen.

Gernika mundu gutziko albiste-bideetan barri nagusi lez agertu zan.

## 6. – GUDA BIZKAIA´N: BILBAO

Balentzia´tik, Frantzia bitarte dala, egazkiñak bialdu eutsezan euskaldunai, baiña Toulouse´ra eroan ebezan eta ez eutsen itzi andik urteten, laterri-artean batari ez besteari laguntzea galazota egoalako: No intervencìon.

Erkalak (errepublikeak) Kazako egazkiñak bialdu ebazan Bilbao´ra baiña 50´etik 7 baiño ez ziran eldu, besteak bidean matxinzaleak bota ebezelako.

Bizkai´tik umeak eroan ebezan erbestera: Frantzia´ra 2 300, Ingalterra´ra ango katolikuak onartuta, 4000 eta Errusia´ra komunisten umeak ziranak. Matxinzaleak Burgos´etik gogor erantzun eben ori Euskalerrria laterri lez artzea zala esanez, gaiñe-  
ra Bilbao apurtzeko asmorik ez egoala.

Euskaldunakaz bakeak egiten asi ziran batzuk, Balentzia`n egoan Erkalaren Gobernuagaz berba egin barik.

Donibane Loitzun´en egoan Arjentina´ko ordekaria izan zan onetan lenengoa eta Aita Santuagana jo eban.

Maiatzaren 12n. egunean, Pacelli´k, Aita Santuaren idazkariak, Agirre´ri telegrama bat bialdu eutson, bakerako baldintzak eskiñiz, baiña telegrama au Paris´tik etorren Agirre´gana eta Balentzia´ko Gobernura bialdu eben eta Largo Caballero asarre jarri zan euskaldunen aurka, euren kontura olako gauzak egiten ebiltzalako eta karteia egin eban Jaurilaritzara. Leizaola`k emon eutson bear eban lako erantzun sendoa. Prieto`k erantzun ori irakurri ebanean auxe esan eban: Eskutitz orregaitik Leizaola fusilatu leikela.

Aita Santuak Goma kardinalagana jo eban eta onek Mola´gaz egin eban berba. Mola´k Franko´ri dei egin eutson. Onek garanti laburrak emoten ebazan eta ez zan ezer be lortu.

España´ko matxinzaleak Aita Santuak Alemania´ko faxisten aurka idatzi eban “Mit benender Sorge” agiria (XI Pio´rena) zabaltzea debekatu egin eben.

Musolini´k beste eskintza bat egin eban bakerako: Euskalerrria Italia´ren babespean (Protectorado) jarri leikela. Barri au ekarri ebana Donostian kontsul zan Caballetti izan zan. Baiña Agirre´k ezetza emon eutson.

Mola´k Bilbao´ri erasoa egitea atzeratu egin eban, egualdi txarrak ziralako eta orretan Mola´k egazkiñean joiala, Burgos´ko Alkolero mendiaren aurka jo eban eta antxe il zan. Batzuk ba-diñoeg egazkin-iztripu ori baten batek gertatu ebala be. Eriotza ori jazo zanean, Franko´k auxe esan eban: “Mola gizon buru-gogorra zan”. Bere orde z Dabila jarri zan.

Bagillaren 11n. egunean guda-erasoa Bilbao´ri egiteko gertatzen asi ziran eta bonbaketa egin eban Legion Kondor´ek, 150 kañoi egozan “buidreñezko garrikoa baiño lenago eta Gamir gudalburuak 40. 000 soldatu asturiar eta santandertar eukazan, eta onei euskaldunak, sozialistak eta komunistak gorroto bizia eutsen.

Bagillaren 12n. egunean 70 bonbadun egazkin asi ziran burdiñezko garrikoa apurzen eta Goikoetxeren planoak eukezan lagun.

Bagillaren 13n. egunean euskaldunak Bilbao´ra batu ziran, gogoa jausita. Agirre Lendakaria Karlton Ostatu Nagusian egoan eta galdera au egin eban: Babestu geinke Bilbao? Gudariak ezetz erantzun eben eta beste batzuk zalantza agertu.

Bagillaren 13 eta 14n. egunetan, Bilbao zaindu bear dogu, esan eben, . Prieto´k lantegiak apurtzeko eskatu eban, baiña erritarrak Santander´erantza iges joan ziran, Jaurilaritza Truzios´era joan zan eta Bilbao Talde babesle baten (Junta de defensa) esku itzi eben, Legion Kondor bonbak botaten ebillala.

Bagillaren 15n. egunean, Burdiñezko garrikoari eraso egin eutsen Goikoetxea etoiak zaindu barik egoala esan eban lekutik.

Leizaola´k Bilbao osorik zaintzeko eskaria egin eban.

Bagillaren 17n. egunean: Matxinzaleak euren kuartelak Bilbao-barruan jarri ebezan. 20 000 tona bonba jausi ziran Bilbao-gaiñera .

Leizaola´k, gizonkiro jokatu, espetxeratu guztiak matxin-zaleen eskuetan itzi ebazan.

Bagillaren 18n. egunean Bilbao´tik urteteko agindua emon zan.

Bagillaren 19n. egunean matxinzaleak sartu ziran eta arratsaldeko 6´retan Bilbao´ko balkoetan errege-zaleen banderak agiri ziran.

Gudarostea, Gamir gudalburuagaz Santander´erantza joan zan.

–Aldakuntzak:

– Maixu guztiak kendu ebezan, neutralak ez ba´ziran.

–Euskerea erabiltea debekatu eben.

–Laba Aundiak eta meatz-lekuak osorik geratu ziran

–Abade batek emon eutsen albistea Inlaterra´ko umeai eta 3000´tik 300´ek iges egin eben ikaratuta.

Obserbatore Romano´k matxinzaleen alde urten eban bereala, baiña munduko katolikuen artean zalantzak egozan, euskaldunen jokabidea aztergarri ikusten ebela-ko, berau zalako erri guztien artean katolikuena.

Frantzia´n Maritain eta Mauriak alkartu ziran euskaldunen alde agiri bat agertzeko.

Erroma´n Mujika gotzaiña egoan euskaldunen alde.

España´ko gotzaiñak (Goma kardinala buru zala) mundu guztiko gotzaiñai idazki bat bialdu eutsen matxinzaleen alde eta guda au teoloji-aldetik zuzena zala agertuz, baiña ez dabe nai lengo demokraziaren ordeaz orain diktadura bat sortzea. Abade euskaldunen aurka agertzen dira, Eleizeari entzun ez dautsoelako.

Agiri au ez eben izenpetu Gasteiz´ko eta Tarragona´ko gotzaiñak eta Segura kardinalari eskatu be ez eutsoen egin izenpetzeko.

España´ko gotzaiñak Aita Santuari esan eutsoen abade euskaldunak politikara sartu zirala eta armakaz ibiltzen zirala. Abade euskaldunak agiri oneri erantzun eutsoen eta abade batek be ez dauala izena emon EAJ/PNV alderdian eta gudari-kapellauak ziranak eurak be arma barik ibiltzen zirala diñoe.

Batikano´k (1938-08-28) onartu eban Burgos´ko gobernua eta Antoniutti delega-dua bialdu eban Burgos´era. .

Euskalerrian, guda-ostean aurrean erabiliak izan diran abadeak 278 dira, frailleak 125, geienak erbestera joan bear izan eben.

**Olazar´tar Martin´ek**

# BIZKAI'KO JAUNIK ZARRENAK (EZ ZIURRAK)

Ba-dakigu Bizkaia'n Jauna izan doguna agintari. Asieran gudaiburu izateko artu zan baiña gero aginpidea lortu eban, batzarrak aukeratua izan ezkeru.

Eta ortxe dago gure zori txarren iturria:Jaunak erregeakaz bat egiten eben eta azke-nean Bizkai'ko Jaunak Gaztela'ko erregiña izango zana artu eban emazte lez eta orre-lan Bizkaia'ko Jauna eta Gaztela'ko erregea notin bat bera ziran. Eta nora eldu gara gero?Gure lege zarra Gaztela'ko erregeak emondako forua dala entzun bear izatera eta España garala ontzat artzeko beartuak izatera.

Baiña erria bizi da eta bere burua jazoko dau.

Gaztelarrak, eta españatarrak ez dakie gure edestia, ez dakie gure nortasuna zer dan eta oraindiño arro-arro esaten dabe guk irakasten dogun edestia okerra dala.

Aztertu daigun arazo au Labairu'ri jarraituz(Labayru-3, 5).

Amabostgarren gizaldian gure Jaunerria bere buruaren jabe da, naizta erregearen eskuetara jausita egon eta Erregearen eta jaunen artean eztabaida aundiak izan.

Gure buruen gaiñean euren zergak ipiñi ebezanak VIII Alfontso, Sancho el Bravo, XI Alfontso eta Pedro Ankerra izan ziran.

Or bertan agertzen da gure lurraldea ez zala lbero ibaitik arantza dagozenen modu-koa. Gu beste laterri bat giñan. Esaterako 1317n. urtean III Eduardo Ingalterra'koak bere itxas-ontziari Kantauri itxasoan ezarritako kalteak bardintzea eskatzen eban eta erantzue-nean argi agertzen dabe bizkaiatarrak eurak ez dirala Gaztela'ko erreñuak . Ber-meo'tarrak beste Jaunerriko portuen izenean, euren buru Maria Diaz de Haro dala diño eta ez XI Alfontso.

Erregeak berak be Gaztelugatxe esi ebanean argi diño:D. Juan dala Bizkai'ko Jauna Bizkai'ko andrea zan Maria'gaz ezkondu zalako. Berak diño Kantauri'ko kaietakoak ez eukela ezer ordaindu bearrik.

...

Bizkai'ko benetako jaunak ez diranak lenengoa, Jaun Zuria, da, bigarrena Munio Rodriguez, irugarrena Munio Nuñez, laugarrena Sarrazino Nuñez, bostgarrena Munio Lopez:oneik maltzurkeriz dakaz Llorente'k, baiña beste zerrenda batzuk be ba-dagoz.

Geienak ipinten dabe lenengo jaun lez Jaun Zuria eta Fruniz ezarten dautsie izena, Eskozia'tik etorria. Emengo jaunagaz ezkondu ei zan. Gero Manso edo Munio edo Nuño onen semea

Jaunen zerrendan iru aldi dagoz: 1ª: guzurrezkoa. 2ª: Zuritarra, geienak guzurrez-koak. 3ª:Jaun ziurrak diranak.

Gaztela'tik etorria. Orre-lan geratu zan Bizkaia Gaztelaren eskuetan jaunen asieratik, baiña ez Durango-aldea, oneik naparren eskuetan naiago izan eben. "Illa patria quae dicitur Bizkaia et Durango", euskeraz, "Bizkaia eta Durango deritxon lurraldea".

Goazen bigarren aldira:Manso Lopez, Jaun Zuria'ren semea. Au be laiño-artean gal-tzen dana. Lopez guztiak Galizia'ko Lupa'ren ondorengoak dira. Manso Lopez'en izena be ez dakigu, emaztea nor zan be ez, eta seme-alabak be ez.

Gernika'n ziña egin ei eban 888n. urtean. 24 urtekoa zala il zan.

Bere semeak il ei eban Morga'ko Meakaur'en. (Dana guzurra).

Emen agertzen da Belaskita beronen emazte ospetsua, Naparroa'ko Santxo'ren ala-bea.

Onea izango da arazo au alboratu eta jaun ziurkak asi gure edestia.

**Olazar'tar Martin'ek**

# EUSKALDUNAI ZERGARIK EZ

Euskaldunak euren “fogera” edo sueteai egokien zerga ordaintzen eben baiña, ez emen eta ez kanpoan, iñok ez eukan eskubiderik zergea ezarteko, erregeak berak be ez, eta erregeak zergea ezarri nai ba’eban, esaterako alabea ezkontzen jakonelako, eskatu egin bear eban eta eskari ori Gernika’ko zugazpean eztabaidatu eta geiene-  
n ez emotea ebazten zan, “men egin baiña ez bete”.

Gipuzkoa’koa izan arren, jazokizun bat dakargu emen, zerga-batzaille bat il ebe-  
nean zer jazo zan agertzen dauana. Gaon judatarrarena. .

Idazki onetan ikusi lei zelako itzaltasuna agertzen eutsen euskaldunak euren  
jauna zan erregeari, larregikoa, lotsagarria.

1463n. urtean eta Tolosa’n gagoz. Gaon judatarra, izatez Gasteiz’koa, IV Enrike  
errege ta gure jaunaren zerga-batzaillea zan eta jorraillean zerga bat eskatu eban  
gure lege zarren aurka etorrrena eta tolosarrak bein eta barriro esan eutsoen euskal-  
dunen askatasunaren aurka ez jokatzeko, baiña berak berean jarraitu eban eta erail  
egin eban eta bere burua erri-aurreko zigor-lekuan, “pikota”n jarri.

Erregeak Ondarrabi’n izan eban alkar-ikuste bat Frantze’ko erregeagaz eta Tola-  
sa’n jazorkoa jakin ebanean asarre bizitan jarri zan eta erailtzailleak billatzeko ta  
zigortzeko agindua emon eban. Oneik iges egin eben, baiña bildur ziran eta Azkoitia’n  
egiteko zan Batzarrari eskatu eutsoen erregea ta jauna zanari parkamena eskatzeko.

1466n. urtean egin eban batzarrak eskari au eta orretarako da emon itzultzen eta  
laburtzen dogun eskutitza.

“Gutziz goikoa ta aldun zaran printze, errege ta jauna:Guk, zure berezko, menpe-  
ko otsein apalok, Gipuzkoa zure erki zintzo ta leialean diran uri eta errietako onda-  
sun- seme laguntzailleen ordezkari garanok, Azkoitia zure urian

Batzar Nagusian gagozala, zure eskuai mun egiten dautsegu eta zure mesede-  
en menpean jartzen gara. Jakin egizu zu azkenengoz, Frantze’ko erregeagaz alkartzea  
izanda, erki onetara etorri ziñanean, dirala, gitxi gorabeera, iru urte ta erdi, Tolosa zure  
uri onetan erail ebela Gasteiz urikoa zan Gaon judatarra, eta erail eben errudun zalako,  
Tolosa uri onetan, bertoko eskubideak eta salbuespenak zapuztuz igarotako urte batzu-  
tako zergak eskatu ebazalako, zergen sasoa igaro eta gero, eta askatasun eta salbues-  
pen orreik zuk onartuak izan eta gero. Gaon orrek zor ebezala esaten eban eta orregai-  
tik bera errudun zalako erail eben. Eta, Jaun altsua, zurea dan Tolosa uri au erkian dira-  
nen artean garrantzitsuena dan lez, eta beti zure serbitzuan egon dan lez. . .

Jaun aundi orreri, apal-apal eskatzen dautsagu Tolosa zure uriari parkatu dagio-  
zula, baita bertoko udal-batzari, ertzaiñai eta gizon onai, erritarrai eta emen bizi dira-  
nai, Gaon judatarraren erailketan eskuartu dabelako eta bialdu dagizula zure parka-  
men-eskutitza” eta, zerga-kentze ori zuk onartua dan ezker, iñor ez dagiela jazartu  
zerga ori ordaintzen ez daualako.

Jaun guttiz aundia ta guttiz altsua, printze, errege eta jauna!gure Jainkoak ugari-  
tu ta goratu dagiala zure bizitzea eta agintzaritza gure senbitzurako. Zure aunditasu-  
nari bialtzen dautsagu eskari au gure eskribau zintzoak izenpetuta eta ikurtuta,  
Azkoitia’ko gure Batzar nagusitik

irurogeita seigarren urtean. Zure aunditasunaren otsein apal dan eta zure eskuai  
mun egiten dautsen Domenjon Gonzalez’ek.

Eskatutako eskerrak baietza irabazi eban eta tolosarrak ziurtuta ikusi ebezan  
euren buruak.

**Olazar´tar Martin´ek**



# EUSKALERRIA'N AITA SANTU: VI ADRIANO

1n.urtean il zan Erroma'n Lutero kondenatu eban X Leon aitasantua.66 urtekoa zala eta zortzi urte bere ardura aundi orretan egin ondoren.

Batu ziran kardinalak konklabe edo gela itxian eta VI Adriano aukeratu eben.

VI Adriano izango zana,Utrech'ekoa zan semez eta Gasteiz'en egoan,enperadorean enbaxadore lez.Emen egoala egin eben Tortosa'ko gotzain eta kardenak 1516n.urtean

1522n.urtean aukeratu eben Aita Santu,urterillaren 9n.egunean eta Gasteiz'en egoala artu eban barri ori. Eta gasteiztarrak asko poztu ziran ori jakitean.

Iru kardinal zarrenak egin eutsoen eskutitza eta ainbat lasterren Erroma'ra joateko eskatzen eutsoen.

Erroma'ra joan-aurretik Kalagurri'ko gotzaiña agurtu eban,martiaren 17n.egunean,Bilbao'ko parrokoen izenean joan jakon batzorde bat eta gero artzipresteak eta lekaide-buruak be bai.

Gasteiz'tik urten ebanean,ienengo Muskaria'ra joan zan,andik Zaragoza'ra, eta gero bere gotzaindegia zan Tortosa'ra.Emen naikoa luzaro egon zan eta emendik idatzi eban eskutitz bat Bilbao'ko Gizakunde-lekaimeentzat

Barriro be Zaragoza'n egon zan eta gero Bartzelona'n enperadoreak itxas-ontziak gertatu eutsozan Erroma'ra joateko:16 galera eta 30 ontzi eta barruan lau milla gizon laguntzeko.Bera Luis de Requesens ontzira sartu zan eta dagonillaren 29n.egunean eldu zan Erroma'ra.

**Olazar'tar Martin'ek**

# ZIORTZA'KO ANDRA MARI

Gerrikaitz'ko Garai auzoan dan Santa Luzia'n, 968n. urtean, ermita orretan lurperatuta egozan gorpuak Ziortza'ra aldatu ebezan, arrano batek buru-azur bat ara eroan eta an itzi ebalako.

Ori kondaira-girokoa gauzea da. Baiña ziorra da XI gizaldian sortua dala Ziortza eta fundatzaileak XIV gizaldian Andramendi, Mujika, Anso, Oka. . . deritxon tokiko soloen jabe dirala. eta Ubillos'ko jaunak illobiak eukezala eleiza-alboan eta gero eleizearen barruan ebanjelio-aldean. Gaiñera lenengo jesarlekua, betirako errentea eta saridunen (benefiados) eskubideak eta jaun orreik eldu arte ez egoan mezea asterik eta gaiñera meza-ostean bazkaria emon bear jaken.

Beste illobi asko egoan eleiza-ondoan eta illeta egiten jakenean negar, txalo, abesti goibel asko egiten zan.

Ziortza'ko eleizea 1380n. urtean egiña da

1400n. urtean Kalagurri'ko gotzaiñak emon ebazan arauak. D. Juan eta onen lagunak Ziortza'ko saridun lez geratzen dira kanonikuen duintasunaz.

XI gizaldian Ziortza'ko abat izan zan D:Blas eta onek izenpetu eban idazki bat auxe agertzeko:D. Lope Iñiguez'ek eta onen emazteak Donemiliane'ri emoten eutsoela Muxika-Ugarte'ko eleizea, 1082n. urtean:"Abate domno Blasko de Cenarruza confirmat".

...

XIV gizaldian Ziortza'ko eleizearen jabe edo zaintzaileak euren jabetasun eta eskubide guztiak emon eutsoezan eleiza oneri euren arimak salbatzearen, abadia bat sortzeko baldintzagaz eta abata Markina'ko Pedro Martinez izatekotan eta baiezena lortu eben Kalagurri'ko gotzaiña zan Mena ta Vargas'tar Gonzalo'gandik.

Eleizea barriztatu egin eben eta bizilekuak egin ondoan eta bizitzarako arauak be onartu ebazan gotzaiñak:ogei agindu ziran:Abata eta bost kanoniku izango dira, oneik abata aurkeztuko dautsoe gotzaiñari eta onek onartu, eta abatak ondasun onein eskubidea eukiko eban:Bost bei, gaztaiak, abere txikiak, eta beste betiko errentak eta orrelan bizi al izango ziran kanonikuak;abade lez bizi ez diranai zigorrak, maitinek, orduak eta mezea egunero, egokiro ta arrokeri barik jantzita, baiña abataren jantziak karuagoak izango dira. Illerrian iñor lurperatzen zanean, etxeakoak emoitza egin bear eben:zaldi bat edo mula bat edo armak, jantziak, urrea, zidarra, eta dana erabilliko zan eleizkizunetarako jazkiak erosteko. Kanoniku batek artuko eban parrokiaren ardurea gotzaiñak izendatuta. Iñok abat-etxe onetara bizi izateko etorri nai ba'dau, datorrela eta zalantzarik dagoanean gotzaiñak erabagiko dau.

...

Lenengo abata zan Markina'ko Pedro Martinez'eri emon eutsoezan giltzak baiña laster damutu ziran eta asi ziran lurrak kentzen, zidarrezko gauzak artzen. . . eta abatak Bizkai'ko Jaunaren laguntza eskatu eban eta onek ostua biurtzera beartu ebazan.

1388n. urtean Gernika'ko Batzarrera aurkeztu eben laguntza eskatzeko eta or agertzen da zeintzuk ziran Ziortza'ren ondasunak: 103 kortabaso Amalloa'n, Gaztiburu'n eta Oiz'en. Gernika'ko batzarrak onartu eban Ziortza'rentzat kortabaso guzti orrein jabetza eta arlo orreik ondo landu ziran zugtazez jantzi eta askotariko aberez betetuta.

Amar urte geroago Bolibar'etik artutako beste berrogeta bi kortabaso sartzen dira euren izenpera.

1386n. urtean I Juan'ek Ziortza'ri emon eutson Bolibar'en zaintza

Ziortza'ko kanonikuak, abatagaz batera, gaiso-etxe bat eregitea erabagi eben. .  
Orretarako oletako jabeak batu ziran eta Bolibar'eko eleizan egoan jabe-liburua ikusi  
eben eta berrogeta bi kortabasoren jabe zirala agertzen zan.

**Olazar'tar Martin'ek**

# BEREIZTASUNA'ri LOTSA

## AURKEZPENA

Europa ta Espaina`ko Laterri onetan, gogo edo asmo barri bat esan leike asi dala urduritasun guztiaz mugi-aldian.

Gizartean, urduritasuna egotea ez da arrigarria, gizarteak berak, artu dauan erabagiaz, ez dakialako oraindiño, noraiño eroango dauan, artu dauan ardurazko ezkeintza barri orrek.

Dana dala, artu dauan erabagia ona da, eta garai egokienetako baten.

Baiña. . . , zergaitik Urduritasuna. . . ?.

Español sendimenduan dagozenai batez-be, erdira-zaleko guzur aundietan, batzuen egokitasunerako irakatsita dagozelako.

Eta sendimendu orren guztiz aurka, izatasun onetan agertzen dalako demokrazian sakondu egin ezker, gero ta geiagoko zeaztasunak eskatzen dabezelako, danon arduratan lotsagizun aundiz, arrazoiak eskatzen dauan bereiztasun arteko ordezkartzaren eskubide ta bete edo egin bearrezkoak, ondo zeaztuta geratu daitezcan.

Eta eginkizun orregaz, erdirako zaletasun ori ezereztu egiten dalako.

Orduan. . . , zergaitik onartutako erabagia. . . ?.

XVIII`n gizaldian Europa guztian, bereizitasunaren aurka espatearen indar guztiaz ipinitako, diran menperatzaille ta erdirakoi Laterri oneik, gaurko gizartean eta jaurkintzazko arau onekaz, ezin dalako aurrerantza egin, bear dan zuzen eta zeaztasunezko arloan.

Askeneko lau urte oneitan, lar ikusi dogu, jaurkintza orrek euki dauan gaieztasunagaz. Danon ardurak indarkeriz, esku batzuetan bakarrik lotu ezker, besteak, arduragabekoak agertzen diralako.

Joan gaitezcan ba ikertzen, zer sortzen dan Europa ta Espaina`n, gero, Euskadi`ren arazoetan sartu gaitezcan.

## EUROPA`n

Europa`ren barruko gogoan, demokraziaren sakontasunak beartuta, ba-dago aspalditik oldozmen edo gogapen bat, arduraren arloak zabaltzeko, Europa`ren zeregiñak erreztu daitezcan.

Gogapen oneik, nai-ta naiezko bide bakarria daukie demokrazian jokatu gura dan ezker. Bereizitasunaren arloa da ori.

Nortasunaren arlora esan gura dau orrek, ez dagoelako beste lekuri, berezko errietan izan ezik.

Europa ta Mundu onetan, Eurak bakarrik diralako legezkoak, edo Nortasunean norbait ! legezko maillan, berez-izatezko gizakitan, bazkunean ta errietan.

Etsai aundiak daukaz oldozmen orrek, XVIII`n gizaldian ezarri ziran Laterriak, gaurko Laterrien bizi-bidea lez, eginkizun bardiña daukielako.

Diruaren kontrolagaitik egiten dabe guzti ori. Eta geienean, esku gutzitan egon daiten.

Beste goi-maillako gizaren betiko ameskeritan ?

Edesti guztian egin dabe bardin, antolamendu on-baten aitzakiagaz, jaurkintzak, erlijioa, dirua ta gudaloztearen indar guztiak eskuratuta.

Azkeneko goi-maillaraño eldu dira, Laterriak, berezko erri-maillan ezarri gurean. Baiña. . . ? Laterriak Erriak dira. . . ?. Noren borondatez onartuak. . . ?. Or ! daukaguz erromatarrengandik asi-ta, betiko menperatzaillle ta berezitasun arteko borroka latza.

Giza, arduradun jaiotzen da, eten-bako berrizkuntza baten, eta ez dau onartzen, batzuk oparotasunean eta beste batzuk txirotasunean bizitzea.

Orregaitik, gizartearen berrizkuntzako arduran, gero ta indar geiagorekin agertzen dira, bakearen egarriak. Ez daukalako iñungo zentzurik gabiltzan eztaibadakaz. Mundu onetako diru ta mozkin guztia, batzuen kontrol-pean eukitearren.

Alan dala, atzoko Deian (2. 004`an Jorrailla`ren 18`ko igandean) irakurri neban "EFE" albiste-bidetik batuta Europa`ko batzordearen (Comisión Europea) lendakaria dan Romano Prodi`k esandakoa: " en el día de ayer advirtió Prodi, de que las regiones que dejan de pertenecer a un país comunitario y se convirtieran en un estado independiente, cesarian de formar parte de la U. E. "

Asi, explico Prodi, " que el territorio independiente, pasaria inmediatamente a ser considerado un tercer país con respecto a la U. E. y los tratados comunitarios dejarían de ser de aplicación".

Ori ez da PP`koak guri esaten dauskuena.

Guri, PP`koak keiñuka esaten dauskuena: " U. E`gandik kanpoan geratuko giñela " askatasunaren aginpidea artu ezkeru.

Eta esan-ori, betiko lez, guzur utsa da.

Guk, Laterriaren erkidetasunetik urten ezkeru, eskubide osoko erri artean edo sorterrien antolamenduan sartuta geratuko giñalako. Euskadi Europa`koa dalako eta zaarrena gaiñera.

Orregaitik, zeozer asi da mugí-aldian, eta ez da gitxi, daukaguzan Laterri erdirakoi oneik, berezkitasunaren guttiz etsaiak diralako.

Begitu bestela, Amerikarren gandik asita ta beste Laterri-menperatzaillleakaz batera, zelan gura daben Munduko mozkin ta diru guztia euren kontrolpean euki, Mundu guzti onen erri-arteko buruan O. N. U. `ren jaurkintza ipini gure dana, Munduko erri-artean antolamenduzko epaiketetan lan egin dagian bakea lortzeko. Zelan urruten diran, eurak gaiñetik geratuta, indar geien daukielako.

Amerika`n, dagozan amerikarrak Europa`tik joaneakoak dira, eta Europa`ko Laterrien legearekin, orregaitik berezko legearen aurrean daukiez gure arazo bardiñak.

Alkartu egiten dira, baiña ezin dabe lortu, guzurak nun-nai agertzen jakiezelako, berezitasunezko legeen kanpo aldetik ibiltegitik.

## **ESPAINA`n:**

Espainia`tarrak, erdi-aro`ko denbora luzetatik ibili dira beste erriak ezereztu naian eurak izateko.

Eta eziñean, XVIII`n gizaldian gudaren bidez asi-ta XIX`n gizaldian lortu eben espatakaz laterrizko menperatasun ori.

Europa`ko erriak eta Euskaldunak batez be, ez eben alboratu, euren askatasunezko demokraziaren egarria, eta iru guda-latz-garri ostetik, ostera be gagoz eskaera bardiñarekin.

Gaurkoak, ez dira lenagoko denborak, billakuntzan, barrizatzerako argi-bideak, ezin besteko azkartasunean, Mundu gutziko gizartea, bereala ipinten daualako jakin-arazian.

Eta begitu, erritarrak zelan konturatu diran azkeneko atezkundeetan, Espainia`ko jaurkintzatik PP`ko guzurtiak atarateko.

Denbora barri-baten esan leike gagozela, Zapatero`ren berbakaz, itxaropenezko atek zabaltzen diralako. Nai-ta berak esan arren, Espaina beren aberria dala.

Ikusi bear. . . , Laterri-menperatzaillerean indarrak aundiak diralako.

A-ta guzti, ni itxaropentsu agertzen naz, Sozialismua`ren jaurkintzak Zapatero buru dala, U. E ta O. N. U. `ren demokrazizko antolamendu barriagaz jokatu gure daualako, eta beren esanetan: " oso osoan, demokraziaren zeaztasunetan sinisten daualako " .

## **EUSKADI`n**

Gaur, iñoz baiño geiago, alderdikeri ta gizon/emakumeen arrokeri ustelak alboratu egin bear doguz, danon arteko zuurtasun ekintza baten.

Danok, Euskadi`ren elburuari begitu bear dautsagu, gure indarrak, benetan onbizkoak izan daitezcan.

Eta ezin dogu lotan geratu, iñoz baiño geiagoko lan aundia daukagulako aurrean.

Gure askatasunaren arazoak, erria jasotzea, gazteak jakintza aundian ezartzea, espetxeratuak etxera ekartea eta abar, ezin diralako lortu, gure lana, zeaztasun ta zuurtasunezko ekintza baten ez bada ezartzen.

Emen, Agirre ta Lekube`tar Jose Antonio`ren jaurkintza gogoratzen dot, egin eban zeaztasunez zuurtasunezko ta eten-bako lana, arrigarrizkoa izan zalako. Danak ! erri ta jaurkintza buru-belarri alkartuta elburua`ri begira, ezin beste sinismeneko ekintza baten.

## **EUSKALERRIA BETI BIZI DA EUROPA ONETAN, BERA ZAAARRENA IZAN DA:**

Orregaitik erakutsi bear dautzagu bakezko gizon/emakumeak garala, borroka barik, baiña indartsu eta ezeren gorroto barik.

Gure Jose Antonio`k esaten eban antzera. Bai-ta gure Gazte izkillatuak esaten ebazanek eriotzaren aurrean askeneko berbatan, "LUR-GORRI`k " adibidez:

"EZ NEGAR EGIN NIRE ERIOTZARI; ZUEN ARIMETAN BIZI DAITELA POZTASUNA, NIRE BIZITZAN BIZI DAN-LEZ, UNETXO ONETAN. NOLAKO EDERTASUNA ! "

"NIRE ERIOTZA-GAITIK EZ DOT-NAI GORROTOZKO APENTZARIK BAT-ERE. ABERTZALETASUNA TA ADOREA, ABERTZALETASUNA!. ORI DA! NEUK ESKATZEN DOTEN APENTZA BAKARRA "

"BETIRAUTASUNERA ARTE. AGUR. GAUR, IÑOZ BAIÑO GEIAGO MAITATZEN ZAITUEN ZUEN SEMEAK "

Or! daukagu Ibarretxe`tar Juan Jose`k, bere jaurkintzagaz atara dauan esondapena, "EBATU DAIGUN INDAR GUZTIAGAZ " GURE ERRIAREN NORTASUNEZKO IZENA, MUNDU`ko ta EUROPA`ko ERRI GUZTIAKAZ IDATZITA EGON DAITEN IÑUNGO ZALANTZA BARIK "

**Atutxa`tar Paul**

# BIXENTE FERRER SANTUA BIZKAIA'N

Balentzia'ko santua zan Bixente Ferrer eta taumaturgo edo mirarigille ospetsua, baiña ospetsuago oraindiño lurralde luze ta zabaletan bere misiolari-lana egin ebalako. Txomindarren ordenakoa zan.

1400n. urtean jaio zala esaten izan da edesti-liburuetan, baiña gure Labayru'k argi agertzen dau 1405n. urtean jaioa dala(III-6).

Abiñon'en artu eban baimena misiolari-lan aundi ori egiteko 1398n. urtean eta Zezilia deunaren egunean egin eban lenengo itzaldia

Urrengo urtean etorri zan Iberia onetara eta Kataluña'n jarri eban bere bizilekua amalau illebeten ta erdirako.

Gero Frantze-aldera joan zan. 1400n. urtean eta egoalde guztian egin eban misiolari-lana. Batez be Marsella'n asko goratu ziran bere itzaldiak. Gero Italia'ko iparraldean jarraitu eban amairu illebetean.

1404n. urtean barriro Frantze'n jarraitu eban eta lurralde asko ikertu ebazan bere lana beteteko

1406n. urtean Ingalaterra'n daukagu eta Eskozia ta Irlanda'ra joan zan . Emendik barriro Frantze'ra eta Balentzia'ra. Emendik Granada'ra ta Sevilla'ra, gero Toledo'ra igon zan eta 1408n. urtean etorri zan Euskalerrira. Ori agertzen da bere eskutizetan eta bera santu egiteko egin zan auzibidean eta bera bizi izan zan lekaide-etxeetako esku-idazkietan egunerik egunera.

Zentzuk izan ete ziran gizon ospetsu onek misiñoak emoteko aukeratu ebazan erriak?

Oneik bai beintzat:Gasteiz, Arrasate, Tolosa, Donostia eta Bizkaia'n, Araba'n eta Gipuzkoa'n lan asko egin eban.

Gasteiz'en lau juditz biurtu ebazan, Arrasate'n izurria baretu eban eta ez zan gaiso au geiago zabaldu berak berba egin eban ezker. Erri onetan Mikel deunaren anaidia sortu eban eta irauten dau.

Bariku guztietan zigortzen eban bere gorputza, eleizbideetan otoitzak eta bertsoak abesten ebazan.

Donostia'n eta Tolosa'n gaur be ezagunak dira bera bizi izan zan etxeak.

Berak jarraitu eban bidea, antza, Araba'n asi, Gipuzkoa'n jarraitu eta gero Ondarroa'tik, Lekeitio'tik Berriz'era eta Bilbao'ra izan zan. Emen Santiago parrokian berba egin eban eta Agurtza deunaren anaidia sortu be bai eta bere irudia ipiñi eben itz-tokian. Begoña-ondoko Domingo Deunaren baseleizan egon zan(Meazabal).

Zelakoa ete zan Bixente itxuraz?

Goiera aundikoa, gorputzez ondo ornidua, aurpegi ederrekkoa, bekokia zabala ta baketsua, buru ondo neurtua, gaztetan ulegorria eta gero ule-illuna, begi aundiduna, ago ondo ebagia, margo osasuntsua baiña artutakoa nekeak auldua, . . . benetan itzalgarria, abots dunduritsua, begirakune gozoa eta itzaltasunezkoa, bere barruan batua eta guztiai berba egiteko barrekaria. Bizarduna eta bizarra ulea baiño illunagoa, :bost ordu egiten ebazan lotan, ibilli oiñez edo bere astotxuan, ez eban iñoz jaten lenengo janaria baiño, eta bestea pobreentzat izten eban, berrogei urtean ez eban afaldu domeketan edo gaiso-aldietan izan ezik, uraz eta ogiaz barau egiten eban eguasten eta bari-kuetan.

Bartzelona'n Biblia ikasten eben eskolan euskaldun bat eta napar bat egozan:Urki-xo'ko Juan eta Tafalla'ko Fernando.

Jakingarriak, benetan, gure santu onen izaerea ta jokabidea!

**Olazar'tar Martin'ek**

# IZARO BERMEO'N

Izaro ugarte txiki bat da, 300 urrats luze, Bermeo'tik zazpi km'ra eta Mundaka'tik bost km'ra, eta Ogoño aitz aunditik iru km'ra.

Barruan Andra Maria'ren eleizatxu bat egoan D. Diego Lopez de Estuñiga'k Kalagurri'ko Gotzaiñari emona 1422n. urteko otsaillaren 27n. egunean, Bermeo'ko lekai-de-etxean zan Arteaga'ko Martin arduradun zala.

Barruan egoan Andra Maria'ren irudiari oneraspen aundi eutsoen arrantzaleak eta inguruko guztiak eta estualdietan berari dei egiten eutsoen.

Lamiñak eta lekaideak dirala-ta kondaira asko sortu dira eleiz onen inguruan.

Kalagurri'ko gotzaiñaren baimenaz farntziskotarren lekiadetxe biurtu zan eleizatxua eta andik bost urtera V Martin Aita Santuak onartu eban eta Izaro'ko Frantzisko deuna artu eban izena.

Lenengo nagusi izan zan Arteaga'ko Martin urreratu zan V Martin Aita Santuagana eta esan eutson zelan Bermeo uriak eta uritarrak emon eben monastegia eta Farntziskotar arau estudunak bizi zirala bertan eta baiezipena eskatu eutson antxe bizi izaten jarraitzeko eta bear ziran idaz-gelak eta lo-gelak egiteko eta iraspen oneri dagokiozan eskubideak, lege bereziak askatasuna eta zergagabetasuna emon dagiozan, beste frantziskotarren etxe batzuk daukezan antzera eta Aita Santuak 1427n. urtean baimena emon eutson Lara artxidiakonoari, barri guztiak batu ondoren, onartu dagian eskari ori eta etxegintza-lanak egiteko baimena emon dagion eta eskubide guztiak ezarri dagiozan lekaide-etxe barri oneri.

Ogei lekaide bizi ziran etxe onetan eta bizitza latza eroien orretarako bertako bakartasuna lagun zala. Sarritan egoten ziran ogirik be ez eukela, ekaitzak arrantzaleen etorrerea galazoten ebanean

Estu-aldietan kanpai-lekuan zapi zuri bat ipinten eben.

Toki ospetsu eta gizon santu askoren bizileku biurtu zan Izaro eta ortik urten eben beste leku askotarako arauak.

IV Enrike erregeak eskubide asko emon eutsezan lekaideai eta I Isabel, "Katolika" deritxonak ikustaldia egin ebanean 254 mailla daukazan mailladia egiteko agindu eban itxasotik lekaide-etxera eldu-arte.

Lekaideen janaria ogitxuak, bedarrak, eta arraiñak ziran eta ugari eukiten ebezan euren sasoi an millak abiak egiten ebezan kaioen arrautzak be. Ainbeste kaio ebi-lalako, lau zatitan egoan etxe aretatik urteten ziranean, makilla bategaz bidea egin bear izaten eben kaioen artean

Lekaideen ardurea gabaz eta toki egokian argi bat ipintea, arrantzaleentzat eta itxas-gizonentzat itxas-argi izan zedin. Lan ori egiteagaitik saria be artu eben iñoz.

Bizikera gogor onetan ezin iraun izan eben gizaldietan eta toki ori itzi egin bear izan eben. Lekaideak Foru'ko Lekaide-etxera sartu ziran 1715n. urtean.

**Olazar'tar Martin'ek**



# EUSKERA TA JAPONEREA

Ba-dakigu euskera batzaillea edo “aglutinnte” dana, izkuntza lez, eta japonerea be orrelakoa da. Orregaitik, ikuspegi orretatik bergiratuta arin somatzen da ba-dauke-la alkarren antza, baiña beste gaitxu batzuk zeaztu daiguzan.

Bein baten gure Azkue aundia Tours'en egoan bere iztegia irarten eta Japon'en egoan josulagun misiolari bat urreratu jakon: eta onek japonerearen eta euskerearen artean antzeko gauzak aurkitzen ebazala esan eban. Beste barik, etxeko nagusiaren aolkuz, Azkue'k eta josulagun misiolariak alkar-izketa bat gertatu eban.

Egun baten, esan eban, euskaldunen artera japondar bat sartu zan eta onelantxe agurtu ginduzan:

– Kore bakarida

Gugaz egoan euskaldunak esan eban:

– Nik ori ulertzen dot: “Ori bakarrik da”. Nik ez dakit japonerarik, baiña ori euske-ra dakianak ulertzen dau.

Ori entzunda, Azkue aundiak Paris'era idatzi eban eta japonerazko gramatika bat eskatu. Ortik atera ebazan emen doazen amairu antzerak.

1. <sup>a</sup> “Kore”: Erronkari'n “kori” esaten da eta Euskalerrri osoan “hori”.

2. <sup>a</sup> “Bakari”, gure “bakarrik” bera da.

3. <sup>a</sup> “Are” edo “kare”, Irugarren norkiaren izen-ordea da, “aren”.

4. <sup>a</sup> “Me” aurrizkia da eta “emea” esan gura dau, “neko” katua da, “meneko” “katu-emea”.

5. <sup>a</sup> “Sima-sima”, ugarteia baiña bitan esan ezkeru ugarte guztiak. Euskeraz be gauzea bitan esaten danean gorengoa izaten da: “Eder-ederra”, “ordu-orduan etorri da”.

6. <sup>a</sup> “konomi” “maitatu da txikiago bateri berba egiten jakonean, baiña orrelan ez danean, “u” izaten da azkena; euskeran be sarritan “u” izaten da azkenean, aditzetan be bai.

7. <sup>a</sup> Euskeraz “zuka” egiten dogu berba, baiña beragoko maillan dagozenakaz “ika”, eta itzaltasuna bear danean “berokika”. Japoneran be iru mailla dagoz: egune-rokoa, idatzia eta eskutitzetakoa, iru izkuntza ezberdiñak dirudie.

8. <sup>a</sup> Zenbakiak, batetik bederatzira azkenean “tu” dauke, hititu/bat, futatu/bi. . . baiña euskereak “bida”ri urrengoa izena danean “da” kendu dautso eta bardin japoneran be azkeneko “tu” kendu egiten da urrengoa izena danean.

9. <sup>a</sup> Euskeraz “n”ren ostean “t” datorrenean, “d” biurtzen da. Bardin japoneran be.

10. <sup>a</sup> Guk “txori” esaten doguna eurak “tori” esaten dabe.

11. <sup>a</sup> Aditz-laguna sortzeko “-to” artzen dabe, esaterako zutto/artez, guk lez: “eder-to”.

12. <sup>a</sup> Berbearen asikeran ez dauke “r”rik, guk be ez.

13. <sup>a</sup> Antzekoak diran beste itz batzuk oneik dira: Akita/akitua (nekatua), anae/anai, borokeru/borrokatu, da/da(es), txitxi/titi, utxi/etxe, nuhsi/nagusi, musuko/mutiko. Tokunoshima ugartean “ama” eta “aita” esaten da euskeran lez.

**Olazar´tar Martin´ek**

# ARAGOI'KO IZEN EUSKALDUN ZARRAK ERDIARO GARAIEAN

850'ko larruki bat

\*

Esan dezadan lendabizi, larruki au Aragoi'ko euskal-izenei-buruz azalduko ditudan beste guztiak bezala Yondoniane'ren Piña'ko lekaidetxeko Kartulariokoa dala.

Kartulario ori, nik, Antonio Ubieto Arteta'k 1962'ean Balentzi'n argitaratu zuan "*Cartulario de San Jaun de la Peña*" liburuan dagoan bezala erabiliko dut. Jaun ori bait da gai auetaz geien dakiana.

Alare, Obieto'k berak aitortzen duan bezala, oso lan ederra da On Manuel Magallón y Cabrera artxibuzaiñak Piña'ko dokumentuei-buruz egin zuana, asko ta asko bait dira ematen dituan albiste arras jakingarriak. (Ikus Madrid'ko "*Revista de Archivos, Bibliotecas y Museos*"en –1903-1904– argitaratutako "*Colección Diplomática de San Juan de la Peña*").

\*

Larruki arras laburra eta txit ulert-erreza dugu IX mendearen erdi-erdiko au.

Bere "idazleak" Iruña'ko Erregea, Iruña'ko Gotzaia ta Leire'ko Abata dira –e euskaldunak iruak–, eta bere zergaitia, Fonsfrida'ko lekaidetxearen sorkuntzaren eta lekaidetxe orri eman zitzaizkion ondasunen berri legeagandiko indarrez aldarrikatzea.

Fonsfrida, euskeraz, Iturriotz da, eta orixe izango zan ezpairik gabe bere izena IX mendean guztia euskalduna zan Aragoi'ko iparralde osoan.

Larrukia latinez dagoalako latinez eman zigun idazle zar arek Iturri Otz orren izena, eta are geiago, izen ori latinezko deklinabidera sartuz, bi era ezbediñez jarri zigun larrukian izen:

– **FONTISFRIDE**, genitibu edo norenkeran: ". . . *fecerunt ecclesiam Sancte Marie Fontisfride*": ("Iturrioz'ko Miren Deunaren eliza egin zuten").

–  **FONTEFRIDE**, ablatibu edo nonkeran: ". . . *fecerunt regulam monasterium nomine Fontefride*"; ("Iturriotz'eko lekaidetxearen araudia egin zuten").

\*

"Ipsi tres fecerunt": "Iru gizon ospetsu aien ekintza" izan zan ori, ots. lekaideek otoitzerako bearrezkoa zuten **elizaren eraiketa**, eta alkarrekin bizitzeko bearrezko zuten **araudi** edo erregelaren eraketa. "

Baiña lekaidetxe batek eliza eta araudia beiño bearrezkoagoak ditu **lekaideak**.

¿Lekaide-bilketa ere iru gizon ospetsu aien lana izan ote zan?

Ez. Lekaide aiek antxe bertan, Iturriotz'en inguruko mendietan, bizi ziran aspaldi, baiña alkartu gabe, bakartasunean.

Iru gizon aundi aiek egin zutena ez zan au besterik izan, –naiz egin zuten ori bera ere naiko ekintza bikaiña izan–: lekaide aientzat, alkarrekin bizi zitezen, eliza eta araudia gertutu; eta lekaideek Erdiari Garaiean bereiziki gizarte osoaren alde eta batez ere gizarteko beartsuen alde egin oi zuten lan ederra Iturrioz'koek ere egin al zezaten, lekaidetxe berri ura, bearrezkoak izango zituan ontasunez aberastu.

\*

la berdiña da kristaudi guzian lekaidetxe zar geien-geienen sorketaren edestia:

Aurrena, III mendearen azken-aldi eta IV'aren asieratik, bakartiak sortu ziran, ugari gaiñera, Eliza-baitan. Mendietan, basamortuetan, tokirik izkutuenetan, bakarrik, banaka-banaka, bizi ziran, bakoitza bere kasa, otoitzean eta garbai edo penitentzi-gintzan. "Anakoretak" esan zitzairen elenerazko itzez.

Gero, ain bakartasun gorritzko bizierak, arriskuak bazituala-ta, anakoreta aietako askok, –ez danak, gaur bertan ere bakartiak bai bait dira– alkarrekin bizitzea erabaki zuten, ortarako, adibidez, beren txabolak esitutako alor baten barruan eraikiz, eta abata edo danen gaiñeko zuzendari bat aukeratuz: Zenobio esan zitzaion alkarte aietako bakoitzari.

Zenobio oien barruan bizi ziranak egiazko anakoretak ziran oraindik, bakoitza bere txabolan, eta bere kasa, bizi bait ziran, alkarrekingo otoitzarako biltzerakoan izan ezik. Gaiñera, beren eginbearrik nagusienak, len bezala, bakartasunean Jaungoikoarekingo mistik-otoitza edo kontenplazioa, eta garbaigintza ziran: abata arek ez zuan egiazko aginmenik. Bere eginkizuna, alkarrekingo otoitza zuzentzea ta zenobikideen osasunaz, norbait gaixotzen zanean arduratzea, eta iñork aolkurik eskatzen ba'zion, aita baten eraz ari erantzutea.

Geroago Zenobitegi aiek Lekaidetxe biurtu ziran batez ere Basilio Deunaren eraginēz Sortaldean eta Benito Deunarenaz Sarkaldean. Lekaidearen birtuterik nagusiena, abataganako mempetasuna izanen da, orotan abataren esanera egotea, aren baimenik gabe ez bait dezake deus egin.

\*

Euskalerra Zar osoan, arras ugari izan ziran bakartiak. ¿Noiz dandik?

Ospetsuak izan ziran Araba'ren gerri-aldeko mendietan VI eta VII mendeetan, mendi-maldan eskuz irikitako leiza-zuluetan bizitu ziran ainbeste eta ainbeste aiek. Zulo oietatik asko gaduak dira ekaitzen eta industriaren erruz, –burni-urketak ondarra bearrezkoa bait du–, baiñan oraindik aski ugari dira irauten digutenak.

Orrenbeste diralako, Latxaga'k, Frantzi'ko unibersitateetan irabazitako iru doktoretza dituan Euskerazaintzako zientzi-gizon anitz jakintsuak, leiza-zulo oiei-buruz aspaldi idatzitako liburu batean "La Capadocia Alabesa" izen eman zion (zulo oien kopuruari). Anatoli'ko Kapadozi'n bait dago munduko zenobitegirik aundiena. Araba'ko zulo oiek VI eta VII mendeetakoak dira. Baiña nere ustez zarragoa da euskaldunen bakartasunezko bizitzaren zaletasuna.

Noizkoa?

IV mende ber-berekoa.

Orduangoa da bâ Prisziliano, izen aundiko erejea. Bere erejirik nagusiena, agian bere ereji bakarra, au izan zan: bakartasunezko bizitzari ematen zion geiegizko garrantzia.

Orra bâ: Prisziliano Euskalerraren sortalde eta iparraldera etorri zanean, pozez txoraturik onartu zuten euskaldunek. ¿Zer esan nai du orrek? Ordurako izugarriki aundia zala euskaldunen anakoretasunareko joera.

Agian ori bera esan nai du, Elizak Priszilitasunaren aurka egin zituan kontzilio biak Euskalerra Zarraren muga-mugetan egiñ izateak: Euskera ia arresi ber-beretaraiño iristen zitzairen Salduba (Zaragoza)'n aurrenekoa, eta euskera bere karriketara aski sarturik zeukan Bordele'n bigarrena.

\* \* \*

Igaro gaitezen aztertzen ari geran 850'eko larruki ontan agertzen zaigun toponimiari ikustaldi bat ematera:

– SARDASO: Piña'ko kartularioan sarritan agertuko zaigun izena da: adibidez "Sardaso et Fonte lata" 964'ko apokrifo batean. "Illum montem qui dicitur Sardaso" X mendean 905'tik 925'ra idatzitako larruki jator batean.

Len ere agertu zaigu izen ori, 828'an, beste dokumentu jator batean: ". . . usque ad sumum Furkala, et Sardaso et Fontelata et illa pardina Laqunala" (Furkala'ren goia, Sardaso, Fontelata eta Lakunala deritzan larretxo artaraiño"). Eta urte bereko apokrifo batean "et Sardaso et Fonte lata et illa pardina Lacuniella" ("Sardaso, Fonte lata, **Iturrizabal**, eta Lakuniella izeneko larretxo ura").

Mintzatua naiz izen oietaz. Orain, berriro agertu zaigun Sardaso'z esan nuana oroitutai nuke. Eta baita, gero, emen agertu zaigun LAKUNALA'z ere zerbait esan nait nuke. **LAKU** antziña-antziñako sasijainko euskaldun baten izena bait da.

Ona, emen, Sardaso'z esan nuan ura, eskuidatzi-itxurako izkiz:

\*

SARDASO: Egin dezagun zati bi izen ori: Au izango gen uke aurreneko zatiketa: "Sar"- "d'Aso", eta beste au bigarrena: "**Sarda**"- "**So**".

Bigarren zatiketa ontako, "SO" edo "TSO", edo berdin dana, "TSU", zer dan bada-kigu. Atzizki ugaritasun adierazlea. Adibidez, "menditsu", mendi askoko tokia da.

¿Zer ote da SARDA?

Artajona'tik egoruntz, Naparro osoan "sarda", berez jaiotzen dan belar motzeko erdi-mendi erdi-eremuari esaten zaio. Orregatik erri askotan aurkitzen da izen ortako lekuren bat.

Baiñan Artojaona'tik iparreruntz ere, izen ori badagerkigu toponimiak: Naparroa'n Iruña'ren alboan, **Iza** Araneko **Erize** deritzan errian Sarda, toki-izena da.

Gipuzkoa'ko Aretxabaleta'n, **Sardaleta**, baserri bat dugu;

**Sarday**, Zubero'n, lats edo errekatxo baten izena. Sardea, berriz, Naparroa'ren erdialdean erri bat, gaur, ezabatua, baiña XII mendean, jende guztiak euskeraz itzegiten zuan tokian, Añezkar eta Oteiza erri bien artean, bizirik zegoana.

Beraz, ontzat bigarren zatiketa ori artzen ba'dugu, SARDATSO'k "larre motz ugarriko lekua esan naiko luke". Gazteleraz "jaral".

\*

Baiña SARDASO'rentzat egokitzen aurreneko zatiketa, "Sar-d'Aso" ura, artzen ba'dugu ¿zer?

Bâ, zatiketa ortako Sardaso "Aso'ko Sar" izango litzakela. ¿Zer ote dira "aso" ta "sar"?

Esan dezadan aurretik, "Sardaso"ren itxura aundiko erri bat badala gaur Araba'n:

**SARATXO**, eta erri ori, berak bezala Saratxo izen-duan lats baten alboan dagoala.

Saratxo, ordea, **SARASO**'ren diminutibu edo ttipiera da.

Eta izen bi oiek, Araba'ko SARASO eta Aragoi'ko SARDASO ¿ez ote dira izen bat bera?

\*

"SAR", nominatibu edo izen-keran "SARA" dugu: "A" atzizkia "E" egiten duten tokietan, "SARE". Bâ, atzizki edo aurrizki bezala "SARA" edo "SARE" daramaten abizen eta tokiizenak, pillaka dira gure Euzkadi ontan. Bere esannaia gaztelerazko "dehesa", euskerazko "larre" izan daitekeala dionik bada. Ez zait oso etimologi zuzena iduritzen.

Ta "ASO"? Zer ote dugu Sar-d'Aso ebaki dugun itz ortako "Aso" ori? Euskal-izetan ugari agertzen da. Batez ere Bizkai-aldeko tokietan. Adibidez Asola Eibar'ko abizena da. **Asolamendi** Mungi'ko mendia omen da. **Asona**, XII mendean, Bizkaie-raz itzegiten zan tokian, Bitori'ren ondoko **Oreitia**'n toki izen bat zan. Ason Bizkai'ren sarkaldeko mugatik bereala, Autrigoitarrena izandako lurretan, ibai baten izena.

Ta, Bizkaierak, beste euskaldun guztiok "aitza" esaten diogun arrizarrari "atxa" esaten bait dio. . . , nik "aso" ori "atx-o", gazteleraz "rocoso", dala esango nuke. . . ,

aztertzen ari geran larrukiko SARDASO Euskalerrriaren sortaldean ez baiña sarkaldean, Bizkaiera itzegiten dan tokian, egon ba'litz.

*Beste batzuek "ASUN"dik etorri daitekeala diote. Ez dut uste, "U"tik "O"ra ez bait da biderik, bide ori "nekerik txikiaren legearen" aurkako bidea izango litzakelako.*

Alare, ez nintzake oi uundiegirik egitera ausartuko, "ASUN" orren erarik zarrena ASUN izan bait daiteke, larrukia idatzi zanerako ASUN biurtua. **Ordurako oso zarra bait zan gure Euskera.**

*Nere azken-itza?*

*– Larrukiak damaigun "Sardaso" etimologiz "Sardatso" izan daitekeala iduritzen ba'zaigu, izen orren esannaia "lugar de monte bajo" izango litzakeala, gazteleraz "jaral".*

*– Bere etimologia Sar-d'Aso lez egokiagoa iduritzen ba'zaigu, nik au besterik ez nuke esango: Sardaso "Atxadiko Sar" edo "Atxadi-Sar" dala: "Sar del Rokedal", ez bait dakit "SAR" ori zer izan daitekean.*

Etimologi orrek ordea –aditzera eman-berri dedan bezala– badu bere aurka eragozpen mardula ontzat artua izateko: ATX, sarkaldeko euskeraz, ots, gaurko Bizkaieraz bakarrik, dala "roca"; beste Euskera guztietan, (erdikoan, iparrekoan eta sortaldekoan), "roca" euskeraz esateko, ATX ez baiña AITZ erabiltzen bait dugu. Eta jgure SARDASO, berriz, orduango Euskalerrri Zarraren tokirik sortaldekoenean egon: ¡Aragoi'ko Jazetani'n!!!

Alatagutziz, ezpairik gabe Sar(d)aso edo Sar(d)atso, Saraso edo Saratso, eta Saratxo irurak itz bera dirala dirudialako, eta beren egiazko kera nik SARASO dala uste dedalako, eta "sarats" gazteleraz "sauce" esaten dalako, eta Saraso edo Saratxo'ren azkeneko "o" ori atzizki ugaritasun adierazlea dalako. . . , bere esan naia "saratsa dagoan tokia", gazteleraz "saltzedo" dala esatera. . . , ausartzen nauzute!!!

\* \* \*

**LAKU.** Sasijainko baten izena. Sasijainko euskalduna. Zarra. Erromatekoa. Bada-kigu ziur, Naparroa'ren erdian, Ujue'n eta uri orren iguruan euskadunek jaiera aundiz gutua izan zala. Ujue'n agertu bait da gure Asabek an eraiki zioten aldarea<sup>1</sup>.

*Aldare ortako "ara" edo arri-olak onoko itz auek daramatza zulagailluz idatzirik: "LAKUBEGI DEO".*

*Latiñez idatzitako bi itz oietatik, bigarrenak, egiaz latiñezkoa danak, "DEO"k, ez du zailtasunik zintzo ulertua izateko. "Deo", "datibu" edo norentzat-era bait da. JAINKOARI esan nai du. Gazteleraz, "AL DIOS".*

*Lenengoa, LAKUBEGI ori da, zintzo ulertua aal izateko aski zailla. Iru bait dira irakurria izan daitekean erak.*

*– Bat: Lakubegi itz bat bakarra ba'litz bezala. Era ortan jainko aren izena LAKUBEGI izanen zan, eta aldare-olako idazkia "AL DIOS LAKUBEGI" gazteleratu bearko genuke.*

*– Bestea: "Laku" eta "Begi" idazleak alkartu zituan bi itz ba'lira bezala. Erromatarrek itzen artean lerrotxo bat sartzea ez zuten oiturazkoa; baiñan gauza errez ulertze-ko, gaur oiturazkoa dugun eran, bi itz oien artean lerrotxo ori sartuko ba'genu, LAKUBEGI irtengo litzauguke.*

<sup>1</sup> LAKU gure jainko jentillaz "Euskerazaintza"ren LII zenbakian zer bait esan nuan. Gaur albiste batzuk erantsi nai nizkioke orduan esanari. Geixeago jakin duanari ez zaio gaiki etorriko nere "La España que la Real Sociedad Bascomgada de Amigos del País Quiso Regenerar" liburuak 239'garren orrian daraman Eraskiña irakurtzea,

Baiñan lerrotxo orren aurreko LAKU genitibu edo norenkeran eta ablatibu edo nonkeran izan bait daiteke ulertua, ez degu oraindik jainko zar aren izena jakiteko ezer askorik aurreratu.

Lerrotxo ablatibu edo nonkeran bezala artzen ba'dugu, onako irakurkera au irten-go zaigu: LAKU'ko BEGI JAINKOARI. "**Al dios BEGI de LAKU**". Irakurkera ortan jainko aren izena BEGI da. LAKU, jainko ori bizi dan tokia besterik ez da.

(¿Laku ori gaztelerazko "LAGO" ote da? Askok esango dizute baietz, baiñan atzi-peturik dabilta. ¿Zergaitik diodan ori? LAKU itza euskal-toponimian aski ugari agertzen zaigulako, eta, geienetan, munduaren asierako "pantalasa" aren aroa bukatu zan ezker, sekulan osin txiki bat ere izan ez duten tokietan).

Ori guztia "Laku" eta "Begi" arteko lerrotxo ori nonkeran artu nai ba'dugu.

Norenkeran artzen ba'dugu, oso ezberdiña izango bait zaigu idazkiaren zentzua: eta latindarrek ain maite zuten "iperbaton" edo "itzaldiaren-barruan-itzak-banatzeko-era" gogora ba'dakarkigu, oso ezberdiña izango zaigu iru itzezko esalditxo orren zentzua: LAKU JAINKOAREN BEGIARI. "**AL OJO DEL DIOS LAKU**".

Baiñan ¿eskaintza Ujue'ko euskaldun aiek Laku berari ez baiña Laku'ren begiari zergaitik egiñ ote zioten?

Agian, LAKU jainkoak bere duintasunik garaiena oro-ikusle-aal-izateko aalmena zualako. Ezer jakiteke gelditzen ez zitzaion IKUSMEN OROKORREKO jainkoa bait zan Laku: dirudianez, un dios OMNIVIDENTE izango bait zan euskaldunek gurtzen zuten jainko ura.

Ortik euskaldun "baskoi" aiek Laku'ren BEGI oro-ikusleari izan zioten jaiera.

Gauza jakiña da erromatarrek VASCONES naparrei esaten zietela. Baiñan ez ziran naparrak bakarrik Laku jainkoa gurtzen zuten euskaldunak, beste Euskal-Errietako toponimoetan ere agertzen bait da LAKU.

Ala, adibidez, agertu zitzaigu aztertzen ari geran 850'ko larruki onen aurretik, 828'ko beste bi larrukitan LAKU ren izena: LAKUNALA. Aragoi'ko toponimian:

LAKUNALA: LAKU-N-ALA: LAKU-REN-AALA, gazteleraz EL PODER DE LAKU. Jakiña bait da "N" atzizkia "REN" atzizkiaren laburpena dala ("aitan txapela"="aitaren txapela") eta "AL" berriz "AAL"ena ("al'badut"="aal ba'dut"="si puedo").

Argi ikusi dugu, beraz, sortaldeko euskaldunek bi duintasun gurtzen zituztela Laku jainkoagan: Bere **Ikusmen** orokorra eta bere **Aalmena**. Au ere orokorra, ezpairik gabe.

Baiñan goazen sarkaldera, Laku'ren aipurik garrantzitsuena, Araba'n, erromateko karistiarren lurreen bait dago: ARRIAGA erriko landa baten izenean. Landa orrek LAKUA bait du bere izena. Gazteleraz "LA CAMPA DE LAKUA". Euskeraz izen ori LAKU-LANDA biurtu dezakegu, ots, Laku'ren Landa.

Gaur, Arriaga Bitori'ren auzo bat da. Baiñan erdiaroan izen ederreko erria genduan, geroxeagoko Juntas Generales edo BATZAR OROKORREN aurretik an euki bait zuan bere egoitza Araba'ko AUTORITATE NAGUSIA izandako Kofradiak.

Ortik bere izena: ARRIAGA'KO KOFRADIA: "La Cofradía de Arriaga

\*

Atera ditzagun ondoriotxo batzuk:

- Araba'ko Agintari Nagusiak toki sagaratuan batzartzen ziran:
- Laku sasijaikoari eskaiñitako lurreen:
- An, X Alfontso'ren 1258'ko idazki batek egiztatzten digunez, Araba'ko jaunak eta andreak eskubide berdiñez alkartzen ziran.
- Ortaz, munduko gertakizun feministik zaarrenak, Lakua'ko Batzarrak dira.
- Pozik eta arro egon daitezke beraz Araba'ko emakumezkoak.

– Baiña ¿oartzen ote ziran Erdiario Kristauean Arriaga-Kofradiko Agintari ta Agintarime guren aiak beren batzarrak sasijainko batena zan landan egiten zituztela?

– Gero Araba'ko BATZAR OROKORRAK, Estibaliz'ko Andramari'ren zuzendari-tzapean egiten ziran

– Ibildeun edo prozesio dotore baten erdian ekarri oi zuten Andramari Estibaliz'tik Arriaga'ra.

– Antziñako Batzar Orokor aiak, esan oi danez, ez omen zuten baliorik Andramari'ren aurrean egiten ez ba'ziran, –ezta bertan egindako legeek indarrrik–.

– Beste iñon ez bezala eta "erregiñ" itzaren indar osoz da beraz Andramari Araba'ko erregiña: "Reina de las Tierras de Alava"

– Baiñan ¿Arriaga'ko landa artan Andramari Laku sasijainkoaren jarraille ote zan?

Ots: ¿Kristau-aroan Andramari'k izan zuan nortasun berezia, Laku sasijainkoak izan ote zuan jentillaroan?

\* \* \*

So-dagiegun orain Laku jainkoaren izena daramaten toponimo edo toki-izenei: izen ori, LAKU edo LAKUA, bait da gaur aztertzen ari geran toponimoetan garrantzitsuena gure Asaben sinispideekin zer-ikusi aundia dualako.

Esan dezagun beste ororen aurretik, LAKU eta LAKUA izen bat bera dirala, naiz LAKU bokatibu edo deikeran egon, eta LAKUA nominatibu edo izen-keran.

Ikusi dugun bezala 828'ko larruki bitan agertu zaigu, eta esan dugun bezala LAKU-N-ALA = Laku-ren-Aala: "**El Poder de Laku**".

LAKUAGA. Erronkari'ko Ustarrotz'en, toponimo edo tokiizena. Baita Erronkari ta Sarasaizu artean Atuzkarratz mendi-katearen muño garai bat. "**Laku-Aga**"k, "aga" goitza adierazten duan atzizkia dalako, **LAKU-dagoan-TOKIA** esan nai du.

LAKUARA Laburdi'ko abizena dugu, eta noizbait Laburdi'ko etxeren baten izena izanen zan eta leenago an bertako tokiizena, bata besteagandik etorri oi diralako aidetasun aundia bait dago orrelako izen oien artean. ¿Zer ote da **Laku-Ara**?

"Ara" "aran"en laburpena izan daiteke. "Ara" Euskalerriko toponimian "lur" izan daiteke. Era ortan "Ara-goi" "Aragoia", "Tierra Alta" "la Tierra Alta" izan daitezke, ala bait zan Auñamendi'ren azpiko Aragoi zar ura izen ori "Tierra Alta" "Ara" "Goia", izen ori Jainkoak daki noiz eman zitzaionean. Orduan ez bait zan "ARA" "GOI" artan euskera besterik itzegiten.

Euskalerraren biotz-biotzean dago ARALAR? "¿Ara-lar", "Tierra espinosa? ala ¿"Ara-larre" "Tierra de pastizales"? Ospetsuak bait dira Aralar'ko artzaiak, beren txabolak, eta gaztak?

Askotan ordea zailla de "ara" deramiketen izenen etimologia. ¿Zer ote, adibidez, Bergara?

"Aran", "valle" dala gauza jakiña da. Orrela, Lerida'ko Valla de Aran" "Valle de Valle" da, eta Araba'ko "Valle de Arana" "Valle del Valle"

Al! Ta ¿zer ote dugu LAKU-ARA? ¿Laku'ren Lurra?

LAKUNTZA: Napparroa'ko erri bat, BARRANKA'N. Orain Barranka'ri SAKANA esan oi diote. Ori, ordea, neologizko itz bat de, itz asmatu-berri bat. Nere ustez ordea Barranka izen euskaldun zaarra dugu. Saiatuko gera beste batean, bere etimología azaltzen.

"UNTZA" zer dan, danok dakigu. Erromatean untza, negu ta uda beti orlegi agertzen dalako, betikotasunaren ikurra zan, itxuraz beintzat ez bait da beiñere igartzen. Ala ibilte ziztaizkigun Erroma'ko gizon-emakumeak beren jaietan untzaz koroiatu. Ortik, euskeraz koroari deitzeko Buruntz neologizko izen polit egokia.

LAKU-UNTZA, ¿Laku'ren Untza"? ¿Untzaz koroiatutako Laku ote zan Lakuntza'ko euskaldunek gurtzen zutena? ¿Laku'k bereiziki untzaz koroiatu agertzen zan irudi bat ote zuan an toki sagaraturen batean? Danadala, "Laku" ta "Untza" bata bestea-rekin estu lotu irauten dute Lakuntza erriaren izenean.

LAKUTXA abizena da. ¿Lakuntza'ren ttipiera? Ez dut uste. "TXA", "etxe"ren laburpena bezala agertzen da Araba'ko toponimian (Txagorritxu, Txabarri, Ezkerrekotxa). Araba'ren auzoko Barranka'n, berriz, geienetan "ETXE" ren ordaz "ETXA" ikusiko dugu: Etxarren, Etxarri. . . Ortik kirten arturik, "Laku-Txa", Laku'ren etxea dala, esan-go nuke nik.

LACUESTA. Araba'n, LACALLE bezala, izen osoki euskalduna. Ez du gaztelera-zko "aldapa"rekin zer ikusirik: LAKU-ESTA. Zer dan ez dakidalako ezin izango dizut "ESTA"ren etimologirik eman, baiña gure izenen artean maiz agertzen zaigula bai: Esta-rrona, Esta-nga Naparro'an, Esta-nkona Bizkai'n. . .

Beraz, Laku jainkoak –bai omen zuan– ESTA ori zer arrayo zan jakin gabe geratu bearko dugu. Naikoa begigu, naiz zer zan jakiñ ez, izena beintzat euskalduna zuala jakitea.

LAKUSMONT. Araba'n gera berriro: Gaur Lakozmunte esaten zaion udalari Lakos-mont esaten zaio 1463, ko dokumentu batean. Baita 1776'ean ere Araba'ko "orde-nantza" edo "aginduen" Idazkian. LAKO-S-MONT zer dan argi dago LAKO-SEN-MEDIA

LAKUMBERE. Iparraldeko izen onek badu, Naparroa'n, kideko izen bat: Leku-berri. ¿Bi izen oietan ¿zein ote da zarrena? Nere iritziz Lakumbere, Leku-n-berri" k zen-tzu errezik ez duan bezala, "Laku-n-bere" k bai bait du: "Laku-ren-azpia".

"BERE", Iparraldeko abizen eta tokiizenetan agertzen zaigun atzizkia da. (Anti-masbere, Errotabere. . . ) Badu gure "BERA"rekin senidetasuna. Egoaldeko euskal-dunok "BE" edo, "PE" atzizkien bidez, adierazten duguna esan nai du: ("errotabe-re"="errotape"). Ortaz, "LAKU-N-BERE" k **"Laku'ren-pean" esan** nai du: Laku'ren azpian, Lakupean. Gaztelera-z, "Bajo Laku" edo "SOLAKU", erdera orren toponimian oiturazkoa dan lez<sup>2</sup>.

LAKUNAS. Bi larruki ezberdiñak dira izen ori damaigutenak. Zarrena 828'ko apok-rifo bat. Izki txikiz dakar onek izen ori: "*usq̄e ad lacunas*", "lacunas arte", izki nagusiz ordea bigarrenak, 964'ko beste apokriko batek: "*et inde a las Lacunas*", "eta emendik Las Lacunas"era. ¿Zer ote da "Las Lacunas ori"? ¿Gaztelera-zko "lagunas"? Ez dut uste. Jazetani'ko Etxo Aranean dago, Auñamendirik gogorrenaren barrura sarturik, eta an ez da ainzirarik: ez aundirik ez txikirik.

Larruki auek ain baldarki erabiliak izan diralako, or LAKU jainko jentillaren izena ikustea ez ote zaigu zillegi? LAKU-NAS.

<sup>2</sup> "Laku'ren pean" esatea baleike egoaldetarren batzuei esakizun arrigarrixamarra gertatzea. Ez ordea iparaldetarrei. Oroz itz auen bidez asten dan abesti errikoa:

"Lurraren pean sartu nindeke  
maitea zure ahalgez"



"Nas" edo "Nats" ori zer dan ez dakit. Larruki auek XIII XIV mendeetan ain lardas-  
katuak izan diralarik bertako izenen etimologigintza gauza zailla gertatzen zaigu.

\*

Baiñan guk emen azaldutako aipu oiek baiño geiago ditu LAKU sasijainkoak Eus-  
kalerriko toponimian. "O"k eta "U"k gure antroponomi ta toponimoetan bata bestea-  
ren lekua errez artzen dutelako, zalantzarik gabe esan bait daiteke onoko tokiizenok,  
LAKO, LAKOAGA, LAKOARAN, LAKOIZKETA (eta jzenbat oien antzeko geiago!)  
LAKU, LAKUAGA, LAKUARAN, LAKUIZKETA dirala.

\* \* \*

Emaiegun orain ikustalditxo bat aztertzen ari geran 850'ko larruki onek dakarzk-  
gungun toki-izenei

– PAMPILOMA, Gartzia Erregearen esakeran: "*Garsea rege in Pampilona*".

Era berean emango zuan seguruaski Gotzaiak ere gure Iruña maitearen izena:  
Pampilona. Baiñan izen jator ori PAMPILONIA biurtu zion 850'ko lumalariak. . . edo  
iru lau mende geroago beste lumalariaren batek.

Jakiña bait da larruki auek bein baiño geiagotan izan dirala berridatziak. Baita  
bein baiño geiagotan gezurra sartuz berridatziak ere. Ori lekaidetxeetako larruki-bil-  
dumetako dokumentuei sarritan gertatu zitzaizen gauza da, baiñan bereiziki Piña'ko  
Yondoniane'ren lekaidetxeko auei:

*"Los documentos de San Juan de la Peña presentan unas de las series más  
abundante en falsificaciones, por otro lado muy frecuetes en todos los monasterio  
medievales". "Se atribuyen a los siglos X u XI visiones fraguadas por los falsificado-  
res de la época de Jaime I".* (Aipatutako bere liburuko itzaurrean. 7'gn. orrian).

– LEGERENSE, izenondoko edo adjetibu-eran LEIRE'koa esan nai duan itza da,  
LEGERE bait du lekaidetxe orrek latinez izena.

Naiz gero alako ospe aundikoa izan, Leire'ko lekaidetxea ez da ain zarra. Bere  
inguruan jaio zan Aragoi'ko era Naparroa'ko lurretan IRUÑA'ko ERREIÑUA, esan ere  
esan bait daiteke erreñu jaio-berri orren seaska izan zala.

– FONTEFRIDA, FONTRIDE, nominatibu edo izen-keran Fontfrida, Euskeraz  
ITURRIOTZ. Lekaidetxe ospetsua izan zan Piña'koaren aurretik, eta oso maiz ager-  
tzen da larruki auetan XI mendera arte, ordurako sortua zan Piña'ko Yondoniane'ren  
Lekaidetxeari emana izan bai zan 1028'an Iruña'ko III Santxo Nagusiaren aginduz,  
Leire'ko kartularioan urte ortako larruki batek dioskunez: "

*"Iturrioz esan oi zaion lurralde ori, bertan lekaideak bizitzeko  
leku ona ta txit atsegiña ikusi dugu. ("Vidimus illun locum bonum et amenissi-  
mum ad habitancium monachorum qui dicitur Fontis frígido").*

*Orregaitik ainzuzen, "ob hoc", gure III Santxo'k Iturrioz'ko lekaidetxeak, naiz  
Piña'koaren menpean, bizirik jarraitzea nai izan zuala dirudi, eta ori ziurtatzen zuala-  
ko ustean ipiñi zuala Piña'koaren mempean. Ikus*

**"Ob hoc ego Sancius gracia Dei rex Aragonensium et Pampilonensium, una  
cum domina et matre mea Eximena regina, vel coniuge mea regina dompna  
Maiore seu cum omnibus filiis meis Garsea et Gundesalbus et Fredenandus  
sive Ranimirus, bono animo et spontanea voluntate offerimus in Sancti Johan-  
nis Baptiste monasterium, quod dicitur Sancte Marie Fontis Frígido**

"Orregaitik nik. Jainkoaren esker onez Aragoitarren eta Iruñatarren erregeonek nere andre ta ama Eximena erregiñarekin eta nere emazte Maiora erregiñ andrea-rekin batera, eta nere seme guztiekin, ots, Gartzia, eta Gontzalo ta Erramiro'rekin, asmo onez era nere neronen borondatez damaiot Yondoniane'ren lekaidtxeari, Iturrioz'ko Miren Deunarena esaten zaiona".

Zana-zala gure errege aren asmoa ori egin zuanean, arrezkero ez zaigu Iturrioz'ko lekaidetxearen aipurik agertu.

Ordura arte, bai; 850'ean gure Santxo Enekorena'k eraikia izan zanez gero, maiz agertzen zaigu Iturrioz'ko lekaidetxea, gero Piña'koaren kartularioan bilduak izan ziran dokumentu zarretan:

– 890'etik 900'eako batean, Jimeno gotzaiak bere jauntzapeko erri batzuen zergen laurdena ematen ziola albiste-emateko. *"Ego Scemeno in Domino episcopus"* ori, naiz berak nongoa zan esan ez, Iruña'ko Gotzaia zan.

– 921. Gure Santxo Garciarena'k, bere aurreko Garzia Enekorena'k emandako ondasunak birdamaizkio.

– 1005 Oraingoan III Santxo "Nagusia" da gatzaren zerga barkatzen diona.

– 1005. III Santxo "Nagusia"k, urteroko zerga barkatzen dio.

Guzti ori Erregeek eta Gotzaiak Andramari'ren Iturrioz'ko lekaidetxeari izan zioten jaietaren siñale da, eta au, ots, erregeek eta gotzaiak izan zioten jaiera au, erri landerrak izan zionaren adigarri. Tamalez, ordea, erri landerrak ez izaki larruki bat erosteko eta lumalari baten serbitzuak ordaintzeko aiña diru!

XI mendea arte ez dugu Piña'ko Yondoniane'ren Lekaidetxea ba'zanik esan aal izateko dokumentu ziurrik. Egia dio Antonio Ubieto Arteta'ka onoko au esatean: *"No es posible documentar la existencia del monasterio antes del siglo XI"* (ib. ), erdi-egia beste au esaten duanean: *"... sí hay algún monasterio de san Juan (XI mendearen aurretik), pero no se refiere al mítico colocado de bajo de la famosa roca"* (e. l. ).

Garai zar artako lekaidetxe zar guztiak izan bait ziran lendik bakartasun gorrian, edo zenobio bat osotuz, luzaro biziutako bakartiek sortuak, eta, agian, Yondoniane'ren izeneko zenobio oiek bat baiño geiago izan ba'ziran ere, bat beintzat *debajo de la famosa roca* egon zan, ez bait daiteke orren ariñ "la famosa narración de san Voto y San Felix zaranategira jaurti. Are gutxiago 1028'ko jorrailaren 21'eko larrukia III Santxo'k "nagusia"k Piña'ko lekaidetxera Benito Deunaren araudia nola sartu zuan jakiñerazten diguna, naiz larruki orren zati bat apokrifoa izan, apokrifoez ere, –ontaz luzaro mintzatuak gera–, merezi bait dute arreta geixego, eta, gaiñera- gaiñera Donebenito'ren aipua erregeak berea duan zatian, ots, apokrifoa ez dan zatian egi-ten bit du.

– MIANO. *"Posuerunt ei totum montem Miano"*: "Miano izeneko mendi osoa eman zioten (lekaidetxe berriari). MI-ANO: "ANO" edo bere laburpena, "NO", zer dan bada-kigu: tokia eta ugaritasuna adierazten duan atzizkia ("Arri-ano"="pedregal" Araba'ko Kuartango'n errixoa; "Ar-no"="perdregal" Motriko'n mendia), ez dakigu ordea bere aurreko "MI" ori zer izan daitekean.

Danadala Gipuzkoa'ko itxasaldean badu Aragoi'ko Miano orrek bere antzeko toponimo bat, MEANO, ondo ezaguna bertatik igarotzen dan kamioari eskerrak, ortik ibiltzen bait dira beribillak, lur egozieien erruz Getari ta Zumaia arteko itxas-ertzeko bidea isten danean. Badira gaurko Euzkadi'n itxura ortako izen geiago ere: Miabe eta Miaka Napparroa'n Bidasoa'ko Bera'n. Miana Araba'ko erri bitan: Mendiola'n eta Gaztelu'n.

Oroi dezadan jostaketa-moduz MIAJA abizena. Ez da euskalduna. Baiñan bai abizen euskaldun baten gaztelaraketa. José Miaja generala gizon ospetsua da Españi'ko azken-edestian, Errepublikaren alde, Madrid Franko'ren erasoan aurka berak babestu bait zuan garaille gudua amaitu zan arte. Bâ, Miaja'k askotan esan izan omen zuanez, bere egiazko abizena MEKOLA omen zan, jatorriz Eibar'ko abizena, bere aitona Gaztelerrira joan zanean Miaja biurtua.

MENDIOLA. Araba'n bada izen ortako erri bat. Ez da etimologi errezeko erria. "MENDI" zer da mundu guztiak daki. Ez ordea "OLA" zer izan daitekean.

Toponimian "OLA" itzak zentzu ezberdiñak izaten bait ditu.

Orregaitik "OLA" toponimian agertzen zaigunean, zer lurretan agertu zaigun dugu lenen aztertu bearra:

– 1<sup>a</sup>: Toki ori **urik gabea** ba'da, eta "OLA" itzak aurretik erantsirik dakarren itzak adierazten diguna, adibidez "arri", edo "urki", edo "pago", edo beste orrelako zerbait, toki artan **ugari ba'dago**, orduan "OLA" atzizki bat dugula ziur egon gindezke, ugaritasuna adierazten duan atzizkia: "Arri-ola" = pedregal; "Urki-ola" = "abedular", naiz itz ori legezkoa izan ez, gaztelarak ez bait du itz bat, "**urki-ugaridun-tokia**" adierazteko; "Pago-ola" = hayedo, eta. . . ¿UR-OLA = AGUADA, "**ur-ugaridun-lurraldea**"?

–2<sup>a</sup>: OLA ren aurreko itzak aipatu-berri ditugun baldintza oiek gabeko toki bat adierazten ba'digu, orduan "ola" eraikiñ edo edifizio aski aundi bat dugu: zerbait gordetzeko edo egiteko eraikia. Ez oso txikia txabola deitua izan ez dedin; ezta oso aundia ere eta, naiz aski aldi laburren epeztan bertan jendea bizitzeko gertutua, orduan borda esango bait zaio.

Adibidez OLA toki larretsuan eta malda garaietan ba'dago, ardiak gordetzeko egin dan **eraikiñ** bat da: Arditegia, Artola, eta baita, agian, Artetxe ere, naiz, bearbada azkeneko au **arritz egindako etxea** izan.

– 3<sup>a</sup>: Toponimo ori naiko zarra ba'da eta erreka edo errekatxo baten alboan ba'dago toponimo ortako OLA burni-meatza burni biurtzeko gertutua –eta zein den dotore ta egoki gertutua!– izan dan eraikiña dugu: gaztelera **ferrería**.

Gaurregun industriak altxatzen dituan lantegiei ere OLA esan oi zaie. Ederki esana, zerbait egiteko izaten bait dira eraikiak. Añorga'n porlan-olaren alboan, olaren zuzendaria bizi zan txaletak OLAJAUNDEGI zeraman izena; ederki asmatutako izena!

– GAONNA. Agoskeraz GAROÑA, bi "NN" oiek "Ñ" diralako. Araba'n bada Gauna izeneko erri bat. Dokumentu zarretan Gaona edo Gaonna esaten zaio batzuetan eta Garona beste batzuetan. Garona, Erdiaroan, Euskalerrriaren Iparreko muga egiten zuan ibai aundiaren izena da. An bukatzen zan Julio Zesarr'ek gaiñerako Frantzia bezalakoa ez zala esan zuan Akitania<sup>3</sup>. Ibai orri ere, Garoña esan oi zaio. Gaona, Gaoña, Garona eta Garoña, itz oiek danak itz bat dira. Bere etimologia ez da erreza,

<sup>3</sup> Akitani'ren eta Frantzi'ren bokatibu edo deikera **Frantzi** ta **Akitani** dira. Akitania eta Frantzia, izenkerak edo nominatibua dira: gaztelera "La Akitania", eta "La Frantzia". Ez zebillen oker Julio Zesar onoko au esan zuanean: Garona'ren iparraldea eta egoaldea ez zirala berdiñak, egoaldeko jendeek ere iparraldekoekin antzik ez zutelako. Garona'ren egoaldekoekin Auñamendiren egoaldekoekin omen zuten txit itxura aundia. Ez zebillen oker: Garona'ren iparraldea Frantzi bait zan, GALIA, antziñate artan, ta egoaldea AKITANI, eta Iparaldeko jendea galitarra, egoaldekoak berriz akitaniarrak, Auñamendiren egoaldekoak bezala osoan euskaldunak.

GARO-ONA, ots, helechal dala esatea, errezegia eta xinpleegia iduritzen bait zait, eta ibai batentzat ez oso egokia.

– UGILE. ¿UGI-EGILE? ¿Zer ote da "UGI"?

Izen orren senideak diran izenak gaurko Euzkadi'n ere baditugu. Adibidez, UGI, UGIRI-TXA, UGIRI-TXA-GA, Bizkai'n eta UGIRIETA Naparroa'n.

– EITUA curbu. EITUA Berritz'en baserri baten izena da. EITUA'ren senide izan daiteke, oraingoan ere Siresa'ko kartularioan, 867'ko larrukian agertzen dan AITO, AITOA, aragoitarra.

Gure larruki ontan, "okerra" esan nai duan "curbu", izki txikiz idatzirik dator, baiñan bearbada itz bat bakarra osotzen du "Eitua"rekin: EITUACURBU. Euskalerrri Zarrean latiñezko toponimian Pancorbo'ri PONTECORBO esan zitzaion: "ZUBIOKERRA". Gure egoaldeko lur aietan izan zan OKERR-URI bat ere: ¿URI OKERRA? Bai. . . , Okerruri ura AKERRURI ez ba'zan; ots, "Aker-Uri", "Pueblo del Cabrón".

– SASE: Oraingo Euzkadi'n, Naparroa'n ainzuzen, ikuspide edo paisaje ederreko Abaurrea Goikoa'n, nominatibu edo izen-keran, SASEA, toponimo bat da. SASE-TA, berriz, Araba'ko Trebiño'n, erri txiki bat. Itz ori, "saratsa"tik omen dator. Beraz Sase, Sasea, eta Saseta, "**sarats-ugariko-tokia**" dira. Gazteleraz "Salcedo". ¿Itz oiek ordea ez ote datoz gazteleraz "espinal" esaten zaion SASI'tik? ¿SASETA ez ote da SASIETA?.

– UNIARTE. "Bentauni UNIARTE" larrukian.

Bentaundi'ren itxura aundiko itza, larrukiko "Bentauni" ori. Orrela ba'litz, itz ori, Erdiari Garaiean dokumentu ontara sartua izango litzake, "Benta" euskerara Erromantzeko "Venta"tik iritxitako etorle edo inmigrante bat bait da.

Gure Euzkadi ontan UNI-ARTE Beasain'go baserri bat da. UNI-BE toki izen bat Naparroa'ko bi udalerritan: Araitz'en eta Areso'n. Araitz'en dago Uniate toponimoa ere.

UNI, agertzen zaigu kartulario ontan bertan 921'ko urrillaren 1'ean, genitibo edo norenkeran: ". . . *deinde usque ad venta Unicastello*". . . Gero Uncastillo'ko benta-raiño'

Esan dezadan, baitare, UNIARTE aragoitarrak eta oraingo URIARTE'k batak bestearekin antza aundia dutela. ¿Lumalari baldar batek ezberdindu ote zituan? Ez dut uste. Egiten ari geran "UNI" ren ikerketak beste bide batetik bait garamatza.

Uncastillo, aipatu-berri dugu, latiñez mominatibu edo izenkeran "Unocastello", Sal-duba (Zaragoza)'ko probintzian "Cinco Villas" edo "Bosturieta"ko bat da. Euskeraren edestirako garrantzi audiko uria. Itzegin dut bein baiño geiagotan berari- buruz, eta aurreruntz ere oraindik itzegiteko asmotan nago.

– BARAOSE: ". . . *et perrexit inde usque ad cubile de Baraose*". . . eta emendik aurrera joz Baraose'ko artolara iritxi arte". **Barao**, Karrantz'an alor baten izena omen da.

Piña'ko Yondonia'ren lekaidereko kartulario ontan, BARAOSE orren antzeko erri-izenak agertzen zaikigu: BAGUAS eta BAOS 1030'ko larrukibatean; BAGUASE, 981'eko apocrifo batean, eta BADAGUASSE ere esaten zaio: "Villa que dicitur Badaguasse", BADAGUES: villa nomine Badagues" 983'ko beste batean. eta BADAGUASE berriro 989'ko beste apokrifiko batean.

\*

Iru toki-izen gelditzen zaizkigu 858'ko larruki onen toponimia amaitzeko. Iruak daramazkite oso euskal-itxura gutxiko izenak; ". . . *deinde usque ad Tatarecta, deinde de Akoteia, et perrexit usque ad Somorba*". . . gero Tatarecta arte, gero Akoteia, ta Somorba'raíño iritxi zan.

– TATARECTA seguruaski TATA RECTA izango zan erri onen izena. Ortaz "Tata" zer izan daitekean jakitea da gure eginbearra. Ez dirudi izen euskalduna. Baiñan izen ori bera, TATARTE, darama Naparroa'n Basaburu Nagusi'ko Igoa errian larralde batek. Getxo'ko baserri batek TATONE deritza eta, Lezama'ko arrupe ta lats batek, TATUA.

– ACOTEIA. Onek bai, izen onek badu euskal itxura geiago: AKOTEGI eta AKOTAIN Naparroa'ko Logidan tokiizenak dira; eta AKOSTA Araba'ko iparrean erri bat dugu, Erdiaroan Okoizta esan zitzaion eta an egon zan Donebixente'ren lekaide-txe izentsua: S. Vicente de Okoizta

AKO-TEIA'tik AKO-TEGI, AKO-TAIN, AKO-STA, eta OKOIZTA'ra ez dago ain bide zaill luzerik eta errez igaro daiteke izen baterik bestera.

SOMORBA: Azkeneko "BA" ori "Azpia" esan nai duan atzizki bat da. Orixe dira "BE" eta "PE" atzizkiak ere.

Naparroa zarreko Araitz aranean, nere ama Benitte Eraso Igerabide zanaren jaitterria dago<sup>4</sup> Erri orri euskeraz Arri-BE esan diote beti, ta gazteleraz Arri-BA, Frantxis-ko Eraso Muñagorri nere aitona, Arribe ta Arriba biak Arri-PE esan nai duten itzak zirala, esan oi zidan ni oraindik oso-oso ume nintzala. Lau urteko muttikoa omen nintzan bâ Patxiku nere aitona il zanean.

Ortaz "SOMOR-BA, Somor-pe edo Somor-be dugu. Gazteleraz, "Debajo de Sonor". ¿Zer ote da SONOR? Araba'n bertan edestiauurreko aztarnak –Burni-Arokoak ainzuzen– agertu diran Lezama erriko alor baten izena dugu.

Barakaldo'n alor bati esaten diote Somor. Araba'n mendi garai baten izena da Pobes izeneko erriaren gaiñean. Somoarreta Areso naparrean mendi bat. ¿Somo-rostro bizkaitarraren "SOMO"k bai ote du Somorba aragoitarren "SOMO"rekin zer ikusirik? Eta Somoza'ren "Somo"k? Somozatarrak Nikaragua'ko lendakariak izan ziran; baiñan SOMOTZA abizen euskalduna omen da bâ!

\* \* \*

DONEIZENAK. Arritzekoa da baiña 850'ko larruki onek Jaungoikoaren izena aipatu gero –*In Dei nomine et eius gratia*": "Jaungoikoaren izenean eta bere graziari eskarrak"–ez digu Andramari'ren izena besterik ematen. Eta ori ere Iturrioz'ko lekaidetxea aipatzerakoan: "*Fecerunt ecclesiam Sancte Marie*", "Miren Donearen eliza egin zuten".

\* \* \*

GIZAIZENAK. Bederatzi dira 850'ko larruki onek damaizkigun gizakume-izenak: Iru, Iturrioz'ko lekaidetxearen sortzaileenak eta sei sorkuntza orren testigu edo leku-koenak:

<sup>4</sup> Jaitetxe norbait jaio dan etxea dan bezala jaitterria norbait jaio dan erria da. Jaiotetxea eta jaioterria, euskeraz gaizki esanak dira.

Sortzaiaak: GARSEA ENNECONES rege in Pampilona.  
GULGESINDUS gotzaia "in episcopatu on Pampilonia.  
FORTUNIO abata "in abbatia in monasterio que dicitur legerense.

Lekukoak: MICARRO MENZONES.  
GUTU MUNNIONES.  
GONIS GALINDONIS.  
EXEMENO BANZONES.  
GALINDO BERTUIONIS.  
GALINDO SCEMENONES.

Bi gauza gertatzen zaizkit arrigarri lekukoen zerrenda ortan: Izen oien euskal-itxuririk eza eta abizen guztien amaierako atizkia: "IS" eta "ES". Atzizki oiek eta oiek bezala baita "EZ" eta "IZ" ere, danek, abizen ori daramakiaren aitaren izena adierazten dute: "Santxez" eta "Santxiz", "Santxo'ren semea" dira; "Peres" eta "Peris", "Pero" edo Pedro'rena. Benetan dira, beraz, "Aba" edo "Aita"ren izena oroitzen duten izenak: Ab(a)-izenak.

Dirudianez, abizen-mota ori Autrigoitar euskaldunen egoldean sortutako Gaztelerriko Erromantzean agertu zan aurrena. Eta ortik zabaldu Iberiar-Erdiugarteko beste Erromantzeetara. Ta bizirik dirau gaur bertan erromantze oietatik jaiotako izkuntza guztietan.

Abizen oietako atzizki oiek latiñezkoak ez dira, Ez dira germaniar-izkuntzetakoak, adibidez bisigoten izkuntzakoak. Ezta arabierakoak ere. Are gutxiago juduen eberkerazkoak. ¿Nondik jasoak ote ditu bâ Gaztelerriko erromantzeak aurrena eta, gero, Españietako erdera gutiek?

Luze goaz ordea, eta, gaiñera, 850'gn. urteko beste larruki labur bat ere bai bait dugu Piña'ko Yondoniane'ren lakaidetxe'ko kartularioan, "Euskarazaintza" onen urrengo zenbakian, bigarren larrukikoekin batera aztertuko ditugo oraingo ontako gizakumeen izenak. Bi larrukiak gaiñera Errege berak "idatziak" bait dira.

**Latiegi ta Eraso'tar Bixente**